BEASAINGO
PAPERAK

16 ZKIA.
Beasaingo udalaren aldizkaria
2008ko azaroa



Pello Joxe Aranburu

Luis Mari Intza

BEASAINEK **BERE BILAKAERA GARRAIOBIDE ETA INDUSTRIARI ZOR,** 1840-1940

BEASAINGO PAPERAK

16. zkia

BEASAINEK BERE BILAKAERA GARRAIOBIDE ETA INDUSTRIARI ZOR, 1840-1940

BEASAIN DEBE SU EVOLUCIÓN AL TRANSPORTE Y LA INDUSTRIA, 1840-1940

Pello Joxe Aranburu Ugartemendia
Luis Mari Intza Igartua

Aranburu, Pello Joxe
Beasainek bere bilakaera garraiobide eta industriari zor, 1840-1940 / Pello Joxe Aranburu ; itzultzailea: Iker Zaldua Zabalua. – Beasain (Gipuzkoa) : Beasaingo Udala, 2008
124, 126 or.: plano bat erdian: ir. ; 30 cm . -- (Beasaingo paperak ; 16)

Testua euskaraz eta gaztelaniaz
Beasain debe su evolución al transporte y la industria, 1840-1940
Badu, gainera, bere at. eta or. propioekin, testu bera behekoz gain gaztelaniaz

L.G.: SS-1259-2008
ISBN 978-84-936700-0-9
1. Garraioa-Historia-Beasain 2. Transportes – Historia – Beasain 3. Industria – Historia - Beasain I. Zaldua Zabalua, Iker II. Beasaingo Udala
Atari gehigarriko izenburua: Beasain debe su evolución al transporte y la industria, 1840-1940

656(460.154 Beasain) (091)
62 (460.154 Beasain) (091)

Egileak /

analisia: Pello Joxe Aranburu

argazkiak: Luis Mari Intza

itzulpena: Iker Zaldua

argitalpena: Beasaingo Udala

I.S.B.N. 978-84-936700-0-9

Legezko Gordailua: SS-1259-2008

Michelena artes gráficas, Astigarraga - Gipuzkoa

Beasaingo udala

Beasaingokulturabatzordea

“BEASAINGO PAPERAK” BILDUMAN ARGITARATUTAKO LIBURUAK
Libros publicados en la colección “Beasaingo paperak”

1. Beasaingo elkarte herrikoiak
   Las Sociedades Populares de Beasain
   Beasaingo elkarteak

2. Jesus Larrañaga (agortua/ agotado)
   Jose Antonio Egido

3. Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)
   El Proceso de Industrialización y la Modernización Social en Beasain (1860-1936)
   Jose Gabriel Zurbano Melero

4. Beasaingo kale-izenen historia
   Los Nombres de las Calles de Beasain
   José Zufiaurre Goya

5. “Fabrika haundie”: Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia
   “La Fábrica Grande”: Historia de Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles de Beasain
   Elena Legorburu Faus

6. Gipuzkoar ezezaguna Loinazko San Martin Amunabarroko semea
   Un Guipuzcoano Ignorado: San Martín Loinaz, Hijo de Amunabarro
   Martín Mendizabal

7. Beasaini buruzko monografia etnografikoa
   Monografía Etnografía de Beasain
   José Zufiaurre Goya

8. Igartza: Historia eta kultur ondarea
   Igartza: Historia y Patrimonio Cultural
   Juantxo Agirre Mauleón

9. Beasain 1900-2000.- Ehun urteko historia irudietan
   Beasain 1900-2000: Cien años de Historia en Imágenes
   Martín García Garmendia y Fernando Laborde Abásolo

10. Errotak eta energia berriztagarriak Euskal Herrian
    Molinos y energías renovables en Euskal Herria

11. Pilota Beasainen
    La pelota en Beasain
    Igor Bueno Artola

12. Dantza Beasainen: Aurtzakak 25 urte
    La danza en Beasain. 25 años de Aurtzaka
    Mikel Sarriegi …

13. Sociedad Deportiva Beasain Kirol Elkartea: Atzokoak eta gaurkoak
    Sociedad Deportiva Beasain Kirol Elkartea: De ayer y de hoy
    Miren Barandiaran Contreras

14. Beasaingo Musikak
    Música de Beasain
    José Zufiaurre Goya

15. Beasaingo euskara
    Aintzane Agirrebeña

16. Beasainek bere bilakaera garraiobide eta industriari zor. 1840-1940.
    Beasain debe su evolución al transporte y a la industria. 1840-1940.
    Pello Joxe Aranburu eta Luis Mari Intza

AURKIBIDEA

Laburdura eta siglak 9

Prologoa 11

Aurkezpena 13

Beasain herriaren bilakaera trenbide eta industriari esker, 1840-1940 15

1. Beasain herri nekazaria, industrializazio moderno aurreko egoera historikoa 16

1.1. Beasain udalerriaren kokapen fisiko, geografiko eta demografikoa 16
1.1.1. Beasaingo auzoen bilakaera eta nortasun galera 19

1.2. Beasaingo komunikabide-sarea historian zehar 20

1.3. Goierriko tradizio industriala eta Beasaingo industria modernoaren sorrera 25
1.3.1. Goierriko tradizio industriala edo eskualdeko tradizioa burdingintzan 25
1.3.2. Beasaingo San Martin burdina-fabrikaren fundatzaileen datu biografiakoak eta lantokiaren historia 33
1.3.3. “Goitia y Cia” edo San Martin burdina-fabrikaren lehen urratsak 35

1.4. Norteko Trenbidea Beasainen 40
1.4.1. Norteko Trenbidearen eraikuntza eta Beasain, 1856-1864 40
1.4.2. Beasaingo trenbidearen eraikuntza bera eta bere inguruko gertakizunak 50
1.4.3. Norteko Trenbidearen garapena eta zerbitzuen hobekuntza mantsoa 58

1.5. Karlistak eta liberalak Beasainen 60
1.5.1. Goierriko karlista eta liberal sonatu batzuk 60
1.5.2. Karlistek hondatu eta suntsitutako merkantziekiko datuak 64
1.5.3. III. Karlistada ondorengo kultura mugimendu berria 65

1.6. “Maquinista Guipuzcoana” (MG), 1891-1901 66

1.7. Beasainek XIX. mendean izan zuen bilakaeraren aztarna eta behin-behineko ebaluaketa 71

2. XX. mendean Beasain 75

2.1. Herri aitzindariak 75
2.1.1. Frantzisko Goitia enpresa-gizona, idazle-ideologoa eta politikoa 75
2.1.2. Jose Martin Arana Arregi, 1846-1921 77

2.2. Beasaingo lantegiak, 1901-1940 79
2.2.1. “Sociedad Española de Construcciones Metálicas” (SECM), herrian bertan Beasaingo Bagoi Fabrikatzat ezagutua (BBF), 1901-1917 79
2.2.2. Jose Martin Arana eta ondorengoen lantegiak 87
2.2.3. COMPAÑIA AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A. CAF 87
2.2.4. Bernedo, Echeverria eta Elortza lantegia 100
2.2.5. “Esquisabel y compañia, S.R.C.”, 1928 101
2.2.6. Manufaktura Olaran, 1939 101
2.2.7. Construcciones Electro Mecanicas, INDAR, 1940 101

2.3. Beasainen, XX. mendearen lehen zatian emandako aldaketaren arrazoi eta ezaugarri sendo eta ziurrak 101
2.3.1. Beasaingo demografia: Beasain-Ordizia-Lazkao udalerrietako biztanleriaren bilakaera, 1900-1950 102
2.3.2. Beasaingo matrikula industriala, 1901-1938 103
2.3.3. Beasaingo auzo eta kale izenak, 1900-1940 110
2.3.4. Lehen langile mugimendu, alderdi eta erakunde politikoak Beasainen 112
2.3.5. Beasainen, XX. mendearen hasieran alderdi politikoen sorrera eta hauteskundeak 113
2.3.6. Beasainen, 1900-1940 urteetan, sortu ziren zenbait kultura eta kirol erakunde 115
2.3.7. II. Errepublika garaiko irakaskuntzari buruzko apunte batzuk Beasain, Donostia eta Gipuzkoan 116
2.4. Azken gerra zibila Beasainen eta fusilamenduak 118
3. Ondorioak 119
Beasain herriaren kokapen estrategikoa 119
Beasain herriaren irudi aldaketaren egileak 119
Bilakaera kritikoa 121
Beasaingo historian gertatutako bi efemeride beltz eta azken premonizioa 121
Informazio iturriak 123
Beasaingo plano partzialak . . . . . Erdiko orrialdeetan
Lazkaibartik Igartzarainoko planoa . . . . . Erdiko orrialdeetan
Igartzatik Iturraldetxikirainoko (Lapurretxe) planoa . . . . . Erdiko orrialdeetan

Argazki eta planoen aurkibidea

A- BBF lantegiko milagarren bagoiaren ospakizuna, 1907 (Zufiaurrre)

B- Argazkiak
1. Igartzako aldaparoaren zurajea (Zufiaurre) 16
2. Don Carlos erregea (Tolosako Karlisten egoitza, LMI) 18
3. Jose Frantzisko Arana Etxeberria, 1820-1883 (Legorburu, LMI) 19
4. Beasaingo erreboteko pilota-lekuan Musika Banda, XIX. mendea (Zufiaurre) 20
5. Loinazko Martin Donearen III mendeurrena, 1897 (Zufiaurre) 23
6. Loinazko Martin Donearen III mendeurrena, 1897 (Zufiaurre) 23
7. Zaldibiako Osin-berde iturburua eta zentrala (Legorburu, LMI) 24
8. Beasaingo tren-geltokiko plantila, XX. mendearen hasieran (Fototeka-Kutxa) 25
9. CAF airetik (0012 CAF) 27
10. Beasaingo salbamendu taldea, 1936 (Zufiaurrre) 28
11. BBF lantegian Espainiako erregea, 1910 (Fototeka-Kutxa) 30
12. Jose Martin Arana Arregi (Zufiaurre, LMI) 31
13. Beasain hirigunea, 1912 (Zufiaurrre) 32
14. B Zentrala (0026 CAF, LMI) 33
15. Barrendain eta tren-geltoki aurrean diligentzia, 1914 (Fototeka-Kutxa) 34
16. Santa Maria parrokia, 1914 (Picavea) 37
17. “Esquisabel y compañía S.R.C.”, 1928 (Fotoetxe) 39
18. Herriko plaza zaharra, Etxeberripe, Arantxiki, 1914 (Picavea) 41
19. Herriko plazako kioskoan kontzertua, 1914 (Picavea) 42
20. Udaletxe zaharra, kioskoa eta merkatu estalpea, 1914 (Picavea) 45
21. Trenbidetik Beasain, 1914 (Picavea) 46
22. Kale Nagusia, 1914 (Picavea) 47
23. Tren-geltoki kalean Mikelete etxea eta Urteaga Fonda, 1914 (Picavea) 50
24. Beasaingo agintariak, 1914 (Picavea) 52
25. Iturrioz alkatea, 1914 (Picavea) 52
26. Jose Orueta BBF lantegiko zuzendaria, 1914 (Picavea) 52
27. San Martin Loinaz ikastetxeko ikasleak, 1915 (Zufiaurrre) 55
28. Txirrindulari taldea Beasainen, 1916 (Zufiaurrre) 56
29. Luis Urquijo Ussia, CAFeko lehendakaria (Legorburu, LMI) 57
30. Beasaingo futbol taldea, 1918 (Zufiaurrre) 59
31. CAF lantegia, 1920 (Fototeka-Kutxa) 61
32. CAF lantegiko bagoia, 1920 (Zufiaurrre) 62
33. Lokomotora bat Beasainen, 1922 (Zufiaurrre) 63
34. CAF lantegiko plantila, 1925 (Zufiaurrre) 64
35. CAF lantegia, 1925 (0015 CAF, LMI) 65
36. Laborategia (0014 CAF, LMI) 66
37. Beste txalet bat (0028 CAF, LMI) 67
38. Aroztegi mekanikoa (0029 CAF, LMI) 68
39. Gurpilen tailer mekanikoa (0016 CAF, LMI) 69
40. Merkantzien bagoia (0021 CAF, LMI) 70
41. Fabrikako egoitza-gunea (0024 CAF, LMI) 73
42. Teknikari eta Zuzendaritzako txaletak (0025 CAF, LMI) 76

43. Barrendain diligentzien pausa lekua, 1925 (Zufiaurre) 78
44. Primo de Rivera CAF lantegian, 1927 (Fototeka-Kutxa) 80
45. Altamira baserriko sendia, 1930 (Felipe Buenoren argazkia) 82
46. Alkala Zamora Espainiako II. Errepublikako Lehendakaria CAF lantegian, 1931 (Foteka-Kutxa) 84
47. Beasain-Zegama egiten zuen zerbitzu autobusa, 1935 (Zufiaurrre) 88
48. Alsthom tren-makinak tailerrean (0017 CAF, LMI) 99
49. Biltegiak (0022 CAF, LMI) 100
50. Sutegia (0023 CAF, LMI) 102
51. Francisco Franco diktadorea CAF lantegian, 1940 (Fototeka-Kutxa) 105
52. INDAR lantegiko lehen esmeriladorea, 1940 (Indar) 106
53. Beasain Igartza aldetik, fondoan Txindoki, 1940ko hamarkadan (Fototeka-Kutxa) 109
54. RENFE tren-makina 7669 (0017 CAF, LMI) 110
55. Tailer mekanikoa (0020 CAF, LMI) 111
56. “BAJO ARAGON” tranbia (0030 CAF, LMI) 112
57. Beasaingo tren-geltokia, 1959 (Zufiaurrre) 114
58. INDAR lantegia eta berak eraikitako etxe-bizitzak (Indar) 115
59. INDAR lantegiaren bilakaera 25 urtean (Indar) 117
60. Zesareo Ugarte sendagilea (Zufiaurreri Ugarte sendiak emana) 118

C- Beasaingo plano partzialak
Lazkaibartik Igartzarainoko planoa . . . . . Erdiko orrialdeetan
Igartzatik Iturraldetxikirainoko (Lapurretxe) planoa . . . . . Erdiko orrialdeetan

Laburdura eta Siglak

AAO	=	Administrazioko Artxibo Orokorra
AHF	=	“Archivo Histórico Ferroviario”
ANV	=	“Acción Nacionalista Vasca”
BBF	=	“Beasaingo Bagoi Fabrika”
BF	=	“Beasain Festivo”
BJ	=	Beasain Jaietan
BUA	=	Beasaingo Udal Artxiboa
CAF	=	“Compañía Auxiliar de Ferrocarriles”
CM	=	“Construcciones Metálicas”
DUA	=	Donostiako Udal Artxiboa
EAJ	=	Euzko Alderdia eta Jainkoa
ELA	=	Euskal Langile Abertzalea
FC	=	Ferrocarril
GAO	=	Gipuzkoako Artxibo Orokorra
GFA	=	Gipuzkoako Foru Aldundia
GPAH	=	Gipuzkoako Protokolo Artxibo Historikoa
GUA	=	Gabiriako Udal Artxiboa
Ibidem	=	Leku berean
JD	=	“Juntas y Diputaciones”
LMI	=	Luis Mari Intza
LUA	=	Legazpiko Udal Artxiboa
MG	=	“Maquinista Guipuzcoana”
PSOE	=	“Partido Socialista Obrero Español”
PNV	=	“Partido Nacionalista Vasco”
PT	=	“Protocolos del Partido Judicial de Tolosa”
RM	=	“Registro Mercantil”
S.M.	=	Serapio Múgica
SECM	=	“Sociedad Española de Construcciones Metálicas”
SGCME	=	“Sociedad General de Credito Movil Español”
SOV	=	“Solidaridad de Obreros Vascos”
UGT	=	“Unión Genera de Tabajadores”
ZUA	=	Zumarragako Udal Artxiboa

Prologoa

Beasaingo Paperak sailaren 16. alea duzu esku artean. Pello Joxe Aranburu eta Luis Mari Intza dira egileak.

Pello Joxek, Norteko Trenbideari buruz egin eta oraindik egiten ari den lanaren berri eman zidanean, bueltan bota nion: “Beasain eta Trenbidea eskutik hazi dituk azken garaietan, horren berri emateko prest al hago liburu baten bidez?” “Trenbideari lotuta herriaren industrializazioaren berri ere emango nikek?“ erantzun zidan Pello Joxek.

Beraz, horixe da “Beasainek bere bilakaera kritikoa garraiobide eta industriari zor: 1840-1940” liburuaren mamia. Egileek dioten bezala: Beasainen historiaren gaineko apunte batzuk dira eta urte oso mugatuak landu dira.

Ez da gaurkoa, Beasainek garraio-bideekin duen lotura, Igartzako zubia adibide. Beasainek bere kokapen geografikoari esker eskuratu zituen I. Nazionala eta Norteko Trenbidea.

Bereziki Norteko Trenbidearen eraikuntzaren xehetasunak ematen zaizkigu liburu honetan. Gipuzkoako agintariek azti ibili ziren Norteko Trena herrialdetik igaro zedin eta diru bilketa egin zuen. Goierriko hainbat udaletxeek eta herritarrek ere Foru Aldundiaren deiari jarraituz Norteko Trenbideko akzioak erosi zituzten.

Trenbidea bazetorren eta hori aurrikusiz Domingo Goitia eta Martin Usabiaga ordiziarrak eta Jose Frantzisko Arana beasaindarra ageri dira ere akziodunen artean. Hiru hauek izan baiziren Beasaingo industria modernoari (Goitia y Cia) sorrera eman zietenak Aranaren lurretan, trenbide ondoan.

Trenbide berriak aukerak ireki zizkion Beasaingo herriari eta ondo baino hobeto bideratu zituzten aukera horiek Frantzisko Goitia eta Jose Martin Aranak enpresa-gizonak Beasaingo industria modernoa eraikiz. Liburuan Herri aintzindariak bezala aipatzen dira eta beraien biografia laburra ere irakur daiteke.

Ingurumari honetan, hainbat goierritar enpresa gizonei eta lantokiak aurrera ateratzeko kanpotik etorri ziren gizon-emakumeei ere zor zaiela Beasain herriaren hazkuntza dio liburuak. Gaurko Beasain herriaren fisonomia orduan hasi baitzen markatzen.

Une beltzak ere izan ziren garai horietan, bi aipatzen dira:

- 1873ko ekainaren 16an, arratsaldeko seietan Santa Krutz gerrilari karlistaren taldeak Beasaingo geltokia erasotu, txikitu eta kiskali zuen kalte material ugari sortuz.
- 1936ko uztailaren 27-28ko gauan frankistek 32 pertsona, herritar, fusilatu zituzten.

Gertuko historia honek Beasaingo herriaren nondik-norakoa hobeto ezagutzen lagunduko dizulakoan nago, eta hainbat herritarrei ere bere bizitzako oroitzapen asko ere gogora ekarriko dizkio.

Eskerrikasko beraz egileei eta Udaleko Kultura Sailari gure eskuetan jarri duten liburu honengatik.

Patxi Plazaola

Alkate Udalburu

Aurkezpena

Beasain herriaren bilakaeraz idazteko aukera eskaini zidatenean, presaka eta epe jakinetan gainera, gehiegi pentsatu gabeko erantzuna eman nion alkate jaunari, aurrez Luis Mari lankidearekin egon ondoren. Presakako erantzun hura emateko orduan, neurri batean azken urte hauetan esku artean darabilgun gaia delako animatu gaitu. Neurri batean diot, lehen partea berriki landu eta argitaratua dugulako, baina, bigarren zatia beste batzuk ikertu eta argitaratutako lanetan sarritan oinarritu gara.

Liburuaren aurkezpen honetan, beste batzuetan egin ohi diren argitalpen hasikinak denak batera emango dira: hitzaurrea, metodologia eta informazio iturrien berri alegia, multzo berean eta era nahasian agertuz.

Liburuak bi oinarri ditu edo bi koordinaden baitan idatzi da, Beasainen bilakaera eta mende bateko, 1840-1940 urteetako garapena. Alde batetik, Beasain herriaren kokapena eta deskribapen fisiko-demografiko bat egitetik, aipatu urteetan herriak bizi izan, jasan eta garatu dituen fenomeno sozialak ikertu eta adierazten ahalegindu gara. Euskal Herri osoak bezala Beasainek, 1840-1940 urteetan, gerrak, aldaketa nabarmenak eta pertsonaia ez hain ezagun, interesgarri eta erabakigarriak izan, sortu eta eman ditu. Horiek guztiak kontuan hartu dira. Beasain herriaren alderdi bat bakarra soilik kontuan izanik pentsatu eta idatzitako lan bat ez da. Beraz ez da lan monografikoa, bai ordea, Beasainen historiaren gaineko apunte batzuk, urte oso mugatuak landu direlako eta garai horretako alderdi anitz oraindik bere sakontasunean ikertu gabe daudelako. Hala guztiz ere, aipatu urteetan herrian gertatu den bilakaera kritikoa nabarmendu da duda zipitzik gabe.

Lana hainbat mugarriren barrutian kokatu da: Lehen eta Hirugarren Karlistada, “Goitia y Cia”, MG, SECM edo BBF eta CAF lantegien sorrera eta 1936ko gerra zibilaren barruan. Beasain eta Euskal Herriko gertakizun haien esparruan eman zen gizarte aldaketa eta sortu zen herria, 1940ko Beasain azaltzen saiatu gara. Azterketaren muina Beasain izanik, zenbait une eta arlotan testuinguru zabalagoetara ere hedatu behar izan da, gaia hobeki ulertzeko. Beasain, besteak beste, Goierri, Gipuzkoa eta Euskal Herrian kokaturik baitzegoen aipatu garaian eta gaur.

Liburuaren azterketa bi zatitan banatu da, 1840-1901 lehen aldia, (Lehen Karlistada-MG lantegiaren amaiera), eta (SECM lantegiaren hasiera-1936ko gerraren amaiera), 1901-1940 bi aldiak alegia. Lehen zatian, guk arestian ikertu ditugun dokumentu eta materialen berri eman da, neurri batean gure argitalpenetan jadanik emana, ez osoki, ordea. Hori guztia *Norteko Trenbidearen eraikuntza, ebaluaketa eta ondorioak Gipuzkoan, 1858-1900, Beasain-Irun I. liburukian, 2006* aurkitzen da. Bigarren liburukia, jadanik 2008-05-13 an, Otzaurte-Igartza argitaratu berria da. Bigarren zatian, 1901-1940 aldia, zenbait arlotan gure ahalegin emankorrak gehitu arren, beste autore batzuk ikertu eta argitaratutako liburu-artikuluetan oinarritu da liburu hau.

Liburua idazteko orduan alderdi pedagogikoa kontuan izanik eta erraz ulertzeko modukoa egin nahirik, oinoharrak kendu, informazio-iturrien aipamenak murriztu eta testu barruan tartekatu dira eta argazki anitzez irakurketa arin eta atseginago egiten ahalegindu gara. Neurri batean argazkien testuarekiko lokera eta edukiaren zientifikotasuna guztiz bermaturik dago. Argazkien iturrietara jo eta haiek hautatzeko orduan kalitateari lehentasuna eman zaio. Argazkien hautaketa nekeza gertatu zaigu, aukera bikaina geneukan eta. Lehen aipatutako liburuetan, hots, Elena Legorburu eta Josetxo Zufiaurreren liburuetakoei ez-ezik, CAF eta INDAR lantegietako artxibo, Kutxaren Fototeka eta beste askoren lankidetzei esker lortu da argazki andana.

Aipatu urteetan, Beasain herriaren bilakaera bereziki bi faktore determinanteri atxiki zaio liburu honetan, garraio-bide, bereziki Norteko Trenbidearen eraikuntzari eta bertako industrializazio modernoari. San Martin Loinazen herria, loinaztarrak izatetik, beasaindarrak “vagoneros” bagoiegile ere bilakatu ziren, noski, trenbidearekiko lokarri eta izen-goitia ahaztu gabe.

Hori gauzatzeko mota askotako informazio iturriak erabili dira, batzuk pertsonalagoak beste batzuk

baino: alde batetik, azken urteotan guk arakatu ditugunak, adibidez, GPAH-GAO Gipuzkoan eta AAO Alcalán; beste alde batetik, Beasainen argitaratu diren zenbait liburu, esaterako Beasaingo Paperak, 15. alea. Halaber, Elena Legorburu Faus idazleak FABRIKA HAUNDIE izeneko liburuan adierazten duenez, CAFeko artxiboa erabili zuen; guk ezin izan dugu erabili, sekretupeko dokumentuak direla eta esan baitzaigu. Beste alde batetik, gure Aro Garaikidea, Beasainen gaia testuinguru zabalagoan aztertu duten hainbat autoren lanak ere landu dira. Bai, halare behin-behineko apunte batzuk dira. Nahiz eta hori kontuan izanik, liburu honetako Beasainen historia, ehun urteko azterketa zabala da, baina lehen esan denez, ez lan monografiko oso eta burutu bat.Beasainek, 1922-2007 azken urteotan, BF edo Beasain Jaietan aldizkariak, lehenago ikertu eta argitaratuak ahaztu gabe noski, esaterako, Serapio Muxikak egin zituenak hemendik eskertu nahi dira. Aipatu urteetan Beasain herria alde anitzetatik ikertu izanagatik, lerro hauen bidez berriro mila esker liburu eta artikuluetan emandako informazioagatik.

Aurkezpen hau amaitzeko bereziki eskerrak eman nahi dizkiegu Beasaingo Udalari, Kultura Batzordeari eta erakunde horretako agintari guztiei guri eginkizun hau eskaintzeagatik, gure ikerketa eta argitalpenak kontuan hartu dituztelako. Ez gara beasaindarrak, zuen herriaren bilakaera kritikoa kanpotik ikusi eta burutu dugu. Uste eta borondate onenarekin gauzatutako ikerketatzat opa dizuegu liburua.

Pello Joxe eta Luis Mari
Bi egileok

Beasain herriaren bilakaera trenbide eta industriari esker, 1840-1940

Beasainek, XIX eta XX mendeetan izandako bilakaera aztertu, landu eta adierazteko, 1860. urtea giltzarri izan zela esan badaiteke ere, testuinguru zabalago batean arazoa planteatzea komeni da. Beasain Goierrin kokaturik zegoenez eta 1860 urtea baino lehenago eta ondoren oinarrizko gertakizunak eman zirenez, udal-eremuetatik atera eta kokapen historiko zabalagoa egin da liburu honetan. San Martin burdina-fabrika edo "Goitia y Cia" izeneko lantokiaren lehen oinarri eta eraikuntzak, 1860an, Beasainen, gaur CAF dagoen leku berean kokatu ziren. Urte haren inguruan, 1858-1864 urteetan, Gipuzkoan Norteko Trenbidea eraiki zen.

Baina, XIX. mendean, Gipuzkoan, Euskal Herri osoan eta Mendebaldeko gizartean aldaketa sakonak suertatu zirelako, Aro Modernotik Aro Garaikidera gizartea iragan zen, iraultza burgesa eta industriala finkatzen hasi zen, gizarte tradizionala modernizatu zen, euskal herrialdeetara lehen momentuko tantokako emigrazioa gerora uholde bilakatu zen, liberalek gudak karlistei irabaziz Euskal Foruak hondatu ziren, 1880an, euskal lau herrialdeetan Lore Jokoak antolatu ziren, alderdi eta sindikatuak fundatu ziren. Fenomeno eta gertakizun itzelak, zabalak, denak asko eta orokorrean aztertuak izan dira teoria mailan, baina lekuan lekuko azterketa arrunta bateratuak falta dira, hau da, XIX. mendeko fenomeno eta gertakizun guzti haiek utzitako ondorioak eta lekuan lekuko ikerketak batzea. Zergatik eraiki ziren Beasainen bateratsu trenbidea eta "Goitia y Cia" burdina-fabrika? Zer bultzatu zituzten eginkizun hartara Goierriko lehen industria gizon haiek? Galdezka aritzea baino hobe da erantzun bila habiatzea. Horretan dihardugu lan honetan. Ikerketa egin ondoren, agian, gero erantzun sendoagoa etor daitekeelako.

Bi zatitan banatu da gure eginahala. Lehena XIX. mendeko azterketari eta bigarrena XX. mendeari eskaini zaizkio. Era berean, lehen zatian sei alderdi edo zutabe aztertu dira, azkenik ondorio batzuekin amaituz:

1. XIX. mendeko Beasain nekazal herria, bertako baserriak, populaketa sakabanatua auzoetan eta klaseetan banatua.
2. Beasaingo garraiobideak historian zehar.
3. Goierriko industria tradizionala edo eskualdeko tradizioa burdingintzan azaldu ondoren, Goitia, Usabiaga eta Arana hirukotearen biografiak landu eta Beasaingo burdina-fabrikaren historia idatzi da, bi etapatan banaturik: 1860-1891 urteetan, "Goitia y Cia" lantegia.
4. Beste alderdi bati begiratuz, Beasainen eraiki zen Norteko Trenbidearen urratsak, hots, aurre kontsiderazio labur batzuk, plano, diru-bilketa, bertako alorren besterentzea eta obrak ikertu dira.
5. XIX. mendean, Beasainen karlisten efemerideak eta pertsona liberalak kontuan hartu dira.
6. Mendearen azken hamarkadan, berriz, "Maquinista Guipuzcoana" izeneko fabrikaren azterketa egin da.
7. Azkenik, aipatu mendean Beasain herria eta bertan eman zen bilakaera ebaluatu da.

XX. mendeko azterketan beste alderdi hauen gainean ikertu eta argitaratutako lanen laburpena eman da, hau da, aipatutako bi errealitate haiek herrian eta bailaran sortu zituzten aldaketa, gertakizun, industria eta hazkunde demografikoarekin batera, ondoren Beasain modernoaren ikuspegi bat azaldu eta ebaluatuz, amaitu da idazlan hau.

1. Beasain herri nekazaria, industrializazio moderno aurreko egoera historikoa

Beasain herriaren egoera deskribatu da azpiatal honetan, bere alderdi fisiko, geografiko eta demografikoak landu dira. Azterketa gaitzat hartu den aldian, 1840-1940 urteetan, herriaren erdigunea ez-ezik auzoak ere aldatu dira, autonomoak edo beste herri batzuen menpean zeudenak atxikiz eta beste kasu batzuetan bere udaleremuan berriak sortuz. Herriaren garapenean, nekazal giroko auzoek pisu demografiko handia izatetik bigarren maila batera jaitsi dira. Auzoek beren nortasun eta ezaugarri nabarmenak zituzten, historia propioa, ohitura gihartsuak, eskola publikoa, eraikuntza erligiosoak, parrokia, ermita eta abar. Beasain urbanoa gairaile irten, hark zokoratu eta ia desagertzeko bidean jarri ditu.

1.1. Beasain udalerriaren kokapen fisiko, geografiko eta demografikoa

Beasain Goierrin Oria ibaiaren goi arroan kokaturik dago, Ordizia, Lazkao eta Olaberrirekin batera eskualdearen erdi-erdian, Beasainen udal-eremuan Eztanda eta Agauntza Oriaren ibaiadarrek beren emariak isurtzen dizkiotela betidanik. Beasainek, azken 150 urtetan, 170 bat baserri zituen, hiri-burua eta sei auzotan sakabanaturik. Hedadura, sakabanaketa eta gero galduz joango zen pisua zuten lehen auzoek. Hamahiru baserriko Matxinbenta zegoen aldenduen hiri-gunetik, Oria ibaira bere urak isuri gabe, Mandubitik behera Urolara joaten baitziren auzo hartakoak. Astigarretako hogeita hamahiru baserri, Garingo bederatzi eta Beasainmendiko berrogeita bi baserri Murumendi eta Usurbe mendien magaletako eguteran kokaturik zeuden. Beasaingo industrializazio aurreko garaian, Gipuzkoan nekazaritza nagusi zenean, orduko eragina hiru auzoak galtzen hasi ziren. Eztanda eta Oriaren ibarretan zeuden, berriz, Arriaran eta Gudugarreta, esan behar da Arriaran Itsaso herria utzi eta Beasaini 1927an elkartu zitzaiola eta Gudugarreta, ez eliza ez errota, halere askea zela 1882ra arte. Arriarango hogeita bi baserri, Gudugarretako zazpi eta hiri-guneko berrogeita hiru baserri, azken hauen garrantzia nabarmentzen joan eta hiria osatuko zutelarik. Nekazal egoerak XIX mende osoan eta gero ere iraun zuen. Jose Zufiaurre Goyak, (1999) BEASAINGO BASERRIAK izena daraman liburuan ikus daitezke aipatu baserrien argazki eta xehetasunak.

XIX. mendeko gerrateek, hots, Konbentziokoak, Espainiako Independentziarenak eta Karlistadek eragin na-



Igartzako aldaparoaren zurajea

barmena izan zuten Gipuzkoa eta Beasaingo baserritarren ekonomian, gudateek sortutako zorrak ordaintzeko herri sailak enkantean jarri ziren eta goraka zihoan burgesiak bereganatu zituen. Lehen sail haiek erabiltzen zituzten nekazariak, berriz, haietako larre, ale eta probetxurik gabe geratu ziren. Maizterrak ugaldu eta beheko biztanleria pobretzen ari zen. Burgesia zen, beraz, gorako joera hartu zuena, merkataritzatik bizi zena eta, neurri apalagoan, industria berritik. Klase hura Europako ideia eta aire berriak bereganatzen ari zen. Adibideak Beasainera ere iritsi zirela frogatu da paper hauetan.

Beraz, XX. mendera arte nagusiki nekazaritzatik bizi zen Beasaingo biztanleria, ia Gipuzkoa osoan bezala. Hala ere, Herrialdean zegoen lan-banaketa sozialaren barruan jende kopuru batek, nekazaritzako lanekin batera, zerbitzu, eskulangintza eta garraio lanak egiten zituen. Burdinoletan, basogintzan, garraio-lanetan, merkataritzan eta zerbitzuetako langileen kopurua hazten joan zen. Beasainen, 1861ean, berrogeita hamahiruk merkataritza eta industria zerga ordaindu zuten. Ikusi xehetasunak beheko lauki berezian. Datu haiek zera adierazten dute: Beasainen 1250 bat nekazari eta beste ogibide anitzetan 200 bat beasaindarrek lan egiten zutela, 1860ko hamarkadan, besteak beste, aipagarriak dira diligentzien elkarte eta langile kopurua (Lopez, 1987, 130).

Merkataritza, industria eta beste zenbait ogibidetan lan egiten zuten beasaindarrak, 1861ean

Ogibideak	Zerga ordaintzailea	Ogibideak	Zerga ordaintzailea
Oihal merkataria	Martin Jose Ibarrolaburu	Txokolate saltzaileak	Migel Aranburu eta Martin F. Zunzunegi
Ostalariak	Martin Arregi eta Juan Bautista Bengoetxea	Tabernariak	Paulo Altuna, Martin Imaz eta Juan F. Aldanondo
Janari-dendak	Martin F. Zunzunegi, Juan J. Zunzunegi, Jose J. Etxezarreta eta Frantzisko Aranburu	Finka-administratzailea	Juan Jose Zunzunegi
Agrimentsorea	Juan Jose Zunzunegi	Zerri tratulariak	Juan J. Goena, Matias Iztueta
Zurginak	Frantzisko Aranburu eta Frantzisko Iturrioz	Harakina	Juan Frantzisko Aldanondo
Kirurgilaria	Jose J. Labat Muxika	Errementariak	Jose F. Garikano eta Prudentzio Aranburu
Okinak	Inazio M. Lizarreta, Jose A. Agirre eta Joakin Arozena	Zapatariak	Jose A. Saralegi, Frantzisko J. Urretabizkaia eta Domingo Balauzategi
Errotariak	Nikolas Urkia eta Luis Ormazabal	Diligentzia garraiolariak	Jose Frantzisko Arana, Martin J. Ibarrolaburu, Jose M. Urteaga, Fernando Altuna, Pedro Iturrioz, Jose A. Lasa, Jose I. Zaurre, Juan Usabiaga, Joakin Aranburu, Inazio M. Txintxurreta, Jose M. Unsain, Martin I. Unsain, Jose M. Eleizegi, Jose J. Jauregi, Frantzisko Muxika, Jose I. peæa, Jose M. Izagirre, Antonio Gaztaæaga, Juan B. Aranburu eta Antonio Gabilondo
Mandazainak	Martin Imaz eta Jose M. Lasa		

Garai hartan, hots, 1860. urte inguruan, posta geltokia edo estafeta izenekoa leku aproposa zen hartzeko edozein herritan. Beasainen I Nazionaleko bidaiariek geldialdi bat egin eta ostatuan atseden diligentziak Barrendain eta Iurrita ostatuan gelditzen ziren, gerora Urteaga ostatua bilakatuko zen.

En esa zona, aparte de la estacin, los edios que mÆs importancia tenan por esos aæos, dado el continuo trÆco de trenes, carruajes y diligencias, eran la casa de postas Barrendain y la fonda Yurrita (despuØs Fonda Arteaga). Los terrenos donde se construy la fonda eran propiedad de D.“ Pilar de IdiÆquez (de la Casa de Igartza) y fueron segregados de los propios pertenecidos del primitivo casero Barrendain. La fonda... la levantaron de nueva planta, en el AO 1860, D. Manuel Yurrita y su esposa D.“ Micaela Azpitarte. El edio principal constaba de un solar de 90,72 m², manteniendo, por su lado Norte, un agregado de planta baja y un piso alto o desvÆn, que tena una superficie adicional de 145 m². Por el lado Este sostena otro agregado que serva de cochera, con planta baja y una superficie de otros 98 m². Esta misma cochera tena al Norte un patio y, orientado hacia las casas denominadas Vista Alegre (en direccin Este, hacia el casco de Beasain), tena un buen abrevadero para el ganado y las caballeras que se detenan en el lugar. D. Manuel Yurrita y su esposa conservaron la propiedad de la antigua Fonda hasta el 3 de mayo de 1882, cuando la adquirieron D. Martn Urteaga y su esposa, D.“ Mara Otegui, por lo que entonces pas a llamarse Fonda Urteaga (Garca, 2004).

Dena den, garai hartan bertako biztanleriaren kopuruari zegokionez, Beasain Goierriko bostgarren herria zen, Ataun, Zegama, Ezkio-Itsaso eta Segura baino txikiagoa alegia. Ondorioz, guztiz nekazal herria.

Beasaingo baserrien egoera adierazteko momentuan beste alderdi bat ere gogoan izan behar da: baserritar asko maizterrak zirela. Goierrin, adibidez Beasain, Ordizia eta Lazkaon baziren aristokraziako familia batzuk, zein baino zein ospetsu, aberats eta indartsuagoak. Denak tituludunak, markes, duke, konde eta antzeko tituluen jabe ziren. Kanpoan bizi ziren, Baiona, Madril, Granada eta abarretan, baina, beren sustraiak Beasaingo Oria ibaiaren ibarrera, eremu gozo eta laura iristen ziren, bertako etekin, errenta bikainak jasotzeko. Trenbidea egiteko orduan, baserri anitzen alorrak eta nkak besterentzean, hori guztia nabarmendu zen. Izen batzu ematearren, Valmedianoko markesa, Lazkaoko markesa, Arteaga jauna, Granadako kondea, Villafrankako kondea, Villafuerteseko kondea, Torretagleko markesa, besteak beste. Haien artean bik zituzten errorik sendoenak Beasaingo baserrietan, Madrilen bizi zen Lazkaoko Andres Avelino Arteaga edo Valmedianoko markesak eta Baionan bizi zen Granada de Egako dukea zen Jose Aguilera jaunak. Bi adibideokin zera frogatzen da: Beasaingo hirigune eta Oriaren ibarrean zeuden baserritarrak maizterrak zirela.

Lazkaoko jaunak Espainia osoan ondasun handiak zituen/ditu. Goierriko ondareari zegokionez honela laburtu genuen bere momentuan:

Dena den, Goierrira mugatuz, ondareari dagokionez, mendeetan zehar aldaketa sakonak izan dituztela kontuan hartuz, jarraian adibide batzuk emango dira. Legazpiko burdinoletako errentak jasotzeari uko egin behar izan zioten. Halere, Legazpi, Zumarraga, Mutiloa, Idiazabal, Olaberria, Ataun, Lazkao eta Zaldibiako parrokietako ardura-izendapenak eta hamarrenen zatia gozatu zuten. Zumarraga eta Ataungo hamarrenak jasotzeko arazo bat baino gehiago izan zuten. Jauntxokeriaz bereganatu zituztela ondasun horiek zenbait historialarik defendatzen du. Iurreko burdinola, Agauntza edo Lizarrustiko Markesene basoa eta Goierrin berrogeiren bat baserri, Ataungo Zelaibar, Lazkaoko bi eta Ordiziako Barrena jauregien jabe izan dira, orain dela gutxi arte, batzuetan oraindik jaun eta jabe jarraituz. Ataungo burdinola eta erroten jabetza erdira gozatu



Don Carlos erregea


zituen bertako gizataldearekin. Alde batetik, Iurreko burdinolaren jabetza, XIX. mendean desagertu arte, eta bestetik, Valmedianoko markesak Norteko Trenbidea eraikitzeko Beasaingo Ubi eta Zaldizurreta baserrietako alorrak saldu zizkion SGCME izeneko konpainiari (Aranburu, 2003b, 187).

Lazkaoko jaunari alderdi askotatik begiraturik, Beasain herriaren historian unerik garrantzitsuenetan han agertu zen. Horra hor adibide, pertsonaia eta apunte batzuk. Lazkaoko jaunarenak ziren Ubi eta Zaldizurreta bi baserriak. Manuel Egoskozabal administratzaileak, jabearen izenean noski, trenbidea egiteko biak besterentzean, jaso zituen Beasaingo kopururik bikainenak. Domingo Goitia Iurre bere burdinolako maizterra zen, 1860an hitzarmena egin eta Beasaingo fabrika berria eraiki zuenetako bat. La Maquinista Guipuzcoana (MG) fabrikaren fundatzailea ere Domingoren seme bat izan zen. Fabrika hartan, 1898an, Valmedianoko markesak akzioak erosi eta batzordekide zen. Manuel Egoskozabal bere administratzailea sarritan agertzen da alorrak tasatzen, lan haietan aditua baitzen. Trenbideko alorrak besterentzeko garaian eta handik at, askotan eginkizun haiek bete zituen.

Baionan bizi zen Jose Aguilera, berriz, Igartza burdinolaren jabe zen, 1858-1864 urteetan. Jabeak urruti bizi zirelako, Zunzunegi administratzailearen eskuetan utzi zituen berenka eta alorrak besterentzeko lanak. Granadako duke titulu eta ondasunak handiagotzat zituen Igartzakoak baina *Igartza, soilik jabe egiten dieten eskrituren bidez ezagutzen dute: gipuzkoar erroa oso urrun dute eta 1890ean guztiz desagertzan da*, idatzi zuten (Agirre-Mauleon, 2001, 69). Martin Usabiaga, Igartza burdinolako maizterrak, 1856an, hura utzi zuen, Domingo Goitia eta Jose Frantzisko Aranarekin elkartu eta beste enpresa moderno bat jasotzeko. Bestalde, trenbidea eraikitzeko alorrak besterendu zirenean, Igartzako jabeari sei baserritako alorrak kendu zizkioten eta lan haiek ere Zunzunegi administratzaileak egin zituen.

1.1.1. Beasaingo auzoen bilakaera eta nortasun galera

Beasainek, 1840an, ez zituen bere baitan 1940ko auzoak, lehengo herri edo giza-talde askeak atxekitzen eta berriak sortzen joan zitzaizkion. Araz-Matxinbenta aspaldidanik Beasaingo auzo izanik, San Martin izeneko parrokia, erretorea eta apaiz laguntzailea zituen XIX. mendez gero eta lehen mailako eskola bere maisuarekin. Astigarretak 1929 arte bere autonomia izan zuen (Mintegi, 2004, BJ,) eta 1909-1910 urteetan, 273 biztanle, 10 etxe herri-gunean, eta beste 27 sakabanaturik zituen S. Muxikaren arabera (GAO, JD, IT, 4228, 6). Erretore batek San Martin parrokia eta San Gregorio ermitako ardurak egiten zituen eta bazuen bere eskola ere. Gauza bera gertatzen zen Arriaran eta Garin beste bi auzoekin, bazituzten hurrenez hurren San Pedro eta San Sebastian izeneko parrokiak eta erretore bana, gainera beren maisu eta eskolekin. Eliza eta eskolarik gabeko auzo bakarra Gudugarreta, 1882ra arte autonomoa izan zen. Auzo haietan eskolak itxi, errotoreak aldendu eta eraikuntzak ondatzen hasi ziren. Baina, Beasain urbanoan auzo berriak sortu ziren, gero agertuko denez. Dena den, han ere baziren eraikuntza erligiosoak. *AdemÆs de la baslica de la Ascensin y Loinaz, de que se ha hablado en las pÆginas 352 y siguientes, existen la ermita de Nuestra Seœora de Loinaz, la de Nuestra Seœora de BelØn, propiedad del Excmo. Sr. Conde Montcabrie, y la de San AndrØs, propiedad del Excmo, Sr. MarquØs de Valmediano y Duque del Infantado* (Mœgica, 1918).



Jose Frantzisko Arana Etxeberria, 1820-1883

1.2. Beasaingo komunikabide-sarea historian zehar

Beasainek, Goierriko beste herriekin erkaturik, abantaila geografikoak zituen, Oria ibaia eta beste bi ibaiadarrek zeharkatzen zuten, bazuen udal-eremu bat beste herriek baino lauagoa zena. Agian hori zela-eta, Erdi Arotik izan zen 1 Nazionalaren pasaleku, 1737an, Elgoibarren Batzar Nagusiek San Adriango errepidea uztea erabaki aurretik, eta, 1753an, Frantzisko Iberok Araba-Leintz-Beasain 1 Errepide Nazional berria eraikitzeko plana aurkeztu ondoren ere. Antzizar, Beasain-Idiazabal Etxegarateko errepidea egiteko eskaera 1847an egin (GAO, PT IT, 298b, 6), eraikuntza datarik ez dago, 1863-1873 urteetan, ordea, elurteek luiziak eragin zituzten (Ibidem, 298c, 8), eta Segura-Zegama-Otzaurte, 1863an, bi errepideek Gipuzkoa eta Nafarroa elkartu zituzten. Zegamakoa, Fermin Lasala eta Martin Urreiztieta GFAko lehendakari eta idazkari zirelarik, enkantean jarri zen 638.427 pezetatan (Ibidem, 354, 7.) Malkasko-Ataun, 1854-1856 urteetan eta geroago Beasain-Senpere errepideek ere Beasaini Lizarrustitik Nafarroara joateko beste aukera bat eskaini zieten goierritarrei. Senpereko adarra trenbidearen eragin nabarmena izan zen. Gainera, aztertu gabe dagoelako eta zeinek eraiki zuen ikusirik, zabalago aritzea komeni da.

Jose Frantzisko Aranak eraiki zuen Beasain-Senpere errepidea, 1866an

GFAk, 1865eko uztailaren 9an, enkantean jarri zuen. Beasain-Senpere errepidea Tolosako Antonio Kortazar arkitektuak proiektua egin eta 59 artikulutan banaturik zegoen baldintza teknikoen plegua idatzi zuen. Hamar hilabetetan gauzatu behar zen eta 85.959 pezetako aurrekontua zuten obrek. Goitia eta Cia izeneko lehen zuzendariak, hots, J.F. Aranak hartu zuen. Obren likidazioa, berriz, 1866ko uztailaren 26an, Tolosan sinatu zuen (GAO, JD IT, 917c, 3)

Errepidea egiteko zenbait alor besterendu, eragindako kalte batzuk ordaindu eta eraikuntzaren xehetasunak adierazi dira jarraian. Alorrak besterentzeari eta kalteak ordaintzeari zegokienez, lau multzotan banatu ziren:

> Zaldizurreta baserriko bi soro puskengatik, Valmediano markesarenak ziren, Manuel Egoskozabal administratzaileari 839 pzta ordaindu zion GFAk, 1867ko maiatzaren 31n.



Beasaingo erreboteko pilota-lekuan Musika Banda, XIX. mendea

Data berean, Miarritzen bizi zen Jose Agilera, Ugartemendia baserriaren jabeari Juan Zunzunegi administratzailearen bidez 16 areako soro puska bat eta 113 areako gaztainadiagatik 5.216 pzta ordaindu zitzaion. Aipatu alorrak besterentzeko bi kopuruak errepidea amaitu ondoren ordaindu ziren, ez ordea, honako beste hauek, maizterrek obrak hasi aurretik edo bateratsu jaso zituzten beren indemnizazioak.

1865eko urriaren 27an Martin Txintxurretak 60, Juan A. Aranburuk 208, Juan A. Apalategik 360 eta Jose I. Zuaurrek 27 pzta jaso zituzten.

Azkenik, 1867ko uztailaren 23an, Zaldizurretako maizterrak, hain zuzen Jose I. Zuaurrek beste 43, Jose A. Lasak 108 eta Jose Joakin Zunzunegik 24 pzta ere bereganutu zituzten.

Errepidearen obren inguruan informazio zehatzagoa gehitu da ondoren. Errepideak 517 metro zituen luzeran, Beasaingo kale nagusian hasi eta Senperen Ataungoarekin elkartu artean. Lur-zorua berdintzea, 470 m³ pareta, 88 m³petril eta 517 metrotako bazterrak taxutzeagatik 46.718 pzta jaso zituen. Senpereko Agauntza gaineko zubia zabaltzea 18.322 eta Zaldizurretako zubiagatik 28.308 pzta ordaindu zitzaizkion. Kalkulatu gabeko beste gastu batzuk 8.424 pzta, baina, 18.619ko deskontua ere egin zioten, azkenik, Jose Frantziskok jaso izan zuena 84.158 pezetara iritsi zen.

Zaldizurretako zubiaren gainean, 1893an, Inozentzio Elortzak beste proiektu berri oso bat aurkeztu zuen, baldintzen plegu, obren zehaztasun, neurri eta prezioekin, aurrekontua 10.69181 pezetara iristen zelarik (GAO, JD T, 357, 4.)

Salbatore-Errastiola edo Landeta eta bere adarrak

Salbatore Beasaingo auzoan garai bateko 1 Nazionala errepidearen adarra izango zen errepide berria eta Goierri eta Urola eskualdeak elkartuko zituena, Mandubia, Matxibenta, Nuarbe eta Urrestilla zeharkatuz 1851-1854an eraiki zuten hamazazpi kontratistek. Obrak Manuel Peironcely ingeniariaren ardurapean egon ziren (Larrinaga, 2007), errepidea 20 zati eta beste 3 obratan banatu zituen, besteak beste, Azpeitiko Jose M. Landak 9 zubi tzar, estolderiak Beasaingo Jose I. Lasak eta Salbatoreko zubia herri bereko Martin J. Ibarrolaburuk eraiki zituzten. Aurrekontua 657.936 errealekoa izan bazen ere, obrak 563.692 erreal ordaindu ziren. Peironcely ingeniariaren txostenei esker informazio oparoa gorde da: obrak eraiki ziren lau etapetako xehetasunak, kaltetutako alorren jabeak eta datu ekonomiko ugari. Gainera, errepide hura egiteko Azpeitiko Roman Iberok fondo bat osatu zuen Azpeitian, 1853ko abenduaren 29an, hain zuzen, 560.000 errealekoa, hurrengo urtean akzio batzuk saldu eta berriak egin (Ibidem, JD IT, 934, 2 eta 376a, 17). Salbatoreko arbitrio etxea edo katea, 1860an, Simon Ansolak eta kideek eraiki zuten 16.606 errealetan (Ibidem, 600, 12.)

Beasaingo udal-eremuetan hurrengo mendean, Astigarreta, Arriaran eta Garin bere hiru auzoetara, bi adar gehitu zitzaizkion: lehenik, Mandurio (Mandubia)-Astigarreta errepidea eta, bigarren une batean, Arriaran-Garin auzoak lotuko zituena eraiki ziren **Mandubia-Astigarreta** 700 metroko errepide adarra egiteko baimena, 1889an, alkateak eskatu zuen, lehen momentua ukatu egin zitzaion (Ibidem, 1768, 1), baina, 1905-1906 bi urteetan eraiki zuen GFAk, 1905eko maiatzaren 16an, 21.979 pzta. zituen aurrekontua, hiru plano mota, hots, orokorra, luzerakoa eta zeharkakoak onartu ziren. Desnibela, berriz, ia ibilbide osoan %10ekoa izango zuen. Jadanik 1906an amaiturik zegoen (Ibidem, 356, 1.) **Salbatore-Arriaran-Garin** errepidea, berriz, 1928-1943 urteetan. Arriaran eta Garin bi auzoetako errepide adarrak literatura ugari sortu zuen. Bi auzoen garraio eta komunikabideetako arazoak hobetzearekin batera, oso momentu kritiko eta egokian eraikia izan zen. Errepide hura gauzatzera bi arrazoi hauek bultzatu zuten, CAFeko krisialdi latzak eta langabezian geratu ziren langileei lana emateak. Asmoaren alde Beasaingo elkarte eta erakunde ugari jarri ziren, besteak beste, Centro Replublicano, Centro Socialista, Beasaingo FC, Merkatari Elkartea, Centro Nacionalista eta Recreativa Ferroviaria, 1832an, agiriak idatziz. Lehen proiektua, planoak, baldintzen plegua eta 235.640 pezetako aurrekontua egin zen. Lehen proiektu hark 4.737 metroko luzera zuen, gero, ordea, 1.137 m gehitu zitzaizkion. Gipuzkoako BO-an, 1932ko azaroaren 28an, enkantean jarri zen, langabezian zeuden bertako langileak hartzekotan Araiako Julian Zabaleta kontratistak bereganatu zuen. GFAk eraiki zuen errepidea, Beasaingo Udalaren %25 laguntzarekin.

Badira ibilbide osoko plano zehatzak, non ageri diren alorren jabeak, besterendutako soro, baso eta xehetasunak. Arriaranen lehen 25 alorren jabea Jose M. Gaitan Ayala, Montemayorren alarguna zen eta

480 m² besterendu zitzaizkion, ondoren, Juan Lizarralderi 405 m², Hernaniko Ana Mertzedes Larrauriri 130 m² eta alor pusketa txiki ugari azkenik. Alorrak besterentzen 47.914 pzta ordaindu ziren, Beasaingo Udalak 30.219 pzta eta kontratistari 321.342 pzta ordaindu zitzaizkion (GAO, T, 409, 1 eta 454, 5).

Ezkiaga, Lazkaibar-CAFeko Porteria arteko errepidea, 1915-1919

Lazkaibar Oria gaineko zubitik, gaur Ezkiaga etorbidetzat ezagutzen den errepidean, 1915-1919 urteetan, 684 metrotan konponketa sakonak egin ziren. Uholdeek 1 Nazionalean serioski kaltetu zuten aipatu zatia, ez zuen defentsa tinkorik, edozein ur-handietan lokaztu ohi zen. Bestalde, azoka egunetan eta egunero CAFeko langileriak derrigorrez erabiltzen zuelako, premiazko obratzat jo eta Fomentoko Ministerioak 69.222 pezetako aurrekontua onartu zuen. Oinezkoentzat espaloia eraiki zen (GAO, JD T, 372,).

Antzizarreko pasonibela ezabatzeko proiektua, 1934-1941

Antzizarreko pasonibela ezabatzeko obrek ere helburu konjuntural bat izan zuten, hain zuzen, Beasaingo CAF lantegi eta bertako langileriaren egoera biguntzeko abagune paregabea gertatu zen. Bertako langileria, 1934an, egoera larrian zebilen eta arazoari irteera bat emateko bilerak eta proiektuak bideratu ziren, hona adibide bat, Antzizarko paso-nibela ezabatu eta izen bereko tunelaren gaineko errepide-aldaketa proposatu zen. Ramon Pagolak, 1934ko martxoaren 29an, 234.618 pezetako aurrekontuarekin enkantean jarri zuen proiektua. Alegiako Frantzisko Sarasola kontratistak obrak hartu zituen eta 203.792 pezetatan obrak egin zituen. Gainera, alorrak besterentzen beste 16.713 pzta ordaindu ziren eta 1936ko urtarrilaren 28rako dena amaiturik zegoen (Ibidem, 430, 2).

Erauskin auzoko errepidea

Gerra zibila ondoren, 1948an, eraikia zegoen. Errepide hark Ospitalea eta Beasain Mendiko baserriei kalerako irtenbidea erraztu zien, 2.793 metroko luzera, 180 metroko desnibela gainditzen zuen Nafarroa Irtenbideak zeuzkan 158 metro haserako altura gunetik. Eten gabeko aldapa, baina, %008 portzentaia azpitik mantentzea lortu zen (BF, 1947, 7).

Beasaindik kotxe zerbitzu goiztiarrak Goierrin zehar

Beasaingo Norteko Trenbidea, gutxienez 1924an, Lazkao, Ataun, Idiazabal, Segura eta Zegamarekin autoz komunikaturik zegoen. Horra ordutegi, ibilbide eta bileteen prezio batzuk (Rodriguez, 2003, 219-228).

Ataun-Beasain-Ataun

Irteera	Ordua	Helmuga	Ordua	Irteera	Ordua	Helmuga	Ordua
Ataun-S.M.	600	Beasain	615	Beasain	900	Ataun-S.G.	920
Ataun-S.G.	730		750		1100	Ataun-S.M.	1115
Ataun-S.M.	830		845	Ataun-S.M.	1630	Beasain	1645
Ataun-S.G.	1700		1720	Beasain	1800	Ataun-S.G.	1820

Ataun-Lazkao arteko biletea 050, Ataun-San Martin-Beasain joan-etorria 125 eta Ataun San Gregorio-Beasain joan-etorria, berriz, 175 pzta ordaintzen zen.





Loinazko Martin Donearen III mendeurrena, 1897

Zegama-Segura-Idiazabal-Beasain-Idiazabal-Segura-Zegama

Irteera	Ordua	Helmuga	Ordua	Irteera	Ordua	Helmuga	Ordua
Zegama	530	Beasain	630	Segura	600	Beasain	615
Idiazabal	630		645	Idiazabal	830		845
Beasain	900	Idiazabal	915	Segura	900		915
Beasain	900	Segura	915	Beasain		Zegama	1000
Beasain	1100	Idiazabal	1115	Zegama	1530	Beasain	1630
Idiazabal	1630	Beasain	1645	Segura	1700		1715
Beasain	1800	Segura	1815	Beasain	1800	Idiazabal	1815
	1800	Zegama	1900				



Idiazabal-Beasain arteko biletea pezeta bat, Segura-Beasain joan-etorria 150 eta Zegama-Beasain, aldiz, bi pezeta ordaintzen ziren.

Beasain, 1850-1950 urteetan, trenbide eta errepidez ongi komunikatzea lortu zen Madril, Paris, Nafarroa, Bizkaia (Zumarraga-Maltzaga trenbidez), Urola bailararekin Salbatore-Landeta errepideari esker eta Goierriko beste herri guztiekin auto zerbitzuen bidez.

Zaldibiako Osin-berde iturburua eta zentrala



Beasaingo tren-geltokiko plantila, XX. mendearen hasieran

1.3. Goierriko tradizio Industriala eta Beasaingo industria modernoaren sorrera

1.3.1. Goierriko tradizio industriala edo eskualdeko tradizioa burdingintzan

Gipuzkoa osoaren antzera Goierrin ere burdinolek ekoizpen zabala izan zuten, hots, Oria iturburutik hasi Zegamako Altzibar eta Zatizalibar, Segurako Arrabiola, Idiazabalgo Oribar, Ursuaran, Zuluaga eta Iurre burdinolek, bestalde, Eztanda eta Arriarangoaz gainera Beasaingo Igartza eta Agauntzan Ataungo Olea eta Lazkaoko Amilibia, Iribe eta Ibarrola burdinoletan eskualdeko meategietatik ateratako mea edo pea landu zen.

Goierriko meatzaritzaren inguruan idazterakoan, ordea, derrigorrezkoa da II. Gerriko Ikerlan-Sariketa aipatzea (Herreras, 1991, 127). Autoreen ondorio batzuk ekarri dira hona.

> Orri hauetan zehar Goierriko ihardueretako bat ezagutzera eman nahi izan dugu, meatzaritza hain zuzen ere, horretarako berak sortutako aztarnak eta dokumentazioa aztertuz gaur.
>
> Orokorrean hartuta sektore honek Goierrin izan duen indarra nabarmena da ikusi duguna ikusita, nahiz eta gaur egun, gure bailaran meategi bat bakarra aritu lanean Eximenesa Konpainiak ustiatzen duen Troia meategia hain zuzen, bide batez Gipuzkoan lanean ari den meategi bakarra bilakatu delarik.
>
> Edozein modura, aztertutako bailara honek, eta Gipuzkoako testuinguruko beste hainbat meatze-gune nagusietan aurkitzen diren aztarnek (Irunen, Amezketan, Arditurrin...) eta beraiei buruz G.M.B.A.n aurkitu den dokumentazioak adierazten du Gipuzkoan zein garrantzi handia izan duen meatzaritzak, beti ere Bizkaiko meatzaritzaren parean bigarren maila batetara baztertua izan bada ere.
>
> Eta konkretuki, Katabera, Mutiloa, eta Zeraingo meatze-zentruetan biltzen diren aztarnetara mugatuz zera esan beharra dago, hemen aurkitzen diren aztarnen artean beste edozein meatze-barrutietan aurki daitezkeen oinarrizko elementu guztiak topatu ditugula.

Gainera esan beharra dago, guk deskribatu ditugun aztarnak, aurki daitezkeen batzuk baino ez direla, ezen eta berriro diogu azterketa-teknika zehatzago batzuk erabili ezkero, zenbait miaketa eta indusketa ekitaldi adibidez, eta aldi berean dokumentazio ikerketa sakonago bat eginez gero, elementu eta datu interesgarri ugari agertuko litzaigukeelakoan gaude, gaia inolaz ere agortutzat jotzen ez dugularik.

Aipatutako ikertzaileek Gipuzkoako meatzaritzaren arloa bi eremuetan banatu zuten, meatze-barruti urriak eta meatze-barruti nagusiak. Azken haien artean sailkatu zituzten, noski Kataberakoa tartean zelarik, Goierriko beste biak: Zerain eta Mutilokoa. Bi meategietako ekoizpena Araia eta Beasainera garraiatu eta han landu zen, lehen urteetan Araian eta bigarren momentuan, 1870ez gero, Goitia y Cia labe-garaietan.

Lehen laukia: Zerain eta Mutiloko meategien jabetzak, 1830-1872


Meategia	Herria	Data	Jabea	Mea	Informazio-iturria
Sasi-aundi	Zerain	1830/01/19	Jose F. Telleria	Alkoola	GAO, JD MI, 2/20/58
Trapas					
Aizurdiko					
Trapataburua		1845/02/6	Isidro Arteaga (a)		PT, 812 sorta, 143
Santa Maria		1849/09/26	Antonio Lopez (b)	Kobrea	PT, 3365 sorta, 321-322
San Blas		1851/06/17	Isidro Goia (c)	Burdina	GPAH, 2/3963, 32-33
San Juan					
Santa Barbara		1856/02/22			Ibidem, 13-14
San Juan			Jose F. Telleria		
San Migel			Juan M. Goia		
San Martin			Isidro Gerriko (d)		
Josefa	Mutiloa	1856/06/1	Juan B. Larramendi		Ibidem, 35-36
Vitoria			Florentino Zabala (e)		
San Agustin	Zerain	1858/02/25	Pedro Telleria		PT 3255, 276
La Union		1858/03/11	Pedro E. Gorriz		PT 3372, 188-190
San Fernando		1858/07/4	Juan B. Larramendi (f)		GPAH, 2/3963, 66-67
Ritxipin		1871/09/9	Jose Joakin Alustiza		Ibidem, 2/3615, 15
San Jose	Mutiloa		Jose Goia		Ibidem, 19
San Andres		1871/12/11	Jose J. Alustiza		PT, 3563, 306-312
Troia			Pedro Telleria		
N. S. de A. (g)	Zerain	1871/12/16	Felipe Goia		Ibidem, 322-326
Ollargain		1872/12/11	R.C.A.M. (h)	Kalamina	GPAH, 2/3615, 17
Otaæarte	Zerain				Ibidem, 22

Lehen laukiko oinoharrak:

a. Bere kideak: Juan Bautista Aranguren, Jose Manuel Arruztiza (sic), Inazio Gerriko, Martin Berasategi, Inazio Muæoa, Jose Berasategi eta Inazio Ugalde
b. Bergarako jabe hark Juan Jose Laztiri eta Sebastiana Martirena senar-emazte donostiarrekin batera ekoiztu zuten meategia
c. Sociedad minera Union de Zerain osatzen zuten kideek
d. Beste kidea: Isidro Goia
e. Florentino Zabalak Frantzisko Fano tolosarrari utzi zion
f. Hark meategiaren edukitza hartzea Mutiloko Pedro Telleriaren eskuetan utzi zuen
g. Nuestra Seæora de Agosto
h. Real Compaæa Asturiana de Minas, Rentera (Aranburu, 2006b, 185-194)

Meategien jabetza banakakoa eta anitza zen eta koordinaketa-arazoak sortu zirelako, bi herrietan meategiak elkartu eta ordezkapenak izendatu ziren. Hona hemen elkarte izen batzuk: Sociedad minera de Union de Cerain, Reales Minas de Cerain, Compaæa Minera de Mutiloa, Compaæia de Minas de Mutiloa, Sociedad Cia Minera de Mutiloa. Zerain eta Mutiloan, aldi ezberdinetan meategiak elkartzeko bilerak egin zituzten. Hona hemen adibide batzuk, 1838, 1856 eta 1859 urteetakoak.

1838ko ekainaren 30ean, Mutiloko alkate eta notarioaren aurrean Zerain eta herriko multzo handi bat (ikusi ondorengo koadroan) elkartu zen meategien elkartea sortu, ekoizpenari etekin hobea atera eta arauak onartzeko. Elkartearen iraupena mugagabea, gehiengoak iraungipena eskatu artean, izango zen. Elkartea ez zegoen arrazoirik gabe uzterik. Jose Maria Goia, Jazinto Goia eta Fermin Lorentzo Iturrietak osatuko zuten batzorde exekutiboa eta ahalmen handiak eman zitzaizkion. Meategietako sarrera edo atarian mea utzi eta batzordeak salmenta egingo zuen. Kintal bakoitzaren salneurria zein burdinoletara eramaten zen desberdina izango zen: Alegia 3 err. eta cuartillo bat, Legorreta 3 err., Igartza 16 cuartillo, Iurre 2 err., Zegamako Olaberria 2 err. eta cuartillo bat, Legazpiko Olaberria 15 cuartillo, Bengoelea 25 err. eta Goenolea 2 err. eta cuartillo bat (GAO PT, 2280, 175-179). Urtearen amaieran, abenduaren 3an, beste bilera bat egin zuten ordura arteko eztabaidak eta aldeak berdindu eta bakeak egiteko. Aldeak eta historikoki lortutako eskubideak bi eremuetan banatzen



CAF airetik



Beasaingo salbamendu taldea, 1936

ziren, Troian eta Arrilantegi izenekotan alegia. Ordura arte egindako gastuak eta kalteak kitatzeko, Arrilantegikoek 420 dukat ipini zituzten (Ibidem, 346-349).

1838an, Zerain eta Mutiloko meategietako 47 jabe

Bileran bilduak: Juan Manuel Goia, Jazinto Goia, Jose Migel Murgiondo, Isidro Goia, Jose Maria Goia, Isidro Arteaga, Marko Alustiza, Migel Inazio Goia, Jose Goiburu, Juan Bautista Telleria, Jose Inazio Etxeberria, Jose Manuel Goia, Gaspar Arrondo, Juan Inazio Iruin, Jose Joakin Alustiza, Jose Aranburu, Jose Lekuona, Jose Frantzisko Telleria, Jose Maria Aizpeolea, Manuel Alustiza, Jose Telleria, Frantzisko Maria Alustiza, Jose Frantzisko Goia, Juan Frantzisko Goia, Juan Jose Goia, Martin Agirre, Bautista Asurmendi, Migel Inazio Goia, Inazio Muxika, Jose Antonio Legorburu, Frantzisko Murgiondo, Frantzisko Kerejeta, Migel Antonio Lekuona, Jose Inazio Muxika, Migel Inazio Ugalde, Martin Murgiondo, Domingo Oiarbide, Jose Isidro Bidaola, Jose Maria Etxeberria, Jose Joakin Murgiondo, Juan Jose Telleria, Juan Inazio Lekuona, Martin Jose Goia, Jose Maria Apaolaza, Martin Izagirre, Jose Domingo Aranburu eta Frantzisko Arrizabalaga, denetara 47.

1856ko otsailaren 22an, berriro Mutiloan, inguruko meategietako hogeita zortzi jabek (ikusi hurrengo koadroan) onartu zituzten bertako meatzaritzako arau berriak, gainera, bileran egon ez ziren beste hiruk berretsiz. Bileraren helburua ekoizpen jarduera eta kudeaketak hobetzea izan zen, erabakiok onartuz.

1856an bildutako meategietako 28 jabe

Jose J. Alustiza, Jose F. Telleria, Isidro, Inazio, Jose F. eta Jose M. Goia, Isidro Gerriko, Bartolome Arteaga, Juan B. Oria, Jose M. Muæ oa, Inazio eta Pedro M. Mendizabal, Jose M. Aizpeolea, Jose F. eta Jose A. Arrondo, Jose M. Oria, Jose F. Odria, Jose D. Etxaluze, Juan J. Alustiza, Jose M. Telleria, Jose I. Mugica, Juan B. Aranguren, Jose Berasategi, Jose F. Telleria, Frantzisko eta Jose Arostegi, Jose M. Galparsoro eta Jeronimo Telleria. Bileran egon ez zirenak: Jose R. Telleria, Isidro Arteaga eta Fermin Alustiza

Isidro Gerriko, Inazio Goia eta Jose Joakin Alustizak batzorde exekutiboa osatuko zuten, haiei eskumen osoak emanez.

8.000 km burdina-mea ustiatzean, diru-likidazioa egingo zen.

San Blas eta San Juan meategiek erdia ekoiztuko zuten, Santa Barbara eta San Martinek bina laurden.

Hitzarmenaren iraupena sei urterako izango zen (GPAH, 2/3963, 13-14).

Zeraingo San Migel eta San Martin bi meategietako lau bazkideek Frantzisko A. Legorburu herriko bikarioari botereak eman zizkioten, beren ordezkapena egin zezan interesak defendatzeko orduan, 1859ko abenduaren 31n (Ibidem, 101). Bi herrietako meategietako koordinazio-lana Tolosaraino iritsi zen. Tolosako Jose Antonio Larrondobuno legegizon eta Juan Bautista Larramendi sendagile bikote ikertzaileek, 1845. urtearen hasieratik, bai Nafarroan bai Euskal Herriko beste hiru probintzietan meategiak bilatzeko hitzezko konpromisoa hartu zuten. Horrela, 1856ko ekainaren 1ean, Mutiloko Josefa eta Vitoria meategien ardura-lanetan zihardueten (GPAH, 2/3963, 35-36).

Burdina-mearen ekoizpen-hitzarmen, enkante eta garraioa, 1857-1873

Mutiloa-Zeraingo meategien funtzionamenduen berri Ataun, Lazkao, Etxarri-Aranaz, Altsasu, Araia eta Beasaingo dokumentuetan dago, esaterako, XVII. mendean Mutiloko mea erabiltzen zen Lazkao eta Ataungo burdinoletan (Aranburu, 2003, 203). Halere, mearen ekoizpenari XIX. mendearen erdi aldera benetan ekin zitzaion eta, 1880. hamarkadatik aurrera, bi herriotan ekoizpen nagusia gertatu zela onartzen da. Lehen urteetan, Nafarroa eta Arabara, bereziki Araiara, burdina-mea eramaten zen eta bigarren etapa batean Beasainera.

Badirudi, 1850eko hamarkadaren hasieratik, bailara hartan burdina ustiatu eta Araiara barra-barra garraiatzen zela, nonbait ohitura eta hitzezko usadioetan bakarrik oinarritu arren. Agian ekoizpena ugaldu eta garraio-arazoak sortzen hasi zirenean, auziak, elkarteak, batzordeak eta hitzarmen idatziak egin ziren.


La Sociedad Minera Union de Zerain izeneko elkartearen izenean, 1858ko abuztuaren 19an, Fernando P. Olazabal zuzendari edo administratzaileak San Blas eta San Juan meategietako ustiaketak enkantean jarri zituen, hartarako aurrez baldintzak publikoan aldarrikatuz. Aipatu meategietako ustiaketa Lutxana kondearen izena zeraman putzuan gauzatuko zen, zulaketaren neurriak, berriz, 40 kana luzeran eta 7 bider 5 oin altuera eta zabaleran izango ziren, kana bakoitza 450 err. ordainduko zitzaiolarik meatzariari, eta bigarren aldian, 30 kana bakoitza 180 err. ordainduz. Tresneria guztia hasieratik elkarteak jarriko zuen, polbora, olio eta kandelak izan ezik. Gau eta egun, etenik gabe ustiatuko zen putzua. Hilabete bakoitzaren azkenean lana ordainduko zitzaion meatzariari, tresneriaren kalte eta hondamena deskontatuz, besteak beste, horiek ziren baldintza nagusiak. Mutiloko Pedro J. Galparsorok enkantea bereganatu zuen (GPAH, 2/3963, 72-75). Urte berean, abenduaren 26an, Zeraingo Aizpean, Erretxipina meategian beste ekoizpen-hitzarmen mota bat gauzatu zen. Lau mila kintal burdina-mea ustiatuko zen, kintala 18 errealean. Beruna, kalamina edo beste motaren bat aurkitu eta ustiatuz gero, heren bat meatzariarentzat geratuko zen. Hitzarmenean, alde batetik, Jose J. Alustiza jabeak eta, bestetik, Juan J. Aranguren, Jose M. Aizpeolea, Migel I. Ugalde, Jose Berasategi, Jose A. Arrondo eta Kleto Telleria sei meatzariek eskuartu zuten (Ibidem, 98).

Zerain-Mutiloko meategietan, mea ustiatzearen hazkundearen inguruan lehen aztarnak 1856koak dira, Nafarroa eta Arabara burdina-mea garraiatzean eta Idiazabalgo Lusagasti katea igarotzerakoan, Segurako Jose A. Izagirre zerga-biltzaileak gehiegizko arielak kendu zizkien. Garraio-arazo hura zela eta, bi bilera egin ziren zerga-biltzailea auzitara eramateko. Mutiloko notaritzan, 1857ko urtarrilaren 28an, hogeita bat kontratista eta garraiolarik botereak Zeraingo Isidro Gerrikori eman zizkioten (ikusi ondorengo koadroan).

1857an Mutiloan bildutako 21 kontratista eta garraiolari

Zeraingo Juan J. Aranguren, Jose A. Arrondo, Jose M. Berasategi, Jose M. Berasategi, Jose M. Aizpeolea, Jose I. Muxika, Jose M. Agirre, Jose M. Galparsoro, Jose Berasategi, Juan A. Apaolaza, Jose M. Alustiza, Juan J. Arrondo, Juan B. Telleria, Jose F. Odria, Jose M. Ugalde eta Jose F. Goia; Segurako Jose M. Apaolaza, Juan K. Urbiza, Pedro Ariztimuæo eta Frantzisko M. Muxika eta Mutiloko Jose A. Telleria eta Migel Murgiondo hogeita bat meatzari eta itzain

Ariel arazoen inguruan, notaritza berean, maiatzaren 21ean, antzeko beste botere-emate bat egin zuten, baina, xehetasun gehiago emanez: merkantzien garraiolari, kopuru, helmuga eta auzi-eskabide zehatza egite-



BBF lantegian Espainiako erregea, 1910

ko arduraduna izendatuz (ikusi hurrengo koadroan). Araiako lantokiko Olaskiaga enkargatuak jaso zituen gurdikadak. Zerain eta Mutiloko bi udalek eskuartu zuten protestan eta arrazoi-bidea lortu GFAtik. Segurako zerga-biltzailea auzitara eramateko aipatu itzainek Jose A. Urrestarazu hautatu zuten. Dena den, burdina-mearen gaineko ekoizpen-kopuru zehatzagoak badaude.

1857ko beste botere ematea Zeraingo Isidro Gerrikori
Idiazabalgo Bizente Muxikak 20 gurdika, Jose P. Urrestarazuk 42; Segurako Jose F. Gerrikok 22, Jose A. Katarainek 9; eta Zeraingo Lorenzo Aranburuk 29, Jose A. Berasategik 8, Bautista Aizpeoleak 9 eta Jose M. Alustizak 7 gurdika burdin-mea

Zerain-Mutiloko meategietatik, 1858an, Araiako lantegira 10.200 kintal burdina-mea garraiatzeko hitzarmenak

Zerain-Mutiloko meategietako berrogei itzainekin Jose Joakin Alustiza batzordekideak, 1858an, hiru hitzarmen egin zituen, maiatzaren azkenerako 10.200 kintal burdina-mea garraiatzeko Etxegaratera. Aurrez Araiako lantegiarekin hitzartuak zituen zenbait puntu. Alustiza zen garraioaren arduradun bakarra eta hori garbi ageri da notaritzako hiru eskritura ezberdinetan.

Lehen hitzarmenean, urtarrilaren hiruan, hogeita bi itzainekin, Mutiloko bakarra kenduz gero beste guztiak Zeraingoak, elkartu zen, sei mila kintal burdina-mea Zeraingo Larraerretatik Etxegaratera maiatzaren 31 baino lehen garraiatuko zituzten, garraiolari bakoitzaren kopuru hauetan: Agustin Telleriak 150, Lorentzo Aranburuk 150, Juan M. Goiak 800, Jose M. Ugaldek 300, Migel Arrondok 150, Jose M. Telleriak 300, Jose M. Galparsorok 100, Frantzisko Arostegik 200, Pedro M. Mendizabalek 200, Jose Arostegik 200, Jose D. Etxaluzek 150, Jose M. Agirrek 200, Isidro Larraæagak 200, Feliz Alustizak 300, Jose A. Berasategik 300, Jose M. Alustizak 200, Jose F. Telleriak 150, Juan J. Arrondok 300, Florentzio Muxikak 500, Teodoro Arzelusek 200, Jose M. Arrondok 250 eta Julian Gerrikok 200 kintal. Falta ziren 500 kintalak

hogeita biren artean eramango zituzten, kintalaren garraio-prezioa, berriz, 4,50 errealean izango zen, hilabetearen azkenean ordaintzekotan. Eginkizunak eta hitza bete ezean, aurrez isunak eta zigorrak onartu zituzten(GPAH 2/3963, 5-6)

Bigarren hitzarmenean, urtarrilaren 6an, notaritza berean Zeraingo beste hamar itzainekin elkartu ondoren, haiek ere, maiatzaren azkena baino lehen, hiru mila kintal burdina-mea Sasiandi eta Hiberluzetatik Etxegaratera eramango zituzten. Itzainek hiru multzotan milana kintal garraiatuko zuten, kintal bakoitza bi errealean. Ordaintzeko epe eta isun-baldintzak aurrekoen berdinak izango ziren. Kintal-garraioaren erdi prezioa garraio-bidearen diferentziagatik zen(Ibidem, 7-8)

Hirugarren hitzarmenean, egun eta notaritza berean, Zeraingo beste zortzi meatzari, aldi berean itzain zirenekin elkartu ziren. Ustiatu eta garraiatu, maiatzaren azkenerako, 1.200 kintal zortzi meatzari-itzainek egingo zuten. Etxegarate zen garraioaren helmuga, kintal bakoitzeko 550 errealean eta beste bi hitzarmenetako isun eta baldintzetan garraiatuko zituzten.

Alustizaren bilera berriak itzainekin, 1858an
Bigarren bileran Zeraingoak ziren: Inazio Urreta, Jose M. Alustiza, Jose F. Goia, Jose A. Arrondo, Jose M. Aizpeolea, Juan J. Aranguren, Juan B. Telleria, Bartolome Arteaga, Jose M. Berasategi eta Juan A. Apaolaza izan ziren hamar garraiolariak
Hirugarren bileran denak Mutilokoak ziren: Frantzisko Lekuonak 250, Jose Lekuonak 200, Jose A. Lekuonak 150, Migel A. lekuonak 150, Juan I. Lekuonak 100, Migel Goiak 100, Jose I. Etxeberriak 150 eta Jose I. Arrizabalagak 100 kintal burdin-mea garraituko zituzten



Jose Martin Arana Arregi

Zerain-Mutiloko burdina-mea, 1866-1871 urteetan, Beasaingo labe-garaietara

Beasainen, 1862an, Goitia, Usabiaga eta Arana hiru enpresa-gizonek Goitia y Cia edo San Martin izeneko burdina-fabrika modernoa eraiki eta labe-garaiak jarri zituzten, burdina-mea lantzeko sistema aldatuz, hau da, forja catalana izeneko teknika zaharkitua utzi eta labe-garaietan burdina-mea urtzekoa ezarri zuten. Horrela Jose Frantzisko Arana Goitia y Cia enpresa buruak, urteetan, harreman ugari izan zituen Goierriko meategiekin. Hasiera-hasieratik, 1866ko inbentarioan Zerain eta Mutiloko burdina-mea ageri da eta, bi urte zehatzetan, hitzarmen anitz egin zituen haietako nagusiekin.

Data	Herria	Izena	Jabea	Hitzarmena
1870/01/1	Zerain	San Migel	Juan Manuel Goia eta kideak	Bai (Ibidem, 3629, 1-3)
1871/12/11	Mutiloa	San Jose	Jose Goia Lekuona	Bai (Ibidem, 3563, 306-312)
		San AndrØs	Jose J. Alustiza	
	Zerain	Retxipin		
	Mutiloa	Troia	Pedro Telleria	
		Josefa		Anartean ez
		Gesurmuæo		Anartean ez
1871/12/16	Zerain	Nuestra Seæora de Agosto	Felipe Goia Goiburu	Bai (Ibidem, 322-326)
		San Martn y San Migel	12 jabe (Ibidem, 328-334)	

Hitzarmen guztietan hamar bat baldintza errepikatu ziren. Araiako fabrikarekin lehendik Zerain-Mutiloko meategiek zeuzkaten konpromisoak errespetatuko zituzten, baina, aurrerantzean mea guztia esklusiban Beasaingo lantegira ekarriko zuten meategi-jabeek. Mearen kalitatea oso kontuan hartuko zen eta Goitia y Cia lantokian mea aztertu eta zegokion maila eta prezioa ezarriko zitzaion: metro kintal onari pezeta, Zegamako hizkeran peabeltzari 8750 err. eta mea pikorra zuenari 50 err. Kalitate hartara iristen ez zena itzuli egingo zen.

Zerain eta Mutiloko burdina-mearen ohiturazko forjaketa edo forja catalana teknika krisialdi orokorrean sartu zen eta Goierrin urrats berri garrantzitsuak eman ziren.

Kapituluaren amaieran Goierriko eta beste lekutako burdinolen krisialdi larria, errekari eta teknika ikuspegitik begiratuz, bertako hiru enpresa-gizonen elkarraraztea, kapital-metaketa, Goitia y Cia lantokiaren eraiketa, fundazioa eta funtzionamendua eman dira.

Burdinolen krisialdi larria

Burdinolek egur-ikatza erabiltzen zuten, geroz eta urriago geratzen ari zena. Labe-garaietan, ordea, harrikatzak erresultatu hobeak eta errentagarriagoak ematen zituen, nahiz eta atzerritik ekarri behar izan, neurri handi batean. Izan ere, 1858-1860 urteetan, harrikatza Britainia Handiak ustiatu, ekoiztu eta banatzen zuen gurera, ahalmen beldurgarria zuelako. Mundu mailan 130 milioi tona sortzen bazen, Espainiak 03 tona bakarrik eta 80 milioi Britainia Handiak sortuak ziratekeen (Stanley, 2000, 279-280).

Domingo Goitia izan zen Iurre, Lazkaoko jaunaren burdinolako azken burdinlaria eta jabeari ausarki proposamen berria egin ziona, 1859an, Arteaga jaunak enkantean jarri zuenean, hauxe proposatu baitzion.

Villaf" 2 de Dicbre. de 1859.

Muy Seæor mio: visto que el remate del arriendo de la Ferreria de Yurre que se Æ celebrado y no ha tenido efecto; y en atencin Æ que las fabricas modernas del hierro por el Sistema de ornos altos ademas de la gran economia de carbon han conseguido imponer la calidad de hierro; razon por que no podemos sostener la competencia con ellas por el sistema antiguo o forja Catalana me atrevo Æ hacer las propuestas siguientes por si el Exmo Seæor Marques de Valmediano se digna aceptarlas.

1" Pagare por renta de la Ferreria 6200 reales Vellon anuales.

2" Pagare por la Leæa de Carbon 6 ‰ reales carga.



Beasain hirigunea, 1912



B Zentrala

3“ Pagare por el ciento de duelas harineas 15 reales Vellon.

4“ Pagare por el ciento de las escabechereas segœn costumbre una 4“ parte menos.

5“ Quedara Æ mi disposicion el trabajar no en la Ferreria utilizar el carbon del modo que mejor me parezca obligandome siempre Æ abonar la renta de la Ferreria; sea que trabaje no en ella en atencion como dijo arriba Æ que quizas no me tendra cuenta trabajar en ella por no poder sostener la competencia con las fabricas modernas, y podre utilizat mejor el carbon de otro modo. En todo lo demas me atengo Æ las Condiciones que se han leido en el acto del remate. Es cuanto le ofrece Æ su att. S.S.Q.S.M.B. Domingo de Goitia (AHAO PT, 3595, 167-172)

Proposamena lehiakortasun ezinean oinarritzen zen: burdinoletan egur-ikatza erabiltzen zen, harrikatzarekin erkatuz oso garestia izan eta geroz eta urrutiagotik ekarri behar zelako, burdinaren kostuak areagotu egiten zituen; gainera, ohiko forjaketa zaharkitua gelditu zen. Gipuzkoako burdinolen 1860-1881 urteetako egoera adierazten digu ondorengo aipu honek.

La industria tradicional continu su marcha decadente hasta desaparecer totalmente en este periodo. Si en 1860 todava funcionaban 31 ferreras, para 1874 quedaban slo 9 y ninguna ya en 1881 (Valverde, 1984, 143).

1.3.2. Beasaingo San Martin burdina-fabrikaren fundatzaileen datu biografiakoak eta lantokiaren historia

Goierrin burdinolak gain-behera zihoazen, 1860 aldera, krisialdi larriaren berri eman zion Iurreko maizterrak jabeari, Lazkaoko jaunari. Hartan ere aitzindari izan zen Domingo Goitia, agian krisia gurera berandu iritsi zelako.

Industria iraultza Ingalaterran hasi eta XIX. mendean hedatu zen Europara, beranduago Euskal Herrira eta Goierrira, hemen lehen urratsak Bilbo inguruan, Nerbioi ibaiaren ezker-aldean eman ziren, bertan baitzeuden burdinaren meategirik handienak. Azti ibili ziren Martin Usabiaga, Domingo Goitia Sarriegi eta Frantzisko Arana hiru goierritarrak.

Martin Usabiaga eta Josefa Mikaela Lasa Elosta, senar-emazteak, biak ordiziarrak, 1841ean ezkondu, 5 seme-alaba izan zituzten. Martin, 1856 arte, Igartzako burdingintzan maizter aritu eta, 1864an, Ordizian hil

zen. Seme-alaba adin txikikoak zeudenez, J. Mikaelaren tutoretzak 1884ra arte iraun zuen.

Domingo Goitia Sarriegi, 1817 aldera, Ordizian jaio eta Joakina Ostolaza Usabiagarekin, 1843an, Olaberrian ezkondu zen eta Juana Maria, Maria Madalena eta Frantzisko C. seme-alabak izan eta Maria Madalena Jose Brunet Berminghan merkatariarekin ezkondu zen. Ordizian likore-salmentan Jose Antonio anaiarekin ibili ondoren, 1860an, Jerez de la Frontera, negozio familiar bat eramatera joan zen, Frantzisko Goitia Oæatibia osaba hil zitzaiolako. Jose Domingo Goitia Oæatibia, Amasako erretorearekin Jerezen likore fabrika, **Goitia y Cia** izeneko bat arautu zuten. Bertako kapitala 35 milioi errealekoa zen. Osaba zen kapitalaren jabea eta lana Domingok egingo zuen, irabazien bi herenak osabak eta bestea ilobak jasoz. Domingo, 1860-1876 urteetan, Andaluzian bizi ondoren, 1880an, Beasainen hil zen, baina, Ordizian ehortzi, han hilerri berri bat egitekotan zebilela. Aita bizi zela ere, semeak ardurak izan zituen lantokian eta batez ere hil ondoren, bera bilakatu zen jaun eta jabe. Beste azpiatal batean luze eta zabal hitz egingo da Frantzisko Goitiari buruz.

Jose Frantzisko Arana Etxeberria, 1820an, Beasainen jaio eta Astigarretako Maria Mikaela Inazia Arregi Sarriegirekin ezkondu zen, 1842an. Jose Martin, Manuel Maria, Jose Antonio, Juana Maria, Fernando eta Petra sei seme-alaba izan zituzten, 1846-1861 urteetan jaioak. Emazteak ez ezik, senarrak ere ondasunak bazituen: Burugorrienea, Erauskin Ferminanea, Burugorrienea-txiki edo Andaluzenea eta kale nagusian Aranberri-azpikoa, bi azken haiek berak eraiki zituen. Jose Frantzisko izan zen lantokiko habe nagusia. Nortasun handiko gizona, baserritarra eta Tolosa-Ormaiztegi dilijentziekiko ardurarekin batera, beste ezaugarri batzuen jabe ageri zen:

1847an, San Martin basilikako berreraikitzeko obrak bereganatu zituen.

1848, 1854-1858, 1860, 1863, 1869-1870 eta 1878 urteetan Beasaingo alkate-zinegotzi izan zen.

Zuhaitz-garraiatzaile, Goierriko tratularien artean itzal handikoa eta herrian arazo larrietan kon antzako gizona.



Barrendain eta tren-geltoki aurrean diligentzia, 1914

Eraikuntza berrien egile: alde batetik, lehen esanak, Burugorrienea-txiki eta Aranberri-azpikoa eta, bestaldetik, Madril-Irun errepidea konpondu eta Beasain-Senpere errepidea, Zaldizurreta eta Lazkaoko zubiak barne.

San Martin lantegiko, 1866-1883 urteetako gerente edo burua eta Tobian, Errioxan hil zen, Bigarren Karlistadan kanpoan bizi ondoren (Aranburu, 2006b, 197-198).

Beasainen, 1860 inguruan, elkartu zirenen proiektu eta asmoek oinarri sendoak zituzten, erro historikoak, eskarmentu eta esperientzia profesionalak, ahaide nagusi eta familia anitzetako ondasunak, ideia modernoen distira, ogibidezko bi burdinolari eta tratulari, agintari ohia, etxegile bat elkartu baitziren, alde batetik, Lazkaoko jaunaren basoetako egur ikatza eta, beste batetik, Ingalaterrako harri ikatza erabiltzeko asmotan baitzebiltzan, eta gainera, eraikuntza berriaren orubeetarako Aranaren Burugorrieneamkatu zuten, hain zuzen, trenbide berri baten alboan, azken puntako garraiobide baten magalean. Burdingintza tradizionalen krisi aldia sakontzean, industri iraultzaren berri jakin eta garraio moderno eta harrikatzaren beharraz jabetu zen hirukotea. Berehala egur ikatza lortzeko hitzarmenak egin eta kapitalaren bilaketari ekin zioten.

Domingo Goitiaren Iurre burdinolaren hitzarmen berria, 1860an

Hitzarmen hark aparteko iruzkin bat merezi du, Lazkaoko jaunen aspaldiko burdinola eta Goierriko labegarai berriak pertsona batengan, **GOITIA** izenekoan elkartu baitziren, izena bera ere Goitia y Cia hartuz. Manuel Egoskozabal Lazkaoko jaunaren administratzaileak, 1859ko azaroaren 18an, Iurre burdinola enkantean jarri zuen. Inor ez zen ausartu hartzera. Orduan, Domingo Goitiak arazoa planteatu zion burdinolaren jabeari, lehen transkribatu denez. Valmedianoko markesak, abenduaren 6an, Madrildik administratzailearen eskuetan utzi zuen Goitiarekin errentamendu berria gauzatzea, haren proposamen berria onartuz. Hitzarmena, Ordizian, 1860ko ekainaren 12an, Martin Usabiaga eta Jose Antonio Goitia Domingoren anaiak sinatu zuten, Martinek Jerezen bizi zen bazkidearen botereak adierazi ondoren. Baldintza hauek onartu zituzten:

San Juanetan hasi eta sei urterako izango zen.

Urtean 6.200 errealeko errentan

Agauntzan urtean gutxienez 5.000 gurdika ikatz egingo ziren eta bakoitza 65 err. ordainduko zuten.

Iurreko burdinola erabili edo ez Goitiaren eskuetan utzi zen.

Basoaren ustiapena arauturik eta errota burdinolaren menpean zegokeen.

1.3.3. "Goitia y Cia" edo San Martin burdina-fabrikaren lehen urratsak

Domingo Goitia, Martin Usabiaga eta Jose Frantzisko Arana hiru bazkideek, 1856 edo 1858an, fabrika berria eraikitzeko asmoak zituztela ageri da aztertu diren urratsetan. Martin Usabiagak Igartzako burdinola utzi eta neurri batean Aranaren koinatuaren eskuetan utzi zuen. Goitia eta Aranaren haritz erosketa da beste urrats esanguratsua. Jose Frantzisko Aranari, 1858ko uztailaren 11n, Manuel Egoskozabal Lazkaoko jaunaren administrariak Lizarrustin, Amilztondo errekan, 300 edo 400 haritz saldu zizkion. Zuhaitzak San Martin egunerako Ataungo hiru itzainek garraiatuko zizkioten Beasainera (GAO PT 3549, 529). Egur ikatza pilatzeko eta lantegi berrirako maileguak lortzeko hitzarmen goiztiarrak dira beste froga batzuk.

Ikatz hitzarmen goiztiarrak

Hitzarmenak batzuetan Igartzako bi azken administrariek batera eta beste anitzetan banaka egin zituzten. Prezioak errealetan emanak daude.

Eroslea	Data	Karga	Prezioa	Nongoa	Itzainak	Xehetasunak
Eros. 1	57/03/4			Altsasu	Ataun, Idiazabal eta Olaberria	
Eros. 2	58/05/4	1.000	6.000	Beasain	Ataun	
Eros. 3	58/05/--	2.000		Ataun		
Eros. 2	60/04/29	6.000		Legorreta / Ataun		Baimena
Eros. 2	60/--/--				Ataun	Karga 24
Eros. 2	61/05/1				Ataun	Karga 11
Eros. 2	61/06/9				Ataun	Karga 13 edo 12
Eros. 2	62/06/22			Legorreta	Legorreta	Beizamako ikazkina

Ikatz hitzarmen guztiok errekariaren garrantzia eta enpresa-gizonen kezka adierazten dute. Lantokia funtzionamenduan jarri aurretik kopuru handiak pilatu zituzten beren ikaztegietan. Ataungo herri-sailetako eta Lazkaoko Markeseneko ikatza lortzen saiatu ziren batez ere. Erregaiaren arazoa larria izan bazen burdinoletan, areagotu egin zen labe-garaietan. Burdina labe-garaietan urtzeko egur-ikatza eta harrikatza nahasian erabili zen lantegi berrian. Ahalegin ikaragarriak egin zituzten egur-ikatza lortzeko, Lizarrustin Agauntza edo Markesenean, Ataungo beste zenbait eremutan, Altsasuko basoetan, Beizama, Azkoitia, Nafarroako Ultzama, Ziordia, Olazti eta Logroæoraino helduz. Bestalde, harrikatzarekin ezin izan zuen lehiatu egur-ikatzak eta, azkenik, kanpoko ikatzaren erabilpena nagusitu zen, askoz ere errentagarriagoa baitzen (Gomez, 1982, 155-164)

Lantegi berriko maileguak

Hartzailea	Emailea	Errealak	%	Iraupena	Data
J. F. Arana	Juana M. Iurrita	38.000			1859/--/--
J. F. Arana	Juan Intsausti	3.300	4	6 urte	1860/09/4
J. F. Arana	Matias Iztueta	20.000		6 urte	1860/09/7
J. F. Arana	Jose Gonzalez	40.000	5	6 urte	1860/11/5
J. F. Arana		12.000	5		1860/04/7
J. F. Arana	Florentzio Argaia	40.867	5		1861/04/4
D. Goitia	Osaba apaiza	1.079.240	4		1866/--/--
Usabiaga/Arana	Jose F. Urteaga	24.200	5		1862/01/24
Usabiaga/Arana	Jose B. Gabilondo	22.000	5		1862/03/28
Usabiaga/Arana	Frantzisko A. Zabalo	35.200			1862/05/5
Batura		1.314.807			

Beasaingo labe-garaien eraikuntza eta funtzionamendua

Labe-garai haiek hiru izenez ezagutzen dira: Goitia y Cia, San Martin burdina-fabrika eta Urbieta burdina-fabrika, noski, bi lehenak askoz ere gehiago erabiliak hirugarrena baino.

Lantokiaren oinarrizko zazpi data: 1862. urtea, lantokia eraiki eta funtzionamenduan jarri zuten; 1866. urtea, enpresaren fundazioa, sei urterako estatutuen onarpena, inbentarioa, eta Jose Frantzisko Arana buru bakartzat izendatu zuten; 1872. urtea, beste sei urterako estatutuen onarpena, enpresa-buruari bi ordezko, Joan Martin Arana eta Jose Brunet Berminghan gehitu zizkioten; 1876. urtea, Bigarren Karlistada ondoren, Jose Bruneten ordez Frantzisko Goitia ipini zuten karguan eta gerra ondorengo indarberritze bat eman zitzaion enpresari; 1881-1884 urteak, aranatarrak beren kapitala jaso zuten; 1885. urtea, lantokiaren berrantolaketa eta, 1888. urtea, lehen kate-begiaren amaiera.

Lantokiaren kokapena eta erositako orubeak

Lantokia Burugorrienea baserriko alorretan kokatu zen, nahiz eta Goitia eta Usabiaga bi ordiziarrek herrian bertan lantokia egitea pentsatu eta saiatu (Etxegaray, 256), gainera, Txintxurretako soroa, 70 postura 34-36 karratuko area erosi zuten. Ubietan, hamar oin altura zituen presa bat eraiki ondoren, jadanik, 1862an, martxan zegoen lantegi berria. Ondorengo urteetan alor gehiago erosten joan ziren: 1861ean, Ezkia-basoa, 28 postura; 1862an, M. Usabiagaren soroa 65 postura eta soro-belazea 122 posturakoa; 1867an, Burugorrienea-txikia; 1877an, Laskibar-txikiaren soroa eta, 1880an, Norteko Trenbideari 16 area.

Bazkideen kapitalaren banaketa

Urtea	Bazkidea	Kopurua	Portzentaia	Kapital osoa
1866	Domingo Goitia	3.138.900	%78	
	Jose Frantzisko Arana	391.255	%9	4.046.000
	Usabiagaren ondorengoak	516.215	%13	
1872	Domingo Goitia	4.889.578	%78	
	Jose Frantzisko Arana	748.473	%12	6.303.000
	Usabiagaren ondorengoak	665.108	%10	
1876	Domingo Goitia	6.108.840	%78	
	Jose Frantzisko Arana	935.124	%12	8.886.000
	Usabiagaren ondorengoak	830.969	%10	
1885	Goitiaren ondorengoak	1.111.349 pta	%88	
	Usabiagaren ondorengoak	151.548 pta	%12	1.262.000 pta



Santa Maria parrokia, 1914

Kapitalaren hazkundea etengabea izan zen Bigarren Karlistada barne, enpresak berez sortutako etekinei zegokiena alegia. Bakar-bakarrik, 1880ko hamarkadan, hiru fundatzaileak hil eta aranatarrek beren kapitala eta ondasunak jaso ondoren, enpresaren ondarea jaitsi zen neurriz kanpo, hau da, aranatarrei zegokiena kendu eta gehiago, industriaren beheraka nabarmena gertatu baitzen.

Beasaingo "Goitia y Cia" lantegiko langileak urtez urte, kontsumitutako mea eta ekoizpen bilakaera tonatan

Urtea	Langileak	Mea	Forjatua	Galdatua	Ijeztetakoa	Gozoa	Moldeatua
1862	60		10065		2.342		
1864	120		1.54550				
1865	150	1.568	1.61000				
1866	160		1.80000				
1867	170	5.400		4.200		3.000	
1869		5.400		4.200			
1870	190	5.400	3.00000	4.200			
1871	230	5.400	2.60000	600			
1872	230	5.400	2.60000	800		2.100	
1873	230	8.000	2.11000	4.190			
1874	58	2.000	25000	1.050			
1875	0	0	0	0			
1876	320	4.600	1.60000	800			
1877					7.000		
1878	320	10.342	2.70000	1.740			
1882			2.57000			3.550	
1883	185	2.700	1.74000				
1884							2.700
1885							2.600

Langile kopuruari buruz, lehen urteetan, hots 1862-1874, etengabeko gorakada izan zen, gerratean lantokia itxi, susper aldi labur baten ondoren, gainbehera nabarmena sumatzen da bai langileria eta ekoizpenaren alorrean. Esan daiteke ekoizpenari buruz, alegia gehien ekoiztu zen burdina motari buruz, galdatua gehien ekoiztu zen, ahaztu gabe noski forjatua. (Zurbano, 1994, 20)

Aurrerapen teknikoetan ausartak izan arren, krisialdia

Enpresa-gizonak, eta ausartak gainera, izan ziren. Beren kapitala inbertitu, maileguak bilatu, hartu eta soseguz interesak itzuli zituzten, denborarekin osoki amortizatuz. Salmentak kobratu ezinik zebiltzala, hartarako botereak ematen sarritan agertzen dira. Lantegiaren hedapena etengabea sortarazi zuten, etxe eta delegazio-sarea, Gijon, Sevilla, Jerez, Barcelona, Donostia, Araia, Gasteiz eta abarretan ipini baitzituzten. Beasaingo labe garaiek egur eta harrikatza nahasian erabiltzen zutenez, Gipuzkoako burdinolek ezin zuten lehiatu ekonomia eta ekoizpen aldetik aipatu labeekin.

serÆ muy difcil que (burdinolek) puedan subsistir mÆs tiempo, por muchas razones y principalmenete porque en Østa (San Martin de Urbieta) se gasta 120% de carbn vegetal y 150% de hulla por 100 de hierro dulce; y en aquellas nunca baja de 300% el consumo de combustible vegetal (Ibaæez, *42*).

Gainera jarraian, beste hauxe gehitzen dute: 1870ean, fabrika honek 42.000 kintal burdina produzitu zituen, lurraldean artean, lanean ari ziren 14 burdinolek, guztira, 7.120 kintal produzitu bitartean (Legorburu, 1996). Jose Frantzisko Aranak, 1876az gero, Logroæoko Tobian bizi eta Goitia y Cia lantegiko buru zela, meategiak, errotak, mahastiak eta ikatza egiteko egurra erosi zituen herrialde hartan. Hain zuzen, aranatarren eskuetan geratuko ziren ondasunak, enpresatik kanpo geratu zirenean.

Labe-garaietako burdingintza ezarri zuten eta errekariari zegokionez, egur-ikatza eta harri-ikatza nahasian erabiltzen zuten. Gainera, 1871ko otsailaren 12an, Goitia y Cia lantokian metodo berriak ezarri zituztela garbi ageri da (GAO PT, 3563, 71-74). Burdina lantzeko metodo berriak Ingalaterratik zekartzaten Beasaingo lantegira, hodiak urtzen hasi baitziren.

> ... la mencionada fÆbrica San Martin ha introducido la nueva fabricacin de tubos de hierro por el sistema de colado vertical que se emplea en la nacin inglesa y con este motivo han elevado al Gobierno de S. M. la correspondiente solicitud.

Sistema berriari esker, esaterako, Espainiako urhornikuntzetako hoditeriak egin zituzten: Kordobako Belmez, Zaragoza hiriburu eta Badajozko Meridakoak. *Las verjas que rodean la Castellana y Retiro de Madrid, se fundieron tambiØn en Beasain como se muestra por las placas que llevan las mismas que dicen: GOITIA Y COMPAIA de BEASAIN* (BF, 1952, 4). Errioxako Briones herrian, Haroko Moro Moza izeneko iturrian ere badira gaur egun arkeologia industrialeko piezak (BJ, 2004, 12-15). Halaber, Oria ibaiko presaren igoera lortzeko, 1876-1884 urteetan, eginahalak eta bi egin zituzten, azkenean, presa harlandu solteen bidez 060 m igotzeko baimena eskuratuz.

Goitia y Cia enpresa, 1878-1884 urteetan bederen, Beasaingo udal agintariekin eztabaidan ibili zen. Udalak zerga-politikaren gainean arau berriak ezarri nahi izan zituen, etxe eta lurrari %6ko zerga, baina, industriari %10eko zerga kendu nahi zien. Aipatu lantegikoek zerga kontuan berdintasuna defendatzen zuten. Korrespondentzia luzea dago BUAn.

Bestalde, Ingalaterratik Frantzisko Goitiak latorria lantzeko teknika berria ekarri eta Beasainen funtzionamenduan jarri zuen. Halere, 1880ko hamarkadan,



Esquisabel y compaæa S.R.C., 1928

hiru fundatzaileak hil zirenean, krisialdian erori zen San Martin burdina-fabrika, 1888an, gertatu bide ziren aldaketarik sakonenak. Alde batetik, enpresaren izenean patentaturik zegoen latorrigintza Frantzisko Goitiak bere baitan errentan hartu zuen bost urterako, usabiagatarrei 500 pzta emanez. Halaber, Beasainen latorria lantzeko zerabilten makinaria, hau da, ijezkailu, zilindro, bonba, lurrinontzi eta beste hainbat Sestaora eramatea hitzartu zuten. Usabiagatarrei 50.000 ordaindu zien. Horrela, erdi hutsik geratu zen Beasaingo lantokia eta, 1891n, Josefa M. Lasa Martin Usabiagaren emaztea hil egin zen.

1.4. Norteko Trenbidea Beasainen

1.4.1. Norteko Trenbidearen eraikuntza eta Beasain, 1856-1864

Goiko izenburuan dagoen urtea, 1856a garrantzi tsua izanik, lehenik gaia hobeto kokatzeko, Norteko Trenbidearekiko kontsiderazio labur batzuk aurreratu dira. Aipatu urtean, lehen planoziala burutzerako beste proiektu batzuetan ez zen pentsatzen Beasaindik trenbidea bideratzea. Gaia honi buruz, azken urte hauetan, asko idatzi da eta gure 2006ko liburuan ere luze eta zabal jardun genuen. Halaber ikusi Larrinaga, 2002 eta 2003. Egia da Espainian trenbideen lehen proiektuak eta emakidak 1825-1830ekoak izan zirela, kapital falta eta gerrateen eraginagatik proiektu haiek atzeratu egin ziren. Gaztelako artilea Cadagua arrotik, hots, Balmasedatik portura trenez garraiatzeko lehen trenbide-proiektua 1831koa izan zen. Berriro, 1844an, bigarrengoan Gaztelako aletegia Orduæan zehar Bilbora eramateko beste trenbide-proiektu bat egin zen.

Trenbidearen etorrera, hots, 1858an, Gipuzkoan obrak hasi eta, 1864an, herrialde osoa zeharkatu zuena, ordea, ez zen bere kasa etorri, gure artean eta probintziatik at interes ezberdinak zebiltzan elkarren artean borrokan. Serapio Muxikak, argitaratu gabeko apunte batzuetan hauxe zioen Norteko Trenbideaz.

> De Bilbao interesaban la construccion de un fe. que uniese la capitalidad Monarquia con Europa y los graneros de Castilla con el Oceano, pasando desde Bilbao Æ Irun por la costa... En 1851 se temi que a pesar de haber claricado la Comision investigadora de F.C. esta linea del N. como la 1“que debia ejecutarse, se diera la preferencia Æ la linea de Alicante que el Exmo Sn JosØ de Salamanca estaba Æ punto de recabar y se enderezaron las gestiones de las Pinteresadas en la linea del N. a impedir que se diera la preferencia Æ aquella para que la construccion de la del N. no se retrasara, dando instrucciones al efecto Æ sus representantes en Cortes (GAO, JD SM, 22, 14, 1-2).

Beldurrez jarri ziren lau probintzietako biztanleak Jose Salamancaren asmoen berri jakin zutenean, Espainiako tren-sarearen pertsonaia eragilerik nagusienetako bat baitzen. Lau probintzietako arduradun eta ordezkariak bakoitza bere aldetik gestioak egiten ibili ziren Madrilen. Gipuzkoatik Fermin Lasala aitasemeak ziharduten eginkizun hartan. Araba aldetik, berriz, batzorde bat izendatu eta Madril-Irun bultzatu zen oinarrizko irizpide batzuekin, hau da, Miranda Æ Irun, del Ebro a Bidasoa, pasando por Vitoria, fuese la mÆs corta, facil, econmica, conveniente y la mÆs ventajosa Æ la Nacion y Æ Vitoria. Trenbidearen proiektu ezberdinak aztertu, Bilbokoa albora utzi eta Gasteiz-Altsasu-Irun proiektuaren aldeko apustua egin zuten arabarrek.

Borrokarik latzena anartean hasi gabe zegoen, 1853-1864 urteetan, trenbidearekiko ibilbide ezberdinak planteatu ziren. Dena den, eztabaidaren funtsak euskal herrialdeetako eremuak erruz gainditzen zituen, zera eztabaidatzen baitzen: Paris-Madril elkartuko zuen trenbidea, Baionatik igaroz, Pirinioak nondik zeharkatzea komeni zen, Irundik ala Baigorritik, Aldudetik alegia.

Aldudeko trenbide-proiektuari buruz gehien eta hobekien aztertu duena Karlos Larrinaga da eta berak 2002an idatzitako aipatu liburua ondorio honekin amaitu zuen:

> Por lo tanto, hemos de concluir diciendo que el de Alduides fue un proyecto mÆs dentro de la historia ferroviaria europea que debemos incluirlo en ese panorama marcado por la pugna de los diferentes territorios por no quedar al margen de las nuevas vas de comunicacin terrestres. El hecho, sin embargo, de que tuviera por objetivo la unin de Pamplona con Bayona le dio un signi cado internacional muy diferente del de otros trazados meramente locales. Ah estrib la diferencia principal y la causa del gran revuelo poltico, econmico y social que gener. No se estaba hablando de un ferrocarril solamente navarro, sino de algo mÆs. Se trataba, en verdad, de un camino de hierro transfronterizo y, por consiguiente, sujeto a una serie de previsiones internacionales insoslayables. La lnea Pamplona-Bayona hubiera estado llamada a formar parte de la mÆs amplia Madrid-Pars, con las implicaciones que esto traa con-

sigo. Al menos, as lo vieron con claridad dos de los grupos nancieros mÆs importantes de la Europa de la Øpoca, los PØreire y los Rothschild. Hubiera sido difcil pensar la implicacin de estas familias en un proyecto con aspiraciones estrictamente locales. Alduides, a la postre, supona una alternativa me para el paso de los Pirineos occidentales en la conexin entre Espaæa y Francia. Ni mÆs ni menos. (Larrinaga, 2002, 218)

Bigarren kontsiderazioa hauxe da: kanpoko kapitalak eta giza baliabideek eraiki zuten Norteko Trenbidea, bertan banketxe formalik, teknologia eta ahalbiderik ez zegoelako. Gipuzkoan lehen banketxe modernoa, Banco de San SebastiÆn deitua 1863an, aipatu trenbidearekin batera inauguratu zen.

Espainiako Norteko Trenbidearen Konpainia

PØreire anaiek beren negozioak Espainiara zabaltzeko, 1856an, SGCME erakundea fundatu zuten eta berehala, uztailaren 11n, sortu berria zen enpresari Madril-Irun trenbidea eraikitzea adjudikatu zitzaion dekretu bidez. Horrela, Bordele-Baiona-Hendaia-Madril trenbidearen jabe bakar bilakatu ziren PØreire anaiek. Finantza elkarte berriak, ekainaren 11n, Espainiako gobernuaren lege bidez Madril-Frantziako mugako trenbidea eraikitzeko baimena hartu zuen, eta, urriaren 18an, erakunde berari erret ordenaz eman zitzaion, behin betiko egilespena onartuz.

Norteko Trenbidearen eraikuntzaz hitz egiten hasi baino lehen, antzeko eta izen bertsuko erakunde batez jardun behar da, erakunde hark eraiki baitzituen Espainiako Iparraldeko trenbideak. Compaæa de los Caminos de Hierro del Norte de Espaæa edo Espainiako Norteko burdinbideen Konpainia, 1859an, 200 mila akzioz osatu zen. Akzioen jabetza nagusia honela banatuz:



Herriko plaza zaharra, Etxeberripe, Arantxiki, 1914

Akzioen jabea	akzioak
Sociedad General del CrØdito Moviliario Espaæaol (SGCME)	52.700
Sociedad General del CrØdito Moviliario FrancØs (SGCMF)	29.400
Sociedad General de BØlgica	20.000
Emilio e Isaac PØreire	14.000
Duque de Galliera	14.000
Baron SeilliŁres	14.000
Batura	144.100

Beste 23 akzionistek 8.000 eta 500na akzio hartu zituzten, denen artean 200 mila akzio osatuz. Beraz, SGCME erakundea SGCMF eta Belgikako beste biekin elkartuz, gehiengo nagusia osatzen zuten. Aipatu elkarteen barruan, berriz, PØreire anaiek zeramaten aitzindaritza (Aranburu, 2006b, 44-45)

Tamaina hartako eraikuntza erraldoi bat egiteko giza baliabiderik ez zegoela hemen esatean, zera aitortzen da: kapitala ez-ezik proiektu egileak, obraren arduradun nagusiak, tunel eta zubi tzarrak eraiki zituztenak ia denak kanpokoak izan ziren, bertan gaitasun teknikorik ez zegoelako.

Azken kontsiderazio labur bat komenigarri da hemen ematea, Madril-Irun Trenbidearen kilometroak alegia. Zero km-a Madrilen eta 64050 km-a Bidasoan du Norteko Trenbideak. Bestalde, 54220 km-tan sartzen da Gipuzkoan, beraz, 10030 km egiten ditu gure Herrialdean. Beasainen, 576 km-tan, Lapurretxen sartu eta, 5827 km-tan, Laskibarren Ordiziara iragaten da, Lazkaoko hektometro eta erdi kendu eta 65 km egin ondoren.

Norteko Trenbidearen lehen proiektua, planoak, aurrekontu orokorrak eta Beasain

Madrilen, 1856ko maiatzaren 15ean, Manuel Estibans, Luis Torres eta Enrique Alon ingeniariek lehen proiektua idatzi zuten, Beasaini aparteko garrantzia eman zioten, bi arrazoitan oinarrituz. Alde batetik, Beasainen egoera geografikoa kontutan hartu zuten: Oria, Agauntza eta Amundarain, hots, Zaldibiako ibaiadarraren erdi-gunean zegoen. Nahiz antzeko egoera batean egon, Eztanda ez da aipatzen han. Beste alde batetik, Zegama, Legazpi, Zumarraga eta Gabiriako mendien malkarrak zeharkatu eta trena eskualde zabal eta lauagoan sartuko zen Beasainen, edo bestela esanda, Tolosa-Beasain aldapa txikiko gunea igaro eta Igartzatik gora hasiko zuen desnibelik handiena trenbideak. Otzaurte 538 m-tan eta Igartza 158 m-tan egonik, tre-



Herriko plazako kioskoan kontzertua, 1914

nak 38 km-tan 380 metroko desnibela gainditu beharko zuen. Arrazoi hura zela eta, Gipuzkoan trenbidearen baldintzak, eraikuntza eta inaugurazio egunak desberdinak izan ziren, aipatu burdinola izan zen mugarri geogra koa, zero zutoina, zero puntua, bertan hasi edo bukatu baitzituzten Gipuzkoako plano guztiak ere.

Irun-Beasain trenbideko bi planotan, 1857ko azaroaren 4an, Letourneur trenbideko ingeniarien burua eta Renoust Orgeries ingeniari laguntzaileak aurkeztu eta, hurrengo apirilaren 21 eta 27an onartutakoetan, zero zutoina Igartza ondoan ezarri zuten. Trenbidearen luzera hektometroka adierazi zuten, aldioroko tarte zutoin batez seinalatuz. Horrela, 3. zutoinean trengeltokiaren hasiera ipini eta 400 metroko luzera eman zioten, 8. zutoinean, zehatz-mehatz 840-860 metrotan berriro Oria, hain zuzen Zaldizurreta izeneko zubian eta 1.300-1.340 m-tan Agauntza ibai-adarra zeharkatuko zituen trenbideak. Halaber, 1.030 m-tan Beasain-Senpere errepidea eta 1.820 m-tan Balkasko-Ataun bi errepide berriak ere zeharkatuko zituen.

Gainera, Irun-Madril errepidetik Oria ibaia artean, Beasaingo tren-geltokirako zazpi hektareako zabalgunea proposatu zuten eta 9-18 zutoinen artean, gaurko CAF lantokiaren kokalekuan, trenbidea desbideratu egin zuten Senpere aldera. Lehen zatiko eraikuntzei zegokienez, honako burdinola, errota, etxe eta elizen ikurrak ikusten dira: Igartzako burdinola eta errota, Mariaratzeko Balkaskoko errota, Beasain eta Ordiziko parrokiak, Ordiziako hilerri zaharra eta gaurko tren-geltokian zehar errotako ubidea.

1. Beasaingo eraikuntzak 0 gunetik behera: Igartza jauregia, bere aurrean Belengo ermita duelarik, Igartza errota, Igartza burdinola, Usategi, Dolare, Errementari, Zapatari, Nekola, Zelata-txiki, Zelata-zahar, Barrendain, Tapia, Urbi, Zaldizurreta, bi Ugartemendia, Ezkiabaso, Burugorriæea, Txintxurreta, Laskibartxiki eta Laskibar-aundi.
2. Lazkaoko eraikuntzak: Senpere, Errekalde, Beltran-sagasti, Andramendi, Senper-berri edo Igaldegi.
3. Ordiziako eraikuntzak: Agerre eta Urdaneta.

Gipuzkoako Norteko Trenbideko planoak egin zirenean, plano orokorrak bertan hasi edo amaitzen zirelako, Goierriko azken zatia eraikitzeko egindakoetan agertu zen Igartza Iturraldetxiki edo Lapurretxe bitarteko tartea. Estibans ingeniariak, 1858an, Zumarraga-Beasain aurkeztutako plano topografikoa egin zuen lau ibilbiderekin. Ibilbideak zehaztapen gehiegirik gabekoak dira eta ez dute luzerako neurririk, hots, hektometroko zutoinik. Hiru ibilbide Gabiria herriaren ospeletik trazatu zituen, laugarrenak, ordea, proiektu guztiak hautsi zituen, Ezkio eta Itsaso aldetik trazatu baitzuen, Ormaiztegi ere eguteratik pasa eta Salbatore aldera bideratuz. Ormaiztegiko zubia saihesteko aukera garbiak izan ziren lehena eta laugarrena.

Plano hartan, Josetxo Zaurreren arabera, honako eraikuntzak ageri dira: Iturraldetxiki, Malpara, Tolaretxiki, Salbatore, Iturralde, Itola, Salsamendi, Angio errota, Irigoien, Muxika, Agirrebarrena, Agirregoena, Agirre-erdikoa, Benta (Kontzejua), Ubillotz, Iturrazpe, Antzizar, Loinazko Amaren Ermita, Loinazgarakoa, Loinazazpikao, San Martin Loinaz, Amunabarru, Igartza Jauregia eta Errota, Dolarea, Zearrola eta Usategi. Falta dira garai hartako Errekarteaundi eta Errekartetxiki, bestalde, Salbatoreko Tolaretxiki ondoan bada ezagutzen ez den eraikuntza bat (Planoak erdiko orrialdeetan).

Zumarraga-Beasain planoei zegokienez ere, C. Letourneur-ek, 1858ko otsaila eta apirilean, hiru plano aurkeztu zituen. Otsailaren 5ekoak 12.500 m luzera eta 0015 desnibela zeraman 12.100 m-tan. Ibilbide osoa tunel, lubaki eta zubiz josia zegoen: 9 tunel, 20 bat lubaki handi, 8 zubi eta erreka zokogune franko bete beharrekoak izango ziren, trenbideak etengabe desnibelari eusteko. Tunelek izenik gabe, 1.ak 364 m, 2.ak 146 m, 3.ak 537 m, 4.ak 200 m, 5.ak 166 m, 6.ak 124 m, 7.ak 112 m, 8.ak 125 eta Beasaingo 9.ak 70 m izango zituzten.

Gipuzkoan bi aurrekontu

Egin zituen enpresa kontzesionarioak: Arama-Irun eta Arama-Otzaurtekoa. Proiektuaren egileek aurrez ikusi eta aditzera eman zuten trenbidearen zati hura, hots, Goierrikoa garestia izango zela, Arama-Irun, Beterrikoa baino garestiagoa. Kontuak errealetan daude emanak. Beterriko 55 km 59 milioi eta Goierrikoa 85 milioi kostako zen. Gainera, kontuan izanik Beterriko aurrekontuan ustiaketako materiala, 35 lokomotora eta 625 bagoi, sartuta zeudela, guztira 19 milioi, kenketa eta kalkuluak eginez gero, Goierriko km bakoitza 2 milioi eta gehiago kostako zen, Beterrikoa, aldiz, ez zen milioi batera ere iritsiko. Bi aurrekontuen erkaketa garbiago eta zehatzago adierazteko, hona hemen zenbait datu.

Beterriko eta Goierriko trenbidearen aurrekontuko zenbait datu

	Beterriko datuak		Goierriko datuak	
Kontzeptua	**Kopurua**	**Errealak**	**Kopurua**	**Errealak**
Soroa	5.085 area	1.332.270	1.849 area	379.990
Basoa	193 area	15.440	11.085 area	829.124
Sagastia	2.705 area	432.800		
Baratza	53 area	15.700		
Lurlautze lanak		6.940.542		22.799.301
Murruak		967.460		7.000.720
Tunelak	9	9.724.000	12	22.667.500
Fabrikako obrak eta beste osagarriak		20.642.492		31.688.549


Soro, baratza eta sagasti ugari besterenduko ziren Beterrin, Goierrin, aldiz, gutxi. Dena den, aurrez ikusitako gasturik nabarmenenak Goierrin lurlautze, murru, tunel eta fabrikako obretan egongo ziren.

Trenbidea eraikitzeko beasaindarrek eta ordiziarrek egindako diru bilketak

Gipuzkoan Norteko Trenbidea eraiki zenean, bere inguruan garrantzi handiko data edo urrats batzuk eman ziren: 1858ko urtarrilaren 14an, GFAk Norteko Trenbidea eraikitzeko diru-bilketa hasi eta sei hilabetean 35 milioi err. jaso zituen. Gipuzkoar guztiei Norteko Trenbidearekiko fondoak biltzeko, 1858ko urtarrilaren 4an, lehen deialdi sutsua zuzendu zien Ladislao Zabala diputatu nagusiak eta egun berean, beste txosten baten bidez gipuzkoarrei 25 milioi haiek biltzeko baldintzak adierazi zizkien. Gipuzkoako agintariak azti ibili ziren Norteko Trena Herrialdetik igaro zedin. Horretarako diru-bilketa aurrez prestatzen hasi ziren. Bada Donostiako alkateak eta Merkatal Ganbarako lehendakariak, 1857ko apirilaren 6an, Mandaseko dukeari idatzitako eskutitza, non Kollado, Luzuriaga eta Lasalatarrekin kontatzen zutela aitortzen den. Beasaindarrekin batera atal honetan ordiziarrak ere sartu egin dira, Ordiziako zerrendan Beasaingo trenbide eta historiarekin esanahi handiko pertsonak agertzen direlako.

Beasaingo akzionistak

Data	Taldea	Suskribatzailea	Kargua	Errealak
28/01/58		Ibarrolaburu, Martin Jose		5000
7/02/58	Lasa, Jose M. eta bazkideak			2000
7/02/58	Zunzunegi, Juan J. eta bazkideak			2000
7/02/58		Garin, Anastasia		2000
7/02/58		Arana, Jose Frantzisko		2000
7/02/58		Mugertza, Sebastian		2000
7/02/58		Zunzunegi, Juan Jose nagusia		2000
25/02/58		Lasa, Braulio	Benetziatua	2000
25/02/58		Asurmendi, Antonio Maria	Benetziatua	2000
25/02/58		Bengoetxea, Jose	Erretorea	4000
28/02/58		Igartua, Joakin	Erretorea (Araz)	2000
Batura				27.000



Udaletxe zaharra, kioskoa eta merkatu estalpea, 1914

Ordiziako akzionistak

Data	Taldea	Suskribatzailea	Kargua	Errealak
18/01/58	Udala			20000
20/01/58		Etxabe, Benito Maria		10000
24/01/58		Goitia, Jose Antonio		8000
25/01/58		Goitia, Domingo		10000
26/01/58		Usabiaga, Martin		4000
28/01/58		Aizpuru, Josefa		3000
28/01/58		Aizpuru, Joakin		20000
29/01/58		Egoskozabal, Manuel		4000
29/01/58		Aranburu, Jose Jabier		4000
29/01/58		Agirrezabala, Martzelino		4000
1/02/58		Lasa, Inazio		6000
Batura				93.000

Azpimarragarria da, besteak beste, Ordiziako udalak eta Joakin Aizpuruk emaniko kopuruak, eta Beasainen labe-garaiak eraikiko zituzten hiru enpresariak, hots, Domingo Goitia, Martin Usabiaga eta Jose Frantzisko Arana zerrendetan ageri direla. Igartza eta Lazkaoko bi jauntxoek trenbidean inbertsiorik ez bazuten egin ere, Zunzunegi eta Egoskozabal beren bi administratzaileak zerrendetan ageri dira. Trenbidean ordiziarrek 93 mila eta beasaindarrek 27 mila pzta inbertitu arren, garraiobide berriak abantaila handia-

goak emango zizkion Beasaini, liburu honetan agerian geratuko denez.

Beasaingo alorrak besterentzen, 1858-1863

Trenbidearen benetako eraikuntza lehen aipatutako urteetan hasi bazen ere, bada Madrilen emandako agindu oso interesgarri bat, hain zuzen, 1845eko irailaren 19an aldarrikatua. Badirudi lehen mailako zenbait epaile oztopoak jartzen ari zirela obra publiko batzuk eraikitzerakoan. Oztopoei aurre egiteko hiru arau hauek eman ziren Madrilen:

> 1". Que ningœn camino ni obra pœblica en curso de ejecucion se detenga ni paralice por las oposiciones que bajo cualquiera forma puedan intentar con motivo de los daæos y perjuicios que al ejecutar las mismas obras se ocasionen por la ocupacion de terrenos, excavaciones hechas en los mismos, estraccion, acarreo y depsito de materiales y otras servidumbres a que estan necesariamente sujetas, bajo la debida indemnizacion, la propiedad contiguas a las obras publicas.
>
> 2". Que las indemnizaciones y resarcimientos de daæos y perjuicios ocasionados por la ejecucion de esta clase de obras solo podrÆn solicitarse ante el jefe politico respectivo, el que dispondrÆ que tenga cumplido efecto Æ la mayor brevedad posible, habiendo conformidad entre el reclamante y la parte que deba resarcir el daæo, procurando avenirlos cuando mediare alguna diferencia.
>
> Y 3". Que si por no haber conformidad entre las partes se hiciesen tales asuntos contenciosos, se decidan por el Consejo provincial, segœn se dispone en el parrafo 4" del art. 8" de la ley de 2 de abril œltimo, con inhibicion de cualquiera otras autoridades judiciales o administrativa (LUA, 341/12)

Herrialdeetako herrixketako epaile eta alkateen ahalmenak murriztu eta goi-karguen eskuetara arazoak konpontzeko neurriak izan ziren, beti ere eremu politikoari lehentasuna emanez. Arau haiek eragin nabarmena eta ageriko ondorioak erakarriko zituzten gure artera (Gorosabel, 1967, 148). Trenbidea eraikitzeko alorren besterentzea derrigortu eta ezinbesteko eginkizun bilakatu zuten, aurka ezin egin zitekeen arazoa alegia.

Data ezberdinetan, 1858ko otsailaren 20an, GFAak lurrak besterentzeko zerrendak prestatu zituen. Donostiako Mirakruzetik Tolosaraino eta, martxoaren 13an, Goierriko zenbait alorren besterentzeak daude,



Trenbidetik Beasain, 1914



Kale Nagusia, 1914

besteak beste, Beasainen 74 alor. Beasaingo alorrak besterentzeko eskriturak nagusiki Tolosan Jose Maria Furundarena notarioak burutu zituen. Gainera, Gipuzkoako beste herrietan antzera beasaingoetan ere Alejandro Casimiro Letourneur, Francisco Palacios diputatua, Martin Urreztieta GFAko idazkari tolosarrak parte hartu zuten. Eskritura guztietan bi aldeak ageri dira, alde batetik, SGCME enpresa kontzesionarioaren izenean Letourneur ingeniaria eta GFA aldetik M. Urreztieta, nka edo alorren jabe edo administratzaile aldetik berriz, zerrenda luzea.

Eskriturak oso desberdinak ziren, batzuetan eraikuntza eta alor asko sartu zituzten dokumentu berean, soro, belaze, zuhaizti mota anitz, alor bakoitzeko zuhaitzak, esaterako sagarrondo, gaztainondo eta abar, bazterrak, paretak Alor bakoitzaren area neurtu eta adierazia dago agirietan. Irizpide ezberdinak erabili zituzten alor bakoitzari prezioa asignatzeko orduan eta badirudi soro bera tasatzeko garaian zatitu eta gero zati bakoitzari prezio desberdina ezartzen ziotela. Gainera, bada eskritura guztietan azaltzen zen kontzeptu bat, kalteak edo kopuru osoaren %3a gehitzen zitzaiona. Tasatze orduan eta batez ere kalteen ordaina jasotzerakoan, ordea, desadostasun eta auziak egon ziren.

Jokamolde desberdinak egon ziren. Adibide batzuk dakartzagu hona. Ormaiztegiko Zubi-handia eraikitzeko orduan Sagastiberri baserriko alorrak errentan hartzeko, maizterrekin urteko hitzarmenak egin zituen jabeak. Beste adibide bat emate arren, kontratistak Ezkioko Olazabarren tuneleko hondakinak botatzeko lekua hitzartu zuen nagusi-maizterrekin. Baina, orokorrean bestelako adibideak gehiago izan zirelako ustea da nagusi.

Gabiriako Urbiztegi baserrian eta inguruan gorabehera garrantzitsuak gertatu ziren trenbidea zela eta. Bergaran bizi zen Joakin Irizar Moyari, 1858ko azaroaren 24an, besteak beste, baserriko alorrak besterendu zitzaizkion, diru-kopuru bat emanez. Baserriaren ondoan eraiki zen trenbidea eta indemnizazioaren gainean eztabaidak sortu ziren nagusimaisterraren artean. Frantzisko Mendia eta Lukas Amiano maizterrak kalteak in situ aztertzea eskatu zuten, 1863ko uztailaren 10ean. Hurrengo urtean, azaroaren 9an, alkatearen eskua eztabaida argitzeko eskatu arren, herriko agintariak SGCME enpresarekin arazoa konpontzeko esan zien jabe eta maizterrei. Trenbideko obrak zirela eta, en vista del estado ruinoso del edicio citado (Urbiztegiz ari da) sobre

el desmonte ruinoso del piquete 57 a que hace V. referencia su ocio del 25 del corriente esanez, Zumarragatik Urbiztegi uzteko agindua eman zitzaion maizterrari. Ordena alkatearen bidez bete zen medikoaren lankidetzarekin. Badirudi maizterrak bere lanbidea ez zuela utzi nahi eta indemnizazioarekin ez zegoela ados (GUA, 151/1-E).

Beasaingo Zaldizurreta zubiaren kontura kontratistak auzi bat behintzat jasan zuen. Zubiaren ondoan bazen Mendianea izeneko etxe bat, non Juan Jose Mendia eta Anastasia Garin bizi ziren. Zubia eraikitzekoan etxearen alorrak erabili, mugarria estali eta kalteak eragin arren, 1861eko uztailaren 27an, kaltetuei ez zien ordainik eman. Anastasiak hil berria zuen senarra, Jose Frantzisko Arana Burugorrieneako jabea, berriz, ahaidea izaki, Mendianeko interesak defendatzeko hautatua izan zen. Badirudi bake-gizonak arazoa konpondu zuela (GAO, PT, 3552, 423-424).

Dena dela, trenbideak eragin zituen kalteen gaineko adibiderik garbiena eta esanguratsuena Donemeliaga markesa jabea eta Villabonako Agaraiz baserriko Bernardo Atxaga maizterraren artekoa izan zen. Aipatu maizterrak, trenbidea egin zenean kalteak jasan zituen, baina indemnizaziorik nonbait ez zuen jaso eta auzitara jo zuen. Handik hogei bat urtera, 1880an, nagusi-maizterrak auzitan zebiltzan eta Donostiako bake-gizonak hauxe aitortu zuen:

> En la Øpoca en que se llevaron a cabo las obras del ferrocarril del Norte o sea hacia Noviembre del aæo 1861, fue expropiado el sr. Marques de muchos terrenos, pero la expropiacin solo causa daæo a los inquilinos y no al propietario, porque el sr. Marques, recibi en equivalente metÆlico y el arrendario le priv de los terrenos que formaban parte de la hacienda arrendada (DUA, Donemiliaga fondoa, Kaxa 72, 752).

Beasain udalerrian, 576-58270 km artean, 650 km-tan trenbidea eraikitzeko, Irigoien, Muxika, Iturralde, Agirrebarrena, Antzizar, Salsamendi, Aingeru errota, Iturrizpe, Zaldizarreta, Txintxurreta, Ugartemendiak, Tapia-mayor, Tapia-menor, Zelaeta, Dolarea, Rementeria, Barrendain, Burugorrienea, Laskibar, Laskibar-txiki, Ubillos, Usategia eta Ubi baserri-etxeetako nka eta alorrak besterendu zituen SGCMEk, 1858-1863 urteetan, 809.86677 err. behintzat ordainduz. Horietatik Gudugarretako Muxika, Iturralde baserrietan eta bi Tapia izeneko eraikuntzako nkak besterentzen 66.575 err. erabili zituen aipatu erakundeak. Oro har, besterendutako eremurik nagusiena soroena izan zen, 1.97958 area 106 soro-puska 509.499 err. ordaindu baitzituen SGCMEk. Gainera, 23 gaztainadi 3.489 err. eta 313 gaztainondo 2.012 err. kitatu zituen. Gelditzen ziren 211.865 errealak alegia, belaze, sagasti, bazter, baratza, zuhaitz, otadi, pareta eta kalteen ordainetan eman ziren. Beasaingo alorrak besterentzeko gastuen herena baino gehiago jaso zituen Lazkaoko jaunak. m-ko bataz beste alorrak besterentzea 124 err. ordaindu zen.

Arestian, BJ aldizkarian bi artikulu interesgarri argitaratu dira, trenbideak Gudugarretan hondatu zituen bi eraikuntzen gainean, Muxika baserria eta Aingeru errotaz alegia. Bi horietaz hainbat xehetasun historiko eta argazkiak ikusteko aukera eskaini zaigu (Garca, BJ, 2003, 14-16 eta 2004, 31-34).

Aipamen berezia merezi dute zenbait alor-jabek, haiek jasotako kopuruak handiak izan baitziren. Kanpoan, Madrilen, Baionan, Iruæean, Gasteizen... bizi zirela, ordezkoek bete zuten eginkizuna. Valmedianoko markesa, Lazkaoko Andres Avelimo Arteaga eta Manuel Egoskozabal bere administrari eta ordiziarrak bete zituen alorrak besterentzeko lanak. Zaldizurreta eta Ubi baserrietako alorrengatik 263.532 err., herriko kopuru osoaren herena eta gehiago. Jose Aguilera ere kanpoan, Baionan bizi zela, Juan Jose Zunzunegik bere ordezkaritza bete zuen. Ugartemendi-azpikoa, Zelaeta, Dolare, Rementeria eta Barrendaingo alorrengatik 236.342 err. jaso zituen. Laskibarren jabe zen Torretagleko markesak 49.258 err., Oæatiko kondeak Muxika baserria eta bertako alorrengatik 38.161 err., Ramon Zabala Salazarrek Iturralde etxea eta beronen alorrengatik 33.924 err., Zulaika anaiek Tapia-haundiagatik 26.355 err. eta Villafrankako kondeak Agirrebarrenako alorrengatik 21.386 err. jaso zituzten. Beasainen jasotako kopururik handienak garaiko aristokraziak eraman zituen, lur-jabetzaren aristokraziak alegia.

Jose Frantzisko Arana beasaindarra, Burugorrienearen jabeak, Norteko Trenbideak bere baserriko alorrak besterendu baino lehen, Domingo Goitia eta Martin Usabiagarekin fabrika berri bat eraikitzeari ekin zion bere lurretan, gerora CAFen aitzindari suertatuko zena (Aranburu 2006b, 305-314).

Jabea(k)	Finka(k)	Alorrak	Areak	Errealak
Lazkaoko jauna edo Valmedianoko markesa (Madril)	Urbi edo Ubi	Soroak, gaztainadiak, sagastiak, paretak eta bazterrak	57739	171.72911
	Zaldizurreta		26323	92.70263 Batura 264.43174
Jose Agilera (Baiona)	Ubillos, Dolarea, Zapateria, Usategia, Ugartemendi-azpikoa, Zelaeta, Rementeria eta Barrendain	Soroak, zuhaiztiak, belazeak, bazterrak, txara eta paretak	95419	236.34278
Torretagleko markesa	Laskibar	Etxea, soroak eta sagastia	6210	49.25867
Oæatiko kondea	Muxika (Gudugarreta)	Etxea, soroa, sagastia eta belazea	10123	38.16116
Ramon Zabala Salazar	Iturralde (Gudugarreta)	Etxea, soroak, gaztainadiak, belazea eta mintegia	13165	33.92402
Zulaika anaiak	Tapia-mayor	Etxea		26.35577
Martin Gaytan de Ayala (Madril)	Aingeru edo Angenio errota (Gudugarreta)	Soroak, gaztainadiak eta belazeak	9770	21.88794
Villafrankako kondea	Agirrebarrena (Gudugarreta)	Soroak eta sagastia	9771	21.38642
Jose Joakin Olazabal		Soroak eta belazea	5903	19.15632
Juan G. Garmendia	Iturralde (Gudugarreta)	Etxea, soroa, baratza eta zuhaitzak	3399	17.05243
Argaia sendia (Madril)		Iturrizpeko soroa, belazea eta zuhaiztia	5290	13.05338
Jose Frantzisko Arana	Burugorrienea	Soroak	34.60	12.61296
Diego Arzelus	Irigoien (Gudugarreta)	Soroak, otadiak eta zuhaitzak	5058	12.26229
Manuel Sisto Lasa (Lima)	Laskibar-txiki	Soroak eta paretak	2882	10.59513
Joakin Uriarte (Zumaia)	Txintxurreta	Soroak	2420	8..33599
Vilafuerteseko kondea	Iturralde (Gudugarreta)	Soroak, gaztainadia, sagastia, txara	2945	6.72819
Nikolas Elizalde	Iturralde (Gudugarreta)	Soroak	1811	4.23565
Migel Aranburu	Tapia-menor	Eraikuntza		3.38973
Gabriel Albisu eta Juan A. Izuzkitza	(Gudugarreta)	Urzelai gaztainadia	3991	2.56232
Inazio Olano	(Gudugarreta)	Soroak	764	2.01140
Santos Ora	(Gudugarreta)	Gaztainadia	3631	1.96047
Gillermo Arzelus	(Gudugarreta)	Soroak eta otadiak	841	1.37030

Jabea(k)	Finka(k)	Alorrak	Areak	Errealak
Jose I. Aizpurua	Iturralde (Gudugarreta)	Gaztainadia	2415	1.20243
Juan Inazio Mendia	Iturralde (Gudugarreta)	Soroak	433	1.14450
Jose M. Lazkanotegi	Antzizar	Zuhaiztia, soroa	703	1.02142
Jose Aizpurua		Gaztainadia	1135	53266
Juan Garmendia		Belazea	313	35170
Juan I Gudugarreta		Soroa eta belazea	281	21622
Jose Matias Kanpos	Salsamendi (Gudugarreta)	Gaztainadia	335	18458
Matias Kanpos		Gaztainadia	325	18334

1.4.2. Beasaingo trenbidearen eraikuntza bera eta bere inguruko gertakizunak, 1861-1864

Gipuzkoan Norteko Trenbidearen eraikuntza bera hasi aurretik, proiektuak, planoak, diru-bilketak, alor-besterentzeak eta SGCME erakunde emakiduna edo kontzesionarioa hautatua izan zen. 1858ko martxoaren 20an, Madril-Irun Trenbidearen erret onarpena SGCME erakundeari eman zitzaion Pereire, Ducherc, Osma eta OShearen izenean eta, 1858ko ekainaren 22an, Tolosan goizez, Donostian arratsaldez trenbideko obren inaugurazio-eguna ospatu zen.



Tren-geltoki kalean Mikelete etxea eta Urteaga Fonda, 1914

Norteko Trenbidea eraikitzeak jende multzo handia ukitu zuen Espainia, Gipuzkoa eta atzerrian. Gipuzkoako Norteko Trenbidea eraikitzen eragin zuzena izan zuten erakunde eta pertsonak doaz lehen taulan, bakoitzarekiko izen-deitura, ardura edo eginkizuna, jatorria eta bizilekua gehituz. Zerrenda labur-laburra eta Goierriko trenbidea egiten eragin zuzena izan zutenena bakarrik, beraz Beasain eta inguruarekin erlazionatutakoak ageri dira zerrendan.

Gipuzkoako Norteko Trenbidea eraiki zuten erakunde et arduradunak

Erakundea	Izen-Deiturak	Ardura edo eginkizuna	Jatorria	Egoitza
SGCME	Emilio eta Isaac PØreire Anaiak	Fundatzaile eta akzionistak	Frantzia	Paris
	Alf. Bormarti	Burua		
	Manuel Calderon	N.T.ko kontseiluko lehendakaria	Espainia	Madril
	Mariano Olea	N.t.ko kontseiluko lehendakariordea		
	Joakin J. Osma	Kontseiluko lehendakaria		
	A.C. Letourneur	Ingeniarien burua		Burgos
	Manuel Estibans	Ingeniari proiektista		Gasteiz
	Luis Torres			
	Enrique Alan			
	Emilio Leon	Gipuzkoako ardura		Donostia
	J.M. Brunet	Gipuzkoako ardura	Bertakoa	Donostia
	Arturo R. Orgeries	Tolosa-Otzaurteko ardura	Frantzia	Gasteiz
	Juan Dessans			Ormaiztegi
	Eduardo Saint Ferreol			Zegama
GFA	Ramon Lardizabal	Diputatua, 1858	Bertakoa	Bertakoa
	T. Montzon			
	B. Artzak			
	L. Zabala	Diputatua, 1862		
	Ramon Lizartzaburu	Diputatua, 1863		
	Martin Urreztieta	GFAko idazkaria		
	Fermin Lasala	Mandaseko dukea		
ADITU TEKNIKOAK	Bizente Unanue	Peritu lur-neurtzailea	Bertakoa	
	Frantzisko I. Eizagirre			Orendain
	M. Egoskozabal			Ordizia
	Benito Etxabe			Zaldibia
NOTARIOAK	J. M. Furundarena	Tolosakoa	Bertakoa	Tolosa
	Joakin M. Osinalde	Tolosakoa		
	Migel A. Otaegi	Mutilokoa		Mutiloa



Sentados; *de izquierda á derecha*: D. Luis Uranga, sargento de miqueletes; D. José Guridi, concejal; Don Jacinto Urteaga, regidor síndico; D. Serafín Arana, teniente alcalde; D. José Ignacio Aguirre, concejal. *De pie*: D. Alberto Zunzunegui, secretario del ayuntamiento; D. Carlos García, concejal; D. Prudencio Aramburu, secretario del juzgado; D. Miguel Ayestaran, fiscal municipal; D. Pedro Arana, juez municipal; Don Francisco Amiano, concejal; D. León Aramburu, concejal; D. Manuel Arce, alguacil.

Beasaingo agintariak, 1914



Iturrioz alkatea, 1914



Jose Orueta BBF lantegiko zuzendaria, 1914

SGCME erakundearen izenean, 1858ko irailaren 13an, Burgostik C Letourneur ingeniarien buruak hamasei kontratistak hartutako hogeita bi obren zehaztapenak adierazi zituen, guztien aurrekontuen batura ia 25 milioietara iristen zelarik. Hemen Zumarraga-Tolosa arteko lan eta kontratistak soilik jarri dira (ZUA, D, 6, 1, 11).

Zumarraga-Tolosa arteko obrak hartutako kontratista eta aurrekontuak

Zka.	Kontratista	Obraren deskribapena	Egoera	Errealak
8	BergØs	Eizaga tuneleko lubakia eta beste zenbait obra		1.111.274
9		Zumarraga-Beasain 2 eta 4 tuneletako lubakiak	Obretan	325.000
10	Larroque	Zumarraga-Beasain 24-32 zutoinetako obrak		1.050.000
11	Graset	Beasain geltoki ondoko zeharkako zubia	Egiten	300.000
12	Larroque	Beasain-Tolosa arteko 23 eta 45 zatietan lau zubi eta zenbait obra	Proiektua	1.729.000
13	Maile	Beasain-Tolosa arteko 60 eta 74 zatietan hiru zubi eta zenbait obra	Proiektua	1.850.000
14	Lalande Espagnet	Tolosa-Beasain arteko 142 eta 156 zatiak, Tolosa eta Oria errepide ondoan	Proiektua	2.150.000
15	Contant	Tolosa-Beasain arteko lau tuneletako lubakiak	Egiten	636.000
16	Contant	Tolosa-Beasain arteko lau tunelen sarrerako murruak	Egiten	800.000
17	Pascal	Tolosa-Beasain arteko beste lau tunel	Proiektua	7.513.000

Beasaingo inguruko trenbidea eraiki zuten kontratista, hargin eta kanpoko langileak

Obrak enkantean adjudikatu ondoren, benetan eraikuntza horiek beste kontratista eta hargin batzuk burutu zituzten. Haiek tunel, lubaki eta zubiak eraiki, beraiek harrobi eta laneko tresnak erabili eta, azkenik, errepideak desbideratu eta hainbat obra osagarri egin zituzten.

Izen-Deitura	Nazioa	Egoitza	Urtea(k)	Ogibidea
Estevan BergØs	Frantzia	Zumarraga	1857-1864	Kontratista
Frantzisko Azkarraga	Bertakoa			
Antonio Atxa				
Jose Rodies	Frantzia		1858	
Juan Dessans				

Izen-Deitura	Nazioa	Egoitza	Urtea(k)	Ogibidea
Alexis Grasset	Frantzia	Ezkio	1858-1863	
Isidro Graset				
Alfontso Larroque				
Santiago Larroque		Ormaiztegi		
Pedro Vidal				
Isidro Vidal				
Santiago Monstier	Frantzia		1859	Hargina
Fernando Bruchut		Ordizia	1859	Kontratista
Domingo Rosa	Piamonte	Ormaiztegi		
Juan Dessand	Frantzia			
Jon Grave				
Antonio Soullie				
Juan Bedril				
Juan Baimorin				
Juan Dumas		Itsaso		
Juan M. Aztiz Mendia	Bertakoa	Zumarraga	1860	
Domingo Graset	Frantzia	Beasain	1861	
Jose Rodier		Ordizia		Hargina
Pedro Cantecor		Itsasondo		
Juan Dessans		Ormaiztegi		Kontratista
Domingo Roza	Piamonte			
Juan Bau. Monteberde		Zumarraga		Karegilea
Jose Roche	Frantzia		1862	Kontratista
Federico Chermeux		Ormaiztegi		
Luis Moute				
Romoven Bedril				
Luis Letournieur		Donostia	1863-1864	Lege-Gizona
Francisco Gourz		Ormaiztegi		Kontratista
Pedro Antonio Prioland				
Prudencio Aube				
Antonio Deyean				
Andres Sicard				
Pedro Mathey				
Victor Renson				
Carlos Mitaine				



San Martin Loinaz ikastetxeko ikasleak, 1915

Beasain inguruko harrobiak

Bestalde, trenbidea eraikitzeko, behar-beharrezkoa zen harria, harlandua, trenbideen sostengu-hormak, zubiak, tunelak barrendik harriztatu eta tunel-ahoen paretak egiteko, gainera, harri txikitua trenbide guztia balastro edo harrikozkorrez estaltzeko. Harrobi-izena, haien kokapen ezagun eta jabeak, kontratisten izenak doaz jarraian.

Izena	Jabea	Kokapena	Kontratista
Naparlaza		Segura	Jose Rodier, Pedro Cantecor
Intxausti		Segura	
Goikoetxeazpikoa		Idiazabal	
Aizkoate	Migel Dorronsoro	Ataun	Gavin enpresa
Gurutzebakar		Gabiria	
Arraseta			
Usardi			
Iturrigorri edo Aizurdin		Mutiloa	



Txirrindulari taldea Beasainen, 1916

Beasain udal-eremuko Norteko Trenbidearen eraikuntza

Udal-eremu hartako eraikuntzaren gainean ezer gutxi dago idatzirik, nonbait ez baitzen eragozpen handirik egon. Oztopoek, tunel eta zubi handiek sortari zituzten dokumentuak eta informazio aztarnak utzi. Zaldizurretako zubia eta Beasain-Tolosa arteko zenbait obratan lanean hasiak ziren, 1858ko irailaren 7rako eta Prospero Content kontratistak, abuztuko 14an, Gasteizko Ladislao Velasco eta Jose Maria Villaoz lankideei, SGCME enpresatik, Itsasondo-Tolosa arteko lau tuneletako zortzi sarreretako lubakiak egiteko emango zituen diru-kopuruak jaso eta langileei soldatak ordaintzeko boterea eman zien (GAO PT, 3266, 1011-1013). Halere, bere lankideekin obrak burutzeko hitzarmen-aldaketa, zorrak ordaindu nahi-eza eta auzitan ibili zen kontratista hura.

Beasaingo tren-geltokiaren eraikuntza

Madrilen, 1856an, Norteko Trenbidearen ideia orokorrak aurkeztu zirenean, Beasaini 3. mailako tren-geltokia proposatu zion Batzordeak.

> Siendo Beasain el centro de los valles del Oria, Agaunza y Zaldivia una estacion de 3er orden propone la comision por este punto.

Hasiera-hasieratik, 1858ko proiektu berean ageri da geltokia. Lehen tren-zerbitzua, 1863an, inauguratu zenean ere, Donostia-Beasain ibilbidea egiten hasi zen. Beraz, 1864an, bialki trenbidea inauguratu zenean, jadanik eraikia zegoen. Eraikuntza osoaren berri jakiteko, ordea, 1873. urtera atzera egin behar izan da. Orduan, karlistek erabat kiskali eta triskantza beldurgarriaren berri jaso zenean, honako elementuak osatzen zuten Beasaingo trengeltokia: bidaiarien egonlekua, botikina, tresneria gordetzeko etxetxoak, abiadura geldiko gordailua, bidaiari eta merkantzien bagoiak egoteko errailak, altzariak eta dokumentu anitzek (Ibidem, 3564, 494-507 eta 579-581).

Beasaingo Zaldizurreta zubia

Domingo Graset, 1858ko irailaren 7an, eraikitzen ari omen zen. Kontratista bera izanik ere, benetan zubi-egile eta harginak, ordea, Jose Rodier eta Pedro Cantecor izan ziren. Segurako Naparlaza harrobian harria atera eta landu zuten biek. J. Rodier harginak, 1861eko urtarrilaren 30ean, Idiazabalgo lau itzainekin Zaldizurretara harria garraiatzeko hitzarmena sinatu zuen 33 errealean. SGCMEk 1860ko memorian dioenez, zubi hura aipatu urtearen azkenerako jadanik amaitua zegoen, bazituen bi arku eta bakoitzak 12 m-ko argia. Aipatu zubiaren kontura kontratistak bi auzi behintzat jasan zituen. Lehen esan denez, zubiaren ondoan zegoen Mendianea izeneko etxekoa izan zen. Bigarrena, berriz, aipatu bi harginei, urte bereko azaroaren 1ean, Segurako harrobian 7.000 err. eta zubian sartutako 80 lan-egun zor zizkien Grasetek. Auzitara eramateko botereak eman zizkioten Txintxurreta prokuradoreari (Ibidem, 568).

Bada zubiaren eraikuntzaren gainean informazio gehiago. Zaldizurretako zubiaren hargintza 72.945 err. kostatu omen zen, tasatzaile profesional batek balio hori eman baitzion. Harginek, 1863an, auzi-bidea baztertu eta Adolfo Maille kontratistak obra tasatzea onartu zuten (Ibidem, 3556, 61-169). Urriaren 19an, tasatzea egin zuen. Aurrez 67.883 err. kontratistak ordainduak zizkienez, zera aitortu zuen: bi harginei 5.062 err. zor zitzaiela.

Beasain-Ordizia arteko trenbidearen eraikuntza Bordeleko Juan Dessans kontratistak hitzartu omen zuen, baina, Pankorbo aldean beste obra batzuk zituelako, hara joan zen. Hemengo lanak Piamonteko Domingo Raza bazkideari utzi zizkion (GPAH, 1/4696, 93).

Beasain-Donostia trenbidearen ibilbidea, 1863an, aurrez inauguratu zen, Beasain, Tolosa, Andoain, Hernani eta Donostian tren-geltokiak zirelarik. Beste urte bat atzeratu zen Madril-Paris ibilbidea inauguratzeko aukera, eta trenbidearen normalkuntzak, berriz, urte asko behar izan zituen, gero adieraziko denez.



Luis Urquijo Ussia, CAFeko lehendakaria

1.4.3. Norteko Trenbidearen garapena eta zerbitzuen hobekuntza mantsoa

Norteko Trenbidearen inaugurazioa ospatu arren, urte asko igaro ziren bere garapena eta zerbitzuen taxuzko eskaintza lortzeko. Lehen urteetan, egunean tren zerbitzu bana funtzionatu zuen bi norabideetan. Lehen momentuan, hots, tunelak, zubiak eta beste fabrikako obrak egiterakoan, bi errailetako trenbidea soilik eraiki zen, nahiz eta egunen batean bi norabideetako trenbidea gauzatzeko proiektua kontuan izan. Trenbidearen bikoizketa 1908 arte ez zen gauzatu. Bestalde, 1867an bederen, ibilbide luzeko Tren Expresa igarotzen hasi zen Gipuzkoatik. Hirugarren Gerra Karlista ondoren, Ordizia eta Tolosako azoka egunetan tren zerbitzu berriak ipini ziren. Era berean, 1887an, Paris-Madril-Lisboa lotuko zituen Tren Sudexpresa martxan jarri zen. Trena errazago ibil zedin, 1884an, burdinazko errailak altzairuzkoez aldatu ziren, eta 1929an, berriz, lokomotorak argindarrak betirako zokoratu zituen.

Badira jadanik Norteko Trenbidearen ekoizpenaren gainean argitaratutako datu interesgarri batzuk, hain zuzen, 1860ko hamarkadakoak: Gipuzkoako tren-geltokietan zenbat bidaiarik erabili zuen trena, etiketatu zen merkantzien kopurua eta biek garraiobide berriari eman zioten diru-kopurua, gainera, geltoki bakoitzean egon ziren gastuak ageri dira, Merkantziak tonatan eman dira. Hemen Beasaingoak bakarrik ageri dira, nahiz eta beste herri batzuetakoekin erkatuz (AHF, Madrid, 1940, 30-36).

BEASAIN

Urtea	Bidaiariak	Errealak	Merkantziak	Errealak	Batura	Gastuak
1866-1867	21.554	167.754	4.593	161.290	329.041	72.128
1869	19.863	156.552	5.921	431.736	588.289	71.465
1870	17.439	142.539	6.523	401.507	544.046	

Gipuzkoako bederatzi herrietako tren-geltokietan, 1866-1867 urtetan jasotako diru-kopuruak erkatu dira Altsasu, Gasteiz, Miranda, Burgos eta Valladolidekoekin ondorengo lehen taulan, bereiziz bidaiariek eta merkantziengatik jasotakoa.

Herria	Bidaia-sariak	Merkantziak	Batura
IRUN	2.702.817	4.877.693	7.580.511
MIRANDA	1.493.694	4.283.554	5.787.249
VALLADOLID	2.302.772	2.944.159	5.246.932
BURGOS	1.355.594	1.616.389	2.974.984
DONOSTIA	1.443.710	1.320.296	2.764.006
GASTEIZ	974.129	337.704	2.148.835
ALTSASUA	472.649	1.268.042	1.740.693
ZUMARRAGA	590.421	366.117	956.538
TOLOSA	424.860	396.929	812.789
PASAIA	17.756	545.714	563.481
BEASAIN	167.754	161.290	329.041
RENTERIA	64.520	100.318	164.839
HERNANI	69.093	56.323	125.417
ANDOAIN	78.536	33.368	111.905



Beasaingo futbol taldea, 1918

Bigarren taula honetan, aldiz, lehen aipatutako herrietan, urte ezberdinetan jasotako diru-kopuruak erkatu dira. Oro har, Gipuzkoan eta hemendik kanpo ere, trenbideak izan zuen arrakasta motela ikusten da.

Herria	1866-1867	Batura	1869	Batura	1870	Batura
IRUN		7.580.511		7.001.765		6.050.583
MIRANDA		5.787.249		5.787.249		4.811.508
VALLADOLID		5.246.932		5.2546.932		3.992.905
BURGOS		2.974.984		2.974.984		2.081.549
DONOSTIA		2.764.006		2.586.019		2.513.290
GASTEIZ		2.148.835		2.148.835		1.603.582
ALTSASUA		1.740.693		1.740.693		1.752.248
ZUMARRAGA		956.538		892.028		843.134
TOLOSA		812.789		712.263		688.420
PASAIA		563.481		586.071		549.096
BEASAIN		329.041		588.289		544.046
RENTERIA		164.839		155.836		179.817
HERNANI		125.417		113.690		120.878
ANDOAIN		111.905		111.905		

Dena den, adierazitako ekoizpenaren inguruko datuen arabera nabarmenenak Irungoak suertatu ziren, Bidasoako mugan Madril eta Paris aldekoak batzen baitziren. Gipuzkoako datu orokorrei zegokienez, berriz, Donostiak izan zuen bere garrantzia hasiera-hasieratik. Bestalde, orokorrean, merkantzien garraioak utzi zituen diru etekinik handienak, esaterako, Irun, Miranda, Valladolid, Burgos, Altsasu eta Pasaian. Donostia, Gasteiz, Zumarraga eta Tolosan, ordea, bidaiarien kopuruek merkantzienak gainditu zituzten. Anartean, industria garatzeke zegoelako, nekazari eta merkatal produktuak trenez gehiago garraiatzen ziren, adibidez, artilea eta ardoa. Adierazi diren lau urteetako ekoizpen datuek atzerakada txiki bat izan zutela ikusten da, Altsasu eta Beasainen izan ezik. Bai bidaia-sariak, bai merkantziak trenez garraiatzeko ohitura hartzea asko kostatu zen.

Beasainen, 1898an, egunean sei tren bakarrik igarotzen ziren: *Hace ahora cien aæos, en 1898, la Estacin de Beasain del Ferrocarril del Norte era un activo centro de trasiego de viajeros y mercancas. En ella paraban todos los das al menos seis trenes* (Zurbano, 1998, 50).

1.5. Karlistak eta liberalak Beasainen

Beasain herri liberaltzat ezagutua izan da betidanik. Halere, baditu bere lokarriak karlistekin, hona hemen adibide bat. Albœm Tradicionalista, 1833-1933, Centenario de la Gloriosa Comunin argitalpena, 1933an, Leonardo Zunzunegiren moldiztegian, Beasainen argitaratu zuen Simon Ezquiaga, liburuaren zuzendariak. Albœm bat, argazki eta artikulu laburrez osatua da, artikulu egileak, berriz, Marzelino Oreja, Jaime del Burgo eta besteak beste, Simon Ezquiagak hiru idatzi zituen, gardentasun osoz bere ideologia azalduz: *AL CERRAR... El pensamiento del Tradicionalismo, que es el Espaæolismo, ha hablado por mediacin de sus guras eminentes y autorizadas. Las pÆginas del GRAN ALBUM TRADICIONALISTA estÆn saturadas de amor a las libertades y a las instituciones, que rompen todo sello de esclavitud. Palabras rebeldes, frente a las posturas y mentiras del liberalismo y su estado corruptor. Acciones autØnticas que seæalan nuestro derrotero a seguir.*

Aztertzen ari garen garaian, hiru gerrate eman ziren karlista eta liberalen artean, 1833-1876 urteetan, lehena eta hirugarrena erabakigarriak. Bietan liberalek lortu zituzten beren helburuak, beti karlistak kaltetuak irten zirelarik.

> Es decir, 1839 vendra a ser el primer jaln de una trayectoria que, a pesar de los treinta y siete aæos que la separan de 1876, podra adivinarse ya fÆcilmente desde la misma rma del convenio, constituyendo una especie de narracin en la que ya todo estuviese preescrito de antemano (Fernandez Albaladejo, 1982, 53).

Garai bereko urte esanguratsu batzuk hauek dirateke:

- 1847an, Euskal Herrian Espainiako udaletako erregimena ezarri zen.
- 1856an, Moyano izeneko legearen bidez Espainiako heziketa sistema hedatu zen gurera.
- 1864an, aurrekontuen legean Euskal Herriari trenbidea eraikitzeko zerga salbuespena atxiki zitzaion.
- 1868an, Isabel erreginaren agintaritza amaitu zen.
- 1873-1876 urteetan, Hirugarren Karlistadan berriro liberalak garaile atera eta euskal Foruen heriotza sinatu zen.

Gertakizun haiek, ordea, eraginik izan ote zuten Goierrin, Beasainen? Tomas Zumalakarregi eta Santa Kruz apaizaren bizitza eta zenbait gertakizun aztertu eta liburu sarritan kontatu izan dira, baina, zerbait gehiago idatzi ahal daiteke? Bailaran eta Beasainen ez ahal zen karlista eta liberal sonatu gehiago bizi izan? Karlista eta liberalen inguruan kontatutako gertakizunak askotan pasadizo solteak, eskualde eta herrietako egoera politikoarekin erlazio zuzenik gabeak dira. Idazlan honetan, Goierri eta Beasainen bizi ziren beste karlista eta liberalak batzuk ikertu eta bertako egoera ekonomiko sozialarekin lotzen saiatu gara. Hasieran esan den neurrian, aipatu mendeko fenomeno, gertakizun eta bertako pertsonaien lekuko azterketa arrunt bat gauzatu da. Beasain eta bailarako karlista-liberalen inguruan lehen apunte batzuk hasi eta borroka eskualdera, herrira moldatu da, jakinik oraindik azterketa asko egiteke dagoela.

1.5.1. Goierriko karlista eta liberal sonatu batzuk

Sonatua da Tomas Zumalakarregi, Ormaiztegiko Iriarte etxean jaio zen jeneral karlistaren bizitza, batez ere lehen Karlistadan jokatu zuen papera, bere jaiote-



CAF lantegia, 1920

rrian zabaldu den museoa eta abar. Tomasek, ordea, bazituen beste hiru senide liberal bezala guztiz ezagunak, bi apaiz Goierriko parrokietan ardurak izan, eta Migel Antonio, 1773an jaio eta zuzenbide ikasketak egin zituena. CÆdizko Gorteetan, Gipuzkoako diputatu ordezko gisa, Konstituzioaren prestakizun-lanetan hartu zuen parte, inoiz Gorteetako idazkari eta buru ere izan zelarik, (1812ko Konstituzioaren egileetako bat dugu, beraz). 1815ean, frank-masoitzat salatua eta epaitua izan zen. Fernando VII.aren bi aldi absolutistetan ez zuen politikan parte hartu; bai, ordea, liberalen hiru urteko aldian (1820-1823). Justiziako Auzitegi Goreneko Ministro izendatu zuten. 1824an, Fernando VII.ak bere bigarren manifestua aldarrikatzean, politikatik erretiratu egin zen. Erregea hiltzean, 1834-1836 bitartean Burgosko Errege Entzutegiko errejente izan zen. Lehenengo Karlistadan, gobernu liberalaren aginduz, bere anaia Tomasek gerra utz zezan saiatu zen, baina Migel Antonioren ahaleginak hutsalak izan ziren. Tomas hiltzean, 1836an, Justiziako Ministro hautatu zuten berriro. 1842an Grazia eta Justiziako Ministro. Espainiako Gorteetako kide ere izan zen. Bentura Larrearekin ezkondu zen; ez zuten familiarik izan. 1867an hil zen Madrilen. Liberalen buruzagi izan zen gizaseme goierritar honixe eskaini zion Amundarainek bere Dotrina politikoaren itzulpena. (Idiakez, 1998, 70)

Ormaiztegin jaiotako liberal haiek, mende berean, Beasainen eta inguruetan izan zituzten jarraitzaileak. Berehala agertuko dira izen batzuk.

Frantzisko Goitia liberala eta enpresa-gizona


Frantzisko Goitia Ostolazak lege-ikasketak egin zituen, baina benetan karrera non egin zuen ez da erraza jakiten. Gurasoak, 1860-1875 urteetan, Jerez de la Fronteran bizi izan zirelako, han nonbait hasi eta,

agian, Ingalaterran burutuko zituen bere ikasketak. Ez da aurkitu agiri idatzirik hori frogatzeko, baina, bere pentsaketa eta ingelesekiko zaletasuna, hango informazio politiko, tekniko zehatzak bat bultzatzen dute ideia hori defendatzera.

San Martin Labe Garaietan Frantziskori lehen ardura o ziala eman zioten, 1876an, hau da, Jose Martin Aranarekin batera zuzendari ordeko ipini zituzten. 1880ko hamarkadan, aita 1880an eta Jose Frantzisko Arana lantokiko zuzendaria 1883an hil zirenean, gainera, aldi berean aranatarrek beren kapitala jaso zutenean, GOITIA y C. enpresako buru geratu zen, jaun eta jabe ia bakarra. Gehiengo handiz kapitalaren jabe zen eta bigarren mailako bazkidetzan ama, arreba eta usabiagatarrak zituen.

Bere bizitzan badira beste zenbait arlo gehiegi sakondu gabekoak: 1883an, Ordizian Tximista errota erosi zuen; 1886an, Ordizian F. Goitia, Lukas Egoskozabal eta Anselmo Jauregik bazuten La Amistad izeneko txapel fabrika bat; 1891n, bere lehen idatzi ezaguna argitaratu zuen; 1898an, Madrilen bizi zelarik, Ordiziako Udalaren izenean tren-geltokiaren aldeko kudeaketak gauzatu zituen Norteko Trenbideko Barat zuzendariarekin; 1899an, Ordizian Braulio Alustiza Aranbururi Laskibar-aundi baserriko Etxeazpia 22.000 pezetatan erosi zion La Maquinista Guipuzcoana enpresarentzat. XIX. mendearen hondarrean, Ordizian kaleak elektrifikatu zituzten Egoskozabal Lazkaoko jaunen administrari, Jauregi botikari eta Frantzisko enpresariek. 1900ean, Zerainen hirumeatz-alor elkarren mugakide erosi zituen, Amizabalsakona, Errekarte eta Aizurdineko-aitzondoa.

Beasainen enpresa-gizonek ihesaldiari eman zioten azken Karlistadan. Hain zuzen, 1873ko abenduaren 22an, Goitia y Cia enpresa buruari, karlistek Jose Frantzisko Aranari eskabide zehatzak egin zizkioten, bere lantokia gerrarako prestatzeko alegia: ...construir caæones y proyectiles de Artilleria y todos los efectos de guerra. Eskaerari uko eginez, legezko agintariei babesa eskatu zien notario dokumentu baten bidez: ...asi no tiene por objeto consagrarse a la fabricacin de caæones ni efecto alguno de guerra, sino unicamente de toda clase de hierros para el comercio y la industria (GAO PT, 3564, 751-754). Aranak, 1874ko urtarrilaren 24an, lantokiko ardura ez berak eta ez bere ordezkoek bete ezin zutelako, behin-behinean Anoetako Gaiztarrotarren esku utzi eta Beasaindik ihes egin zuen, bere egoitza Zaragozan eta



CAF lantegiko bagoia, 1920



Lokomotora bat Beasainen, 1922

Logroæon ezarriz. Urte eta erdiko hutsunea egon zen lantokian.

Trenbidea batez ere liberalek bultzatu zutela esatea ez da gauza berria, baieztapen hori guztiz onartua baita. Karlistek Bigarren Karlistadan zenbateraino onartu eta eraso zuten trenbidea eztabaidatua izan da.

Beasaingo tren-geltokia karlistek, Santa Krutz buru zela, erre zutela Antonio Piralek aitortu zuen bere obra nagusian, 1877an argitara (Pirala, 1877, 459-460). Gerora zenbait autorek hark esana errepikatu edota arbuiatu egin nahi izan zuten.

Han eta hemen, Bigarren Karlistadan, trenbideetan lasaitasun-falta sumatzen zen eta, 1873ko ekainaren 14an, justu-justu erreketa baino bi egun lehenago, karlista eta Norteko Trenbidearen izenean Tomas Ibarrola eta Gillermo Estrada hitzarmen baten oinarrizko ideietan ados jarri omen ziren: Miranda-Irun ibilbidea karlistek errespetatuko zuten, edozein tren arakatu zezaketen merkantzien garraioa ikuskatzeko eta Trenbide konpainiak egunero 2.000 pezeta emango zien karlisteiei (Rodriguez Arismendi, 1872, II lib., 1847-1848). Baina, 1873ko martxoaren 14an, Zumarraga-Irun, apirilaren 19an, Gasteiz-Irun eta, apirilaren 20an, Miranda-Irun arteko tren-zerbitzuak moztu ziren.

Santa Krutz gerrillaria Ataunen zebilela jakinik, Beasaingo Iurrita ostatua eta tren-geltokia zaintzen zituzten 50 mikelete Ordiziako gotorlekura babestu ziren, ekainaren 16an. Karlistek Beasaingo tren-geltokia, 21 bagoi eta 152 barrika-ardo besteak beste erre zituzten. Santa Krutz bere 80 bat soldaduekin Atauna erretiratu omen zen gaua han pasatzera. Dena den, arestian Martin Garca beasaindarrak tren-geltokiko pasartearen gainean artikulu interesgarria idatzi du eta guztiok eskura ditugu orain artean errepikatu izan direnak eta idazlearen ideia berriak (Garcia, 2004).

Triskantza hura, 1873ko ekainaren 16an, arratsaldeko seietan gertatu zen. Gertakizun hark berehala bilduarazi zituen tren-geltokian herriko agintariak, alkateordea eta epailea, Norteko Trenbideko mer-

kantzien burua eta, batez ere, merkantzien jabe edo ordezkariak. Eraso bortitza, txikizioa egin ondoren, ia dena kiskali zuten karlistek, agidanez, Santa Krutz buru zutela. Egindako kalteen tasatzea gauzatu zen, ekainaren 18, 20 eta abuztuaren 6an.

1.5.2. Karlistek hondatu eta suntsitutako merkantziekiko datuak

Jadanik maiatzean kalteturik zeuden upel-ardoak eta, ekainaren 16an, karlistek hondatutako merkantziaren artean ez zen bereizketarik egin. Beraz, badirudi hondamendi osoa karlistek gauzatu zutela. Beasaingo tren-geltokian 224 upel edo barrika-ardo bederen bazeuden. Haietatik 20 barrika hondatu ziren. Hona hemen hondatutako zerrenda bat: Madrildik Pasaiara, otsailaren 26an, igorritako 8 zakuak; Madrildik Parisa, egun berean, igorritako beste merkantzia oro; Alfarotik Baionara, martxoaren 5ean, igorritako 26 upel-ardoren erdia; Alfarotik Baionara ere, martxoaren 7an, igorritako 5 upel-ardoren laurdena eta Mirandatik Bordelera zihoazen 8 upel-ardoetatik sei upel hondatu ziren. Gainera, iragarpen-datarik gabeko merkantzia ere hondatu zen: hara nola, Teodoro Etxeberria eta Prudentzio Zubeldiak alez beteta igorritako bagoia Hendaiako Valinder-entzat edota Valladolid-etik bidalitako 45 errail Pasaiara. Beasaingo geltokian Bilboko errailak ere bazeuden e.a.

Beasaingo tren-geltokia, bere eraikuntzak, bidaiarien egonlekua, botikina, tresneria gordetzeko etxetxoak, abiadura txikiko gordailua, altzariak, dokumentu oro, bidaiarien hiru eta merkantzien 14 bagoi txikitu eta kiskali zituzten. Tren-makinaria, trenbideko argi-tresneria, kristalak eta sarrailak xahutu zituzten (GAO PT, 3564, 427-429, 494-507 eta 579-581.) Oro har, Piralak zioena egiaztatu zuen herriko notarioak, noski, xehetasun gehiagorekin. Historiagile liberalak 152 barrika-ardo Parisko Goupillen eskuetan jarri zituenean, informazioa gehiegi puztu egin zuen, denetara 97 baitziren.

Benetan airean geratzen den galdera hauxe da: karlistak trenbidearen aurka ote zeuden ala gerrako sabotaje ekintza bat izan zen? Badirudi azken hipotesi haren susmoak daudela.



CAF lantegiko plantila, 1925



CAF lantegia, 1925

1.5.3. III. Karlistada ondorengo kultura mugimendu berria

Hirugarren Karlistadan euskal Foruak desegin zirela eta gerra hartako bi frenteez, karlista eta liberalez, aritu gara orain artean. Garai bertsuan, agian, gerrako errautsetatik mugimendu sendo berri bat piztu, ugaldu eta zabaldu zen Euskal Herri osora, Iparraldean sortu, muga gainditu eta Hegoaldeko Elizondon, 1879an, lehen aldiz jokatu ziren Lore-Jokoak. Lore-Jokoei izen ezberdin ugari eman zitzaien urteetan zehar, esaterako, Jaiak, Bestak, Euskal Jaiak, Literatur Lehiaketak, Olerki-Sariketak... Fenomeno ez-arautua, aberatsa, herrikoia, herri eta urte bakoitzari egokitu zitzaion. Iparraldean, 1853-1879 urteetan eta urte hura ezkero Hegoaldean aparteko garrantzia hartu zuten. Lore-Jokoen aita Abbadie izan zen, Irlandan jaio, Hendaian bere jauregian bizi eta Urruæan, 1853an, hasera eman zien, zientzialari aberats eta euskaltzale bat labur bilduz (Aranburu, 1993, 75-82). Mugimenduaren hedapenak, berriz, tximistaren habiadura hartu zuen: 1880an Begoæan, Beran, Donostian eta Maulen; 1881ean Donibane Lohitzunen, Irunen eta Donostian; 1882an Saran, Iruæean, Bilbon, Oiartzunen eta Donostian (hiri hartan handik aurrera urtero ospatu zuen, Consisterio de Fuegos Florales izeneko erakunde fundatu baitzuen); 1883an Iruæean, Markinan, Hondarribian eta Donostian; 1884an Saran, Itziarren, Iruæean eta Donostian; 1885ean Saran, Iruæean eta Donostian; 1886an Arantzazun, Durangon, Urnietan eta Donostian; 1887an Donostian eta Azkainen; 1888an Gernikan, Kanbon, Gasteizen eta Donostian; 1889an Donostian eta Donezteben; 1890ean Donostian eta Maulen; 1891n Donostia eta Yurretan; 1892an Donostian eta Donibane Lohitzunen; 1893an Uztaritze eta Azpeitian; 1894an Asparren, Donibane Garazi, Donibane Lohitzune eta Donostian; 1895ean Bera, Ezpeleta eta Gasteizen; 1896an Arrasate, Maule eta Bilbon; 1897an Billaro, Sara, Oiartzun eta Donostian. Zerrenda osoa ematea buka ezina litzateke, halere adierazitako datuak esanguratsuak direlakoan gaude.



Laborategia

Lore-Jokoen deskribapena honela egin genuen bere garaian*Beraz, zer izan ziren Abbadieren hemeretzigarren mendeko Lore-Jokoak?Hemeretzigarren mendearen azken erdian Abbadiek Lapurdin, hain zuzen, Urruæan 1853an hasi eta gerora beste bost herrialdeetara hedatu zen kultur fenomeno konplexuari Lore-Jokoen izena ematen diogu, bere barnean alderdi guzti hauek onartu zituelarik: lehen mailan eta nagusiki euskal literatur lehiaketak, idatziak nahiz ahozkoak, mota askotako pilota-partidak, euskal folklore eta arte saio eta txapelketak, erromeria eta herri bakoitzeko zenbait erakusketa berezi.*

Gipuzkoako mugimendu hura aitzindaria izan zen, XIX. mendearen hondarrean ahoz eta idatziz euskal literaturari abiada eman ziona, euskal idazleak trebatu zituena, hurrengo mendean agerian agertuko zena.

1.6. "Maquinista Guipuzcoana" (MG), 1891-1901

MG eta Frantzisko Goitiaren adierazpenak, 1891

Martin Usabiagaren emaztea, 1891n jadanik hilik, urte berean, Frantzisko Goitiak berak notarioaren aurrean eman zituen azken urte haietako gorabeherak: 1886an, fabrika geldiarazi zuen industriaren beherakada beldurgarriagatik eta bertako latorrigintza Bilbora aldatu zuen makinaria eta guzti, errentagarritasuna zela bide. Han, Sestaon Antonio Ajuria aitaginarrebarekin eta Echeverria hermanos elkartearekin batu eta La Iberia izeneko lantegi berria kokatu zuten. Goitia mila pezetako 658 akzioekin geratu zen (GAO, PT, 3715, 746-752). Industria-gizonak, ordea, 1892ko martxoaren 30eko dokumentu baten arabera, bere ama eta arrebak berari botereak ematean, MG enpresaren

berri eman zuen: una nueva industria para la constitucin de mÆquinas, material movil de ferrocarriles, hierro, acero... (Ibidem, 3716, 391-393). Enpresaren estatutuak, fundazio akta eta San Martin lantegiaren 400.000 pezetako salmenta enpresa berriari egitea onartu ziren. Hiru dokumentuak, 1892ko apirilaren 16an, data berean, egiaztatu zituen notariak (Ibidem, 442-520). Akzionista nagusiak Goitia bi anai-arrebak jarraitu zuten enpresa berrian ere eta beste bi akzionista azaldu ziren, biak markesak, bata Valmedianokoa, bestea, aldiz, Urkixokoa. CAFen trengintza erabat bideratua zegoen MG bigarren katebegiarekin, trenbideetako eraikin mugikorrak egiteari ekin baitzitzaion. Aipatu enpresak, 1892an, plantilan 200 langile bazituen.

1892ko apirilaren 16an, Frantzisko Goitiak lantegia ustiatuko zuen elkarte berri bat eratu zuen, non Donostia eta Gipuzkoako hainbat kapitalistez gain Urkixoko markesak ere esku hartzen baitzuen; La Maquinista Guipuzcoana izeneko enpresa horrek 1.307.000 pezetako elkarte-kapitala zuen. Kopuru horretan sartzen ziren bai lantegiaren eraikuntza eta ondasunak, zeinak Frantzisko Goitiak Elkarte sortu berriari eskaini baitzizkion 1.000 pezetako 400 akzioren truke, eta baita lantegi ondoko lur-sailak ere, 22 akzioren truke (hots, 22.000 pezeta) Braulio Alustiza lurren jabeari erosiak. (Legorburu, 1996, 28).



Beste txalet bat

MG enpresaren sortzaileen akzioak, 1892

Bazkidea	Xehetasuna	Herria	Akzioak
Frantzisko Goitia Ostolaza	Industrialaria	Ordizia	525
Maria Madalena Goitia Ostolaza			125
Urkixoko markesa	Ordezkaria		125
Ramon eta Jose Elorrio	Ordezkaria		40
Valmedianoko markesa	Lukas Egoskozabal ordezkaria		125
Juan M. Agirrebengoa Korta	Lur-jabea	Donostia	100
Jose Matxinbarrena Etxabe anaiak			75
Braulio Alustiza	Lur-jabea		22
Osakar anaiak	Ordezkaria		20
Ramon Matxinbarrena	Merkataria	Donostia	40
Ramon Usabiaga Ostolaza	Botikaria	Donostia	30
Justo Artiz Altzola	Enpresaria	Zumarraga	30
Benito Jamar Domenech	Merkataria	Donostia	25
Fruktuoso Gogortza Gros	Lur-jabea	Donostia	15
Bernardo Atxaga Sasiain		Villabona	5
Migel Atxaga Irazusta	Bidaiaria	Villabona	5



Aroztegi mekanikoa



Gurpilen tailer mekanikoa

MG fabrikaren azken hiru urteak, 1898-1901


MG enpresaren lehen estatutuak sei urterako onartu zirenez, 1898ko otsailaren 28an, Donostian beste batzuk, gainera, kapital hazkundea berretsi ziren (GAO, PT, 3771, 397-415). Enpresako kapitalaren hazkundea egon zen: Urkixoko markesak 128, Maria Goitiak 38, Frantzisko Goitiak 27, Matxinbarrena anaiak 20, Ramon Elorriok 19, Valmedianoko markesak 15, Juan Agirrebengoak 14, Aldamako markesak 11, Ramon Matxinbarrenak 9, eta beste bazkideek 5na akzio beregatu zituzten (Legorburu, 30). Ordiziako notaritzako eskrituraren arabera, 1899ko irailaren 27an, Frantzisko Goitiak MC enpresarentzat Braulio Alustiza Aranbururi Laskibar-aundi baserriko Etxeazpia 22.000 pezetatan erosi zion (GAO, PT, 3783, 965-968).

Berehala, ordea, 1901ean, enpresak krisialdi baten zantzuak hartu zituela esan arren, azpian beste asmo batzuk zerabiltzatela dirudi. Urte bereko argitalpen batean zera adierazi zen: enpresa ondo antolaturik zegoela, trenez mea garraiatzeko bagoiak egitea zen ekoizpenik nagusiena, karteran horretarako eskabide bikana zegoen eta MG enpresako Alberto Tontain ingeniari zuzendariaren ahotik hauxe jaso eta begiz ikusitako informazioa honela amaitu zuen: *Berlgikatik altzairua urtu eta lantzeko makinaria berri baten zain zeuden* (Perez, 1901).

Sestaoko Seæores Ramirez de Arellano y Compaæa enpresaren etengabeko kexei ez zien erantzun eta, 1901eko otsailaren 20an, Frantzisko Goitiari notario bidez kexen salaketa iritsi zitzaion. Arazorik nagusienak, ordea, langileekin zituzten.

MG enpresan, 1901ean, Goierriko lehen greba

XX. mendearen hasierako Goierriko lehen grebak aurrez aurrekari bat izan zuen. Bizkaiko lehen greba orokorra, 1890ean, meatzariek egin zuten laneko baldintzak hobetu eta lan-ordutegia murrizteko. Badirudi Goitia y Cia desegin eta, 1891-1892 urteetan, MG sortu zenean, Goierrin greba antzeko mugimenduren batzuk egon zirela. Ez dago agiri garbiegirik. Beasainen, 1900go martxoaren 13ko legea betetzearren,



Merkantzien bagoia

hots, Erreforma Sozialen Junta Lokala osatu zenean, MG-ko langileen indarra plazaratu zen, herriko langileak biltzen hasi ziren eta aipatu Juntarako beren ordezkoak izendatu zituzten. Hala, uztailaren 10ean, hauek osatu zuten erakunde hura: agintarien aldetik, alkateordea eta bikarioak, patroien aldetik, Jose Martin Arana etxegileak eta, langileen izenean, Juan Blanko eta Agustin Mas MG-ko langileak.

MG tailer ezberdinez osaturik zegoen, galdategi, sutegi, modelatuegi eta doitegiak. Beasainen doitegiko (ajustaje) langileek greba hasi zuten, 1901eko urtarrilaren hogeian. Tailer hark 1.440 m^2eta hiru nabe 40 x 12 m^2koak zituen, argiak eta makinaz ondo hornituak: 17 tornu-mota, fresatu, arrabotatu, zulatu, karraskatu eta leuntzeko makina franko. Halere, norberak bere tresneria lantokira eramateko ohitura zeukan, kale-gorrian utzitako langileei beren tresneria epaitegian jasotzeko mehatxua egin baitzien zuzendaritzak.

Langileak oinarrizko lansariarekin ados zeuden, ez zuten ordutegi eta egutegiaren aldaketarik eskatu. Garai hartan, Bizkaian 12 edota 10 orduko laneguna egiten zuten, asteko sei egunetan. Etenik gabeko lanaldietan eta gauez ere bai. Gauez lan egiteagatik prima baten eskabidea egin zuten MG-koek, agidanez, beste lantegietan ohikoa zena. Grebak otsailaren 6an ere jarraitu egiten zuen. Goierrin ez zegoen sindikaturik, baina, Donostia, Eibar eta Sociedad de Obreros en hierro y demÆs metales izeneko elkarteak diru-bilketak egin eta lagundu egin zieten MG-ko zuzendaritzak kale gorrian eta etxerik gabe utzitako langileei. Badirudi greba aipatu tailerrean hasi, enpresak indar errepresiboak aparoto de fuerza bidali, langile batzuk kalera bota eta mehatxu ugari jasan ondoren, enpresako langile denak grebara joan zirela. Eibarko Adelante aldizkariko lehen aleetatik jaso da informazioa.

1.7. Beasainek XIX. mendean izan zuen bilakaeraren aztarna eta behin-behineko ebaluaketa

Beasainen XIX. mendeko azken hirurogei urteak aztertzen saiatu gara, industria eta komunikabide berrietan oinarrituz. Aldaketa zantzuak nabaritu dira jokabide, pentsakera eta herri ohituretan. Hurrengo mendean guztiz areagotu egingo zirenak ziur asko.

Goierriko biztanleriaren bilakaera herriz herri, 1860-1900 urteetan

Datuak emateko orduan, lau urte hartu dira kontutan, 1860, 1877, 1887 eta 1900. Urte bakoitzean, berriz, bi adierazpide jaso dira: lehenik, kopuru orokorra eta, bigarren une batean, eskualdeko herriei dagozkien ehunekoak. Azken datu hauek argi utziko dute aldaketaren norabidea eta eskualdean, kopuru globala murriztu zenez, herrien tamaina aldatzen ari zela, izan ere, batzuek hazi eta beste batzuk murrizten hasi baitziren(Arruabarrena, 36).

Udalerria	1860		1877		1887		1900	
Altzaga	218	090	206	083	208	087	178	076
Arama	103	042	119	048	123	051	124	053
Astigarreta	320	132	289	117	256	117	225	097
Ataun	2.919	1205	2.819	1141	2.676	1120	2.663	1148
Beasain	1.448	598	2.144	868	2.030	850	1.932	833
Ezkio-Itsaso	1.742	719	1.632	660	1.446	605	1.396	602
Gabiria	1.074	443	993	402	924	386	836	360
Gaintza	493	203	453	183	403	183	390	168
Gudugarreta	91	037	84	034				
Idiazabal	1.694	699	1.581	640	1.528	639	1.423	613
Itsasondo	623	257	575	232	549	229	525	226
Lazkao	1.069	441	1.057	427	1.000	418	947	408
Legazpi	1.320	545	1.303	527	1.310	548	1.246	537
Mutiloa	523	215	568	229	564	236	524	225

Udalerria	1860		1877		1887		1900	
Olaberria	466	192	485	196	456	190	486	209
Ordizia	1.197	494	1.481	599	1.364	571	1.421	612
Ormaiztegi	722	298	618	250	626	262	639	275
Segura	1.531	632	1.540	623	1.556	651	1.278	551
Urretxu	989	408	1.013	410	1.076	450	1.110	478
Zaldibia	1.220	503	1.223	495	1.221	511	1.205	519
Zegama	2.487	1027	2.193	887	2.102	880	2.055	886
Zerain	572	236	586	237	595	249	552	238
Zumarraga	1.393	575	1.736	702	1.867	781	2.034	877
Goierri	24.241		24.698		23.880		23.189	

Goierriko bi herririk populatuenei, Ataun eta Zegamari murriztu egin zitzaien biztanleria, Zumarraga eta Beasaini, aldiz, nabarmenki gehitu, hain zuzen, biak tren-geltoki baten jabe ziren, eta bi haien ondoan zeuden Olaberria, Urretxu eta Ordizian ere biztanleria neurri apalagoan igo egin zen. Beasainek, 1860an, eskualdean ehunekotan 598ko tamaina zuen, 1900ean, 833 izatera igaro zen. Hori lantoki berri eta trenbidearen eragina nabaria izan zen.

Beasain herria eta bertako industria modernoaren bi lehen lantegiak ebaluatzeko orduan, haien kokapen siko eta historikoa arrazoitzeko, alderdi eta ikuspegi bati baino gehiagori begiratu zaio. Zergatik kokatu ziren bi lantegiok, 1860 eta 1892 bi urteetan, Beasainen? Ebaluaketa labur bat egin aurretik, lehenik, galdera horri erantzun zaio. Beasainen egoera geografikoa oso egokia zen sortu zen industria mota hura han kokatzeko. Bere klima atlantikoagatik Oria, Eztanda eta Agauntza ibai-ibaiadarrek ur-emari oparoa zeramaten ia urte osoan. Gainera, lehenagoko burdinola eta errotek hori guztiz frogaturik zuten. Halaber, eskualdean eta Beasainen bertan bazegoen industria tradizional bat, krisialdi larrian zebilena.

Lehen Karlistada amaitu eta, 1841ean, liberalek aduanak Ebrotik itsasora eta Irunera aldatu zituztenean eta Espainiako barne merkatua arantzel politika berriarekin babestu zutenean, sortutako egoera berri hark indartu egin zuen industria modernoaren sorrera. Bestalde, Beasainen bazegoen *Es posible, por consiguiente, hablar de entorno favorable para la inversin empresarial. Exista mano de obra, iniciativa empresarial o determinadas infraestruturas* (Larrinaga, 2004). Larrinagak Gipuzkoa osoa eta batez ere Donostiaren alde zioena Beasaini bete-betean suertatu zitzaion, horixe gertatu baitzen Arana-Goitia-Usabiaga hiru enpresa gizonekin ekimen berrian. Beasainen, 1922an argitaratu zen lehen aldizkarian ondorio hauxe aitortu zen: *Gloria a aquellos varones que se llamaron don Francisco Goitia, D. JosØ Mara Arana, D. Victor Arizmendi. D. Len Arregui y D" Faustina Borne, ya que estos œltimos difundieron la cultura sobre la generacin presente siendo el estmulo del profesorado actual, y aquellos dieron el primer impulso sentando los cimientos de la industria local* (Aguado, 1922).

Goiko aipamenean, Beasaingo kulturaz dioena gehiago izan zen XX. mendekoa eta hori geroago garatuko da. Bestalde, Gipuzkoan neurri eta arlo zabaleko fenomeno historiko batzuk eman ziren: atzerriko kapitalaren etorrera; komunikabide berriek pertsona eta merkantzien garraioa erraztu zuten; nekazal lurrak industrializatzen hasi ziren; eta hirugarren sektoreko kapitala industrian inbertitu zen.

Atzerriko kapitalari zegokionez, sarritan esan da liburu honetan Norteko trenbidea atzerriko kapitalari esker egin zela. GFAk 35 milioi erreal bildu zituen, beasaindarrak 27 mila emanak, beste inbertsio osoa atzerrikoa izan zen. Era berean, Larrinagak (2004) frogatu duenez, XIX. mendean Gipuzkoan ehungintzan inbertitutako kapitalaren erdia frantsesa izan zen, aldiz, paper fabrikatan %9 bakarrik. Autore berak mota ezberdinetako elkarte industrialak kontuan izanik, 18 milioi errealeko inbertsioa egon zela aitortu zigun,

atzerriko inbertsioak apalak izanik. Beasaingo bi lantegietako kapitalak bertakoenak izan ziren.

Komunikabideen fenomenoez errepide I Nazionala asfaltatu zen, Mandubiatik Azpeitia-Salbatore, Beasain-Etxegarate, Malkasko eta Beasain Nafarroa errepideak eraikitzeaz gainera aipatu mendean, Beasaingo tren-geltokian Madril eta Paristik zetozen tren guztiak geratzen ziren. Horretara derrigortutik zeuden trenak, desnibela zela medio bigarren lokomotora erantsi edo kendu behar zitzaien eta. Alde batetik, Gipuzkoa osoan ehungintza, Tolosa aldean paper fabrikak eta Beasainen industria fabrikak egiteko nekazal lurrak erosi ziren, bestalde, Otzaurtetik Irun bitartean trenbidea egiteko nekazal lur andana besterendu zen.

Beasainen trenbidea egiteko 809.355 area besterendu ziren eta aldi berean Burugorrienea, Burugorrienea-txiki eta Laskibar-txiki baserriak eta beste



Fabrikako egoitza-gunea

alor batzuk ere erabili ziren enpresa berria antolatzeko. Kapitala osatzeko orduan, 1866an, 3 milioi Goitia familiak ardoa lantzeko elkarte familiarrak, Aranak 391 mila eta Usabiagak 516 mila erreal jarri zituzten, denak hirugarren sektoreko inbertsioak alegia.

Lan honetan, 1840-1900 urteak kontutan hartu dira. Beasaingo errealitatea aldatu zuten trenbideak eta leku berean eraiki eta bata bestearen ondoren funtzionatu zuten Goitia y Cia-MG bi lantegiek. Hori esateko badira ikerketa egin eta argitaratuak beren neurri apalean. Baina, Beasaingo XIX. mendeko historian oraindik beste gabezi batzuk gehiago daudenez, ezin izan da beste alderdi askoren ebaluaketa osatu. Falta dira aipatu garaiko errealitatearen azterketa eta datuak. Hori oraindik egin gabe dago. Halere gabezia nabarmenagoa da, 1880-1900 urteetako Lore-Jokoen garaian, Beasainen ez zela sortu Jose Manterola, Martzelino Soroa, Pedro Mari Otaæo edo Pello Errotaren antzeko idazle edo bertsolaririk, era berean, ez da ageri haien arrasto eta eraginik ere. Ezagutzen den Beasaingo literatura eta erabili diren liburu guztiak erdaldunak izan ziren. Hurrengo mendera arte itxaron beharko da horrelako kimu berriak ikusteko.

2. XX. mendean Beasain

Lanaren bigarren zati hau, mugarritzat 1936-1940ko gerra zibila harturik, bertan amaitu da. Hemen garai bereko dozena erdi bat fabriken berri laburra eman eta mende haserako Beasaingo ideologia, mugimendu, alderdi, eta sindikatuen sorrera azaldu da. Gerra aurreko bilakaera demografikoa, matrikula industrialaren hazkundea, hirigintza, irakaskuntza laburbilduz amaitu da.

XX. mendean, Beasainen eman ziren lehen ideologia, mugimendu, alderdi eta sindikatuen primiziak azaldu dira aurrenik. XIX. mendean, (Goitia y Cia eta MG) Beasaingo bi enpresa berriak sortu zituzten Arana eta Goitia bi familietako bi ondorengoen biografia apunteak landu dira, Frantzisko Goitia eta Jose Martin Arana, bakoitza bere bidetik biak herrigintzan nabarmendu baitziren, Beasainera enpresa berriak erakarri eta dinamika bat ezarriz, biak herriaren aitzindariak. Hautaketa honek ez ditu beste zenbait arlotako pertsonaien biografiak gutsietsi edo hobesten, baizik eta aukeraketa ikuspegi zehatz batetik egin da, hau da, XX. mende hasierako lantokien fundatzaileen ikuspegitik. Panorama hartan, beste bigarren mailako izarren artean bi hauek nabarmendu ziren: Frantzisko Goitia eta Jose Martin Arana, biak goierritarrak, enpresa-gizonak, adiskideak eta bide ezberdinetatik Beasain herriarekin erlazionatuak.

2.1. Herri aitzindariak

2.1.1. Frantzisko Goitia enpresa-gizona, idazle-ideologoa eta politikoa

Frantzisko Goitia ez zen Beasainen jaio, Olaberrian baizik. Bere lehen ikasketak Goierrin egingo zituen, baina oso gazterik Andaluziara joan zen bizitzera, herritik at gauzatu zituen lege-ikasketak. Inoiz ez zen Beasainen bizitzen jarri, Santurtzin, Ordizian eta Donostian baizik. Halaz guztiz ere, Beasain herriarekin oso loturik egon zen bere eginkizunengatik eta XIX. mendearen amaieran, Goitia y Cia enpresan Jose Martin Aranarekin izandako lankidetzagatik, gainera, biak oso lagunak izan ziren gero ere.

Fantzisko Goitia Beasainen batez ere enpresagizontzat nabarmendu zen, Goitia y Cia edo San Martin Labe Garaiak, MG eta BBF lantegien buru eta akzionista izan zelako. Halaber, San Martin Labe Garaiak enpresan berak Ingalaterratik ekarritako berrikuntza teknikoak txertatu zituen: 1872an, urhornikuntzetako hodiak egiteko sistema eta, 1880ko hamarkadan, latorrigintza edo hojalata egiteko teknika. 1889-1891 urteetan, Beasaingo lantokia hustu, Santurtzin bizitzen jarri eta latorria egiteko tresneria Bizkaira eraman zuen. MG sortu zuen berehala eta lehen aitorpen oziala egin zuen ekimen haren gainean. Bere ama eta koinatua hilik zituen, 1893ko irailaren 9an, usabiagatarren kapitala ordaindurik, enpresan ia akzionista bakar bilakaturik zegoen eta arrebak konantza osoa berari emana zeukan. Beasaingo lantokia husteko arrazoiak adierazi zituen, metalgintzaren krisialdi latza aipatuz, 1886an, Beasaingo lantokia itxi, Sestaora makinaria aldatu, beste batzuekin elkartu eta han La Iberia S.A. enpresa berria sortzeko. 1902an, MG desegin eta SEMC edo BBF sortu zuen, Ordiziako lurretan ere pabiloiak egiteko abaguneaz baliatu zen (BJ, 2006.)

Goitia sendiaren kapitala

Domingo Goitia Sarriegiren osabek Jerez de la Fronteran likore-fabrika bat zeukaten eta osaba-ilobak elkarte berria fundatu zutenean, 35 milioi errealeko kapitalera iristen zen. Osaben laguntzaz, 1866an, San Martin lantegia Goierrin fundatu zenean, Domingok 3 milioi err. eta gehiago ipini zituen. Domingo hil, aranatarrek beren partaidetza jaso eta, 1884an, Goitia sendiaren partaidetza 12 milioi pezetakoa zen; 1892an, 13 milioira eta, 1901ean, 125 milioira igo zen. Gainera, F. Goitiak garai hartan bazituen beste partaidetza gehiago. Enpresa ezberdinetan kapital metaketa handiak egin ziren: MG enpresan, 1892an, F. Goitia, Jose eta Ramon Matxinbarrena, Ramon Usabiaga, Benito Jamar...; Compaæa de Asfaltos de Maeztu enpresan F. Goitia, Matxinbarrena, Usabiaga eta beste batzuk; halaber, La Prudencia meategia F. Goitia, Jamar, Fausto Etxeberria, Usabiaga, Francisco Brunet, Rocaverde markesak eta... osatzen zuten.



Teknikari eta Zuzendaritzako txaletak

Bizkaiako Ekoizleen Liga eta F. Goitia

Arantzel eta merkatuaren babesaren gainean Goitiak artikulu ugari egunkari eta aldizkarietan idatzi zituen. Gainera, baditu arlo hartan bere kabuz argitaratutako liburuak. Bestalde, Goierriko latorrigintzako bere makinaria, 1886an, Sestaora aldatu zuenean, hango ekoizleekin elkartu zen, Bizkaiako Ekoizleen Ligan izena emanez, hots, La Liga Vizcaina de Productores elkarteko bazkide egin zen. *Francisco Goitia desempeæo una relevante funcin en la Liga Vizcaina de Productores, siendo su delegado en Madrid en la Liga Nacional de Productores, sobre la cual tambien ejerce una poderosa inuencia* . M.G. enpresaren lehen erregistroa ere Bizkaian egin zuen. Bilbon, 1893ko abenduaren 3an, aipatu Ligak deiturik, Espainia osoko ekoizle eta elkarte anitzetako ordezkariak elkartu ziren,

merkatuaren arazoak aztertu eta planteatzeko. Hizlarien artean F. Goitiak hitz egin zuen. F. Goitia Sestaon kokatu eta Bizkaiako Ekoizleen Ligako mugimenduan sartu zenean, Euskalerriko industria modernoaren iraultzan murgildu zen bete-betean.

> De 1866 a 1899, aparecen seiscientas treinta y seis sociedades nuevas con un capital global de 422 millones de pesetas. Slo es un comienzo, en 1900 y 1901 se crean doscientas cincuenta y seis sociedades que totalizan un capital de 642 millones.

Lau zutabe edo oinarri ekonomiko zituen ekonomia hark.

> De los 422 millones de pesetas que totalizan las 636 sociedades creadas de 1886 a 1899 las principales ramas absorben capitales en las siguientes proporciones:
>
> Ferrocarriles: 74 millones
> Minas: 945 millones
> Bancos: 30 millones
> Siderurgia: 295 millones (Espasa, 1940).

Espainiako ekonomia antolatzeko orduan, prentsan eta erakundeetan izandako ardurengatik, F. Goitiak paper nagusia jokatu zuen, 1890eko hamarkadan. Bere hitzak izan ziren: Espaæa para los espaæoles, trenbideetako materialaren esportazioa atzerritik ekartzeko abantailak kendu eta barne merkatuaren arantzelak sutsuki defendatu zituen.

> Espaæa para los espaæoles. Es decir, el mercado nacional para siderœrgicos vascos, tejedores catalanes y cerealistas castellanos-andaluces.
>
> Francisco Goitia, empresario vasco, deca que Cataluæa hoy aspira a conquistar Espaæa, aspira a conquistar el mercado nacional. Ellos han abierto la va y Bilbao sigue esa va con un mpetu casi arrollador.

Bere idazlan batzuk

Ordena kronologikoan aurkitu ditugun bere liburu eta artikuluak dira ondoko hauek.

> 1891n, La cuestion de Irlanda y la Vascongada, S.S.
>
> 1892an, El material para ferrocarriles y la industria del pais, Fortanet
>
> 1904an, egunkarietan artikulu batzuk: Donostiako La Voz de Guipuzcoa egunkarian Separatismo y autonomismo; Bilboko Espaæa egunkarian, berriz, Revision arancelaria, Sentido y criterio en que debe inspirarse la revisin arancelaria, Cmo debe ser El Arancel prximo, Sistemas para la aplicacin de derechos arancelarios y Procedimientos para la revisiom arancelaria.
>
> 1905ean, Los tratados de Comercio, Bilbo
>
> 1909an, Tolosa, ayer y hoy Novedades
>
> 1910ean, Autonomia mundial..., Barcelona
>
> 1914an, Para ser feliz e independiente, Barcelona
>
> ???, Campaæa antialcoholica y reforma tributaria (Aranburu, 2006, 18-24.)

Frantzisko Goitiak oparo idatzi zuen Irlanda eta Euskal Herriaz, Trengintzako gure industriaz, Merkatuen tratatuez, Munduko autonomiaz eta, gainera, beste anitz liburu eta artikulu ere baditu. Nortasun politiko-ideologiako nabarmena adierazi eta maila handiko ardura politiko eta publikoetan gailendu zuen bere burua. Foruzale sutsua eta La Liga Autonomista mugimenduko buruetako bat izan zen, kontzertu ekonomikoaren aldekoa izateaz batera, benetako autonomia administratzaile zabala lortu nahi zuen Espainiako lurraldeentzat, liberal zentralisten arerioa, errepublika eta autonomiazalea izan zen. La Voz de Guipuzcoa egunkariko akzionista nagusia ere bai. Karlismoa, apaiz eta jesuitekiko itsukeriak ez zituen gogoko eta ondorioz gogor borrokatu zituen bere politikagintzan. Sabino Arana Goiri, 1903an, hil zenean, zera idatzi zuen: *separatismoa Bizkaian berez desagertuko da eta Gipuzkoan, berriz, ez dauka etorkizunik*. Ligarle kaskarra izan zen, 1904-1918 urteetan, Gipuzkoan ere jeltzaleak astiro-astiro herriz herri azaltzen joan baitziren, Luis Castells historialariak dioenez, gero adieraziko denez, Beasainen barne. (Aranburu, 2006, 18-24.)

2.1.2. Jose Martin Arana Arregi, 1846-1921

Jose Martin Jose Frantzisko eta Astigarretako Maria Mikaela Inaziaren semea, 1846ko martxoaren 9an, Burugorriæ ean jaio zen. Lehen ikasketak jaioterrian eginik, gaztelera, latina eta frantsera hizkuntzak behintzat eta beste zenbait ikaskuntza tekniko egin zituen Arantzazu, Orexa eta Frantziako Anguleman. Baina, ikasketei jarraitu beharrean, aitaren itzalpera inguratu zen.

Anoetako Petra Gaiztarro Ezeizarekin, 1872ko apirilaren 16an, Anoetan ezkondu zen eta Beasaingo lantoki berrian, aitari laguntzen hasi zen, enpresa buruari alegia, aitari lantokiko zuzendaritzan bi ordezko, Jose Martin Arana eta Jose Brunet Berminghan, semea eta suhia, gehitu zizkioten eta.

> En este tiempo don JosØ Francisco era gerente de la fÆbrica, y padre e hijo no slo se distinguieron en la direccin de las labores interiores de la misma sino tambiØn en el manejo del trÆfico exterior, atendiendo a las contratas de las primeras materias y al cuidado del personal que conocan personalmente (Mœgica, B.F., 1922,.2)

Hirugarren Karlistadan, lantegia itxi, Anoetako gaiztarrotarrei lantegiko ardura eman eta Zaragozara joan zen familia osoa. Gerratea amaitutakoan, berriro Beasainera itzuli zen, aita Zaragoza eta Errioxa aldean gelditurik. Jose Frantzisko teorian zuzendari Coitia y Cia lantokian jarraitu arren, Frantzisko Goitia eta Jose Martin Arana, bi fundatzaileen semeek heldu zioten lantegiko burujabetzari. Aranatarrek beren kapitala jaso eta F. Goitiaren eskuetan utzi zuten Beasaingo lantegia. Aita hil zitzaionean, 1883an, Jose Martinek Beasainen zerrategi bat antolatu zuen, basoetako zuhaitzak erosi eta eraikuntzetako materialak prestatzeari ekin zion, zuhaitzak zerratuz bere zerrategian eta harrobiak ustiatuz. Ez zen ekimen harekin bakarrik geratu. Tinta fabrika bat Euskalduna izenarekin antolatu zuen eta handik gutxira, 1912an, suhiaren eskuetan utzi zuen.

> Instal en Beasain una fÆbrica de tintas de escribir, que luego se ampli con la fabricacin de las tintas de imprimir, la cual subsiste todava bajo la inteligente direccin de su hijo poltico don Emilio Hunolt, que ha introducido en ella importantes mejoras, as como continœa tambiØn la de Lizarrusti, dirigda por sus hijos Serafn y Perico, quienes siguiendo las huellas de su padre don Jose Martn, han establecido ademÆs en la villa nueva fÆbrica de objetos de mimbre (Ibidem)

Jose Martin eta Petrak hamabi seme-alaba izan bide zituzten. XIX. mendearen amaieran tinta-fabrika sortu zuen, bere seme Serra, 1878an jaioa, Parisera bidaliz zientzia kimikoak ikas zitzan. Han, Serrak, Emile Hunolt gazte frantziarraren lagun egin eta berau Beasaingo fabrika zuzentzeko kontratatu zuen; handik gutxira, 1903an, frantziarra Jose Martinen alaba Estefaniarekin (*Fani*) ezkondu zen, gerora, orain-dik haren abizena daraman enpresaren jabe bakartzat gelditu (Zu aurre, 1996, 68-70).



Barrendain diligentzien pausa lekua, 1925

Beasainek, 1902an, GFAri ordaindu zizkion zerga-kopuruak eta zerga emaileak ezagunak dira. Haien artean BBF lantegiak, 1902an, 490 pzta ordaindu bazuen, Jose Martin Aranak 615 pzta eman zion Diputazioari, bere egoitza nagusia Beasaingo kale Nagusiko 29 zenbakian zeukalarik.

Beasaingo alkate, 1876-1878 eta 1899-1902, bi txandatan izan zen, herrian sortutako hazkunde demograkoari aurre egiteko etxe-bizitzak eta ur-hornikuntza berriak burutu zituen. Aurrez ikusi zuen herri bateko etorkizuna urarekin loturik zegoela, eta ez zuen beldurrik ur sakonetan eta aurrekontu handietan murgiltzeko, herriko zenbait aurka jarri arren.

> La nueva traida de aguas en estas condiciones, requera una caudal considerable, que por no tener la villa en su jurisdiccin, haba que buscarlo en lejanos manantiales, y la mucha distancia tena que encarecer forzosamente su traida al pueblo. El elevado presupuesto de esta mejora importante, alarm a una buena porcin del vencindario y el proyecto tropez con saæuda oposicin de parte de elementos valiosos de la localidad, pero poniØndose Arana al frente de los que opinaban que era imprescindible tan vital elemento si Beasain haba de prosperar y contando con que pronto la venta del agua a domicilio constituira un fuerte ingreso para las cajas municipales, dio la batalla a los oposicionistas y triunf en la Corporacin Municipal con la mayora de votos de sus paisanos, y ah estÆn repartidas por todas partes las aguas procedentes del manantial de Zazpi-iturrieta, jurisdiccin de Albiztur, distante ocho kilmetros y medio del casco de Beasain, cuya conduccin se hizo el aæo 1909 con un gasto de 142.000 pesetas, que producen anualmente de 22.000 a 25.000 pesetas o sea el 20 por ciento del presupuesto total de la villa (Mugica, B.F., 1922).

Lehen aldi hartan (1876-1878) beste gauza batzuen artean, bi pilotaleku zoragarri eraiki zituen. Bata, pilotan eskuz jokatzeko, Bideluze plazaz hitz egiterakoan azaldu dena; eta bestea, berriz, Errebote, Punta eta Erremontez. Jokatzeko.

Bi pilotaleku horiek egiteko diru asko behar izan zen, 18.000 pezeta inguru, eta bien artean angelu zuzena osatzen zuten; bata, ibaiarekiko perpendikular zegoen, orain Usurbe antzokia dagoen lekuan, eta bestea ibaiaren norabidean...

Haren alkatetzaren lehenengo aldian eraiki zen herriko lehen ur-biltegia eraiki zen, gaur egun Txindoki Institutua dagoen lur-sailetan ezagutu genuena, zegozkion ur-ekartzeak ere egin ez (Zu aurre, 1996, 70).

Lehen Bideluze izena zeraman kaleari, 1916ko martxoaren 18an, *Calle de Don Jose Martin Arana* aldatu zitzaion eta, anartean bizi zeralarik, udaletxean bere bustoa jarri zioten. Pedro Arana Gaiztarro bere semea, 1920-1921 urteetan, herriko alkate zelarik (JD IT, 2964, 2 eta 2965, 2). Jose Martin, 1921eko ekainaren 5ean, kale Nagusiko 36an hil zen, Serapio Muxikaren arabera herriko seme kuttuntzat ezagutua izanik.

2.2. Beasaingo lantegiak, 1901-1940

Hainbat industria lantegi berri sortu ziren Beasainen, XX. mendeko gerra zibila eta 1940 baino lehen. Bakoitzaren informazio dokumentatu zabalena eman da jarraian.

2.2.1. "Sociedad Española de Construcciones Metálicas" (SECM), herrian bertan Beasaingo Bagoi Fabrikatzat ezagutua (BBF), 1901-1917

XX. mendearen lehen bi hamarkadetan, bailara eta Beasain guztiz baldintzatuko zuen efemeride katea eman zen mundu mailan: Urkixo Banketxearen aldaketa, SECM eta CAF enpresen fundazioa eta lehen Mundu Gerra. Urkixo Banketxe izatetik S.A. izatera iragan zen: hiru senideek 1.300 akzio eta 1.940 obligazio eta beste 1.910 akzio inbertitu zituzten elkarte berrian, industria bermatzeko. *En 1883 se constituyo la Sociedad Urquijo y Compaæa con medio milln de pesetas de capital, repartiendo entre Juan Manuel Urquijo y su cuæado Luis Ussa Aldama. En 1904 el marquØs de Aldama decidi dejar a su socio y abrir Aldama y Compaæa en la calle de AlcalÆ. Al aæo siguiente, el fundador de Urquijo y Compaæa incorpor a la sociedad de crØdito familiar a sus tres hijos: Estanislao (Madrid, 1872-Llodio, 1948), Juan Manuel (Llodio, 1879-Madrid, 1956) y Luis (Llodio, 1881-Madrid, 1956) (Diaz, 1998, 152-159).*



Primo de Rivera CAF lantegian, 1927

SECM ELKARTEAREN LEHEN ADMINISTRAZIO KONTSEILUA, 1901/III713	
Ardura	**Izen-deitura eta titulua**
Lehendakaria	Luis Ussa Aldamako markesa
Lehendakariordea	Eduardo Aznar Tutor
Kontseilariak	Luis Acosta Garca
	Fausto Caro Piæar
	Eleuterio Delgado Martn
	Frantzisko Goitia Ostolaza
	Emilio Olaberria
	Jose Orueta PØrez de Nenin
	Anselmo Palacio Garca Pumarino
	Estanislao Urkixo Ussa
	JosØ Velasco Palacios
	Antonio VelÆzquez Duro (Legorburu, 1996, 35).

Urkixo Banketxea Espainia osora hedatu eta hiru senideen artean lurraldeka banatu zuten eremua, Euskal Herrira Luis etorri zen, Bilbo eta Donostian egoitzak ipini zituen. Luis haren eragina ez zen Euskal Herrian soilik geratu, oraindik gutxiago CAF lantegian. *De otra gestin parecida se ocup directamente Luis en el verano de 1918; como vicepresidente del Banco Urquijo se entrevist con un emisario del govierno norteamericano, que haba solicitado un crØdito de setenta y cinco millones de pesetas; gracias a la participacin de otras entidades bancarias el crØdito se ampli a doscientos cincuenta millones* (Diaz, 1998).

BBFren lehen urratsak

Aurrez, 1901eko urtarrilaren 19an, ordea, Ubaldu Brunet Goitia MG enpresako lehendakariak dioenez, bere enpresa likidatu eta Sociedad Espaæola de construcciones metÆlicas edo Beasaingo Bagoi Fabrika sortua zuten bere estatutu eta guzti. Dokumentu hartan Sestaoko aipatu enpresa auzitara eramatea erabaki zen (GAO, PT, 3801, 709-711), MG enpresaren amaieran alderdi kontrajarriak daude. Alde batetik, azken urte haietan, ekoizpen bikainaren jabe zen, hau da, 1898an, kapital hazkundea egin zuten. Bestalde, Isaias Perez-Iscar MG lantokira joan eta Alberto Tontain bertako ingeniariak esanari jarraituz, lan eskaera bikaina zeukaten esku artean: Castro Alen meategietarako 50 bagoi, beste hainbeste Bilbo-Portugaleterako, 70 Madril-Zaragoza-Al Akanterako. Hori guztia Norteko Trenbideko lanak kontuan hartu gabe aitortu zuen aipatu ingeniariak. Gainera, aipatu elkarrizketa ondoren, honako iritzia gehitu zuen:

> Aceptados los modelos de vagones que esta casa ha presentado Æ sus clientes, ha recibido importantes encargos y en no lejana fecha auguramos que Østos se extenderÆn mÆs y mÆs, Æ medida que la casa vaya instalado y haciendo funcionar la nueva maquinaria importada de BØlgica, que la casa tiene en camino, dedicada Æ la fundicin y moldeado del acero (PØrez, 1901, 66-67).

MG lantegiaren amaieran agertu zenez, 1901eko urtarrilean, Beasaingo lantegian greba egin zuten, langile batzuk kalean geratu ziren, baina, Bilbon, urte berean, BBF lantegi berriaren estatutuak onartu zituzten.

Beraz, enpresaren krisialdia baino gehiago zen hazkunderako beste urrats berri batzuk ematen ari zirela, kapital hazkundea, makinak berritzea e.a. Hura zela bide, MG likidatu, suntsitu eta SECM enpresa berria eraiki zuten orube berean eta ingurumarietara hedatu zen. Adolfo Llanos Makazagak SECMren izenean, 1902an, baserri eta haien alorrak erosi zituen:

Data	Baserria eta alorra	Saltzailea	Areak	Pezetak	Informazio-iturria
06/03	Upabia eta alorrak	Aranburu senideak		48.937	PT, 3810, 285-290
06/05	Etxeazpikosoroa	F. Gaztaæaga Bazterrika	8224	17.472	Ibidem, 291-293
06/05	Gurutze eta alorrak	Jose D. Oyarzabal	4268	11.523	Ibidem, 295-297
06/10	Upabialdekosoroa	Federiko Zabala	2330	4.016	Ibidem, 303-305
06/11	Upabia eta alorrak	Garmendia	9655	41.868	Ibidem, 307-310
07/10	Txintxurreta eta alorrak	R. Martiarena Arrillaga	8300	14.940	PT, 3811, 459-462
07/17	Errekalde eta alorrak	Ayestaran Nazabal		20.240	Ibidem, 470-474
07/29	Laskaibar-txikiren alorra	Ayestaran Gabilondo		6.762	Ibidem, 505-508

Horren lekuko dira beste datu hauek ere: 1902an, enpresak garrantzi handiko bi hitzarmen burutu zituen. Uztailaren 2an, Ordiziako Udalaren ur-hornikuntzatik egunean 80 m^3-mur, 15 zentimotan lortu zituen (PT, 3811, 393-398). Gainera, Aldamako markesak, 1902ko azaroaren 28an, Madrilen baimenak eman zizkion BBFko zuzendariari, Zaldibiako Osinberde iturburua erosteko. Bilboko Jose Oruetak Tolosako Migel Ruiz Arkauterekin, abenduaren 9an, gauzatu zuten eskritura Ordiziako Pedro Gaskueren notaritzan. Oruetak 213.000 pezeta ordainduko zizkion epeka, segundoko 320 litro ur eta obrak saltzai-

leak egitekotan: 2.167 metroko ubidea, botanak 273 metroko altuera, baina, makinetxea eta urtegia eraikitzeko lurrak BBFk ordainduko zituen, haiek lortzen saltzaileak lagundurik (Ibidem, 887-901.)

Lantegi berriak Serapio Muxikaren arabera berealdiko arrakasta lortu zuen.

> La primera piedra de este grandioso centro industrial se coloc el 23 de Julio de 1902, y el primer vagn construido en la fÆbrica se expidi el 13 de Marzo de 1905. El vagn que hacia el nœmero mil fuØ expedido el 18 de Agosto de 1907, y el vagn numero dos mil el 28 de Agosto de 1908. Puede construir 1.500 vagones al aæo y muchos coches de viajeros. Para que se vean los progresos realizados por la fÆbrica, anotaremos que el aæo 1906 se construyeron 556 vagones con 690 obreros; en 1907, 650 con 720, y en 1908, 1.120 con 845. En este ultimo aæo se construyeron ademÆs 3.700 ejes montados, y en el da se encuentra en condiciones de una fabricacin normal al mes de 100 Æ 150 vagones y de 400 Æ 500 ejes montados. La fÆbrica estÆ atravesada diagonalmente por la lnea general de Madrid Æ Irun del ferrocarril del Norte y longitudinalmente por la carretera de Villafranca Æ Lazcano. Ambas vas de comunicacin dejan talleres Æ uno y otro lado de la comunicacin con la estacin de Beasain, para la salida de productos y entrada de materiales, se hace por una va paralela Æ la del NORTE, que entra en la fÆbrica y se distribuye por los talleres y almacØn. Mereci la honra de ser visitada por S. M. Don Alfonso XIII el 21 de Septiembre de 1910 (Mugica, 1918.)

BBFk bat-batean lortu zuen herrian eta bertatik kanpora berealdiko oihartzuna eta ospea. Madrilgo aldizkari espezializatu batean, 1909an idatzitako artikulua izan zen frogarik argiena, Rafael Oriol ingeniariak BBF lantegiaz idatzitakoa alegia. Idazlea Beasainera etorri, soseguz eta begiz ikusi, tailer eta bazter guztiak ondo behatu eta ideiak argi azaldu zituen ingeniari idazleak, lantegia eredutzat betirako emanez.

> Dominados ya todos los elementos de fabricacin completa, partiendo de la madera y de los hierros, y normalizada una produccin anual de 1.200 1.500 vagones de cualesquiera clase y capacidad, va ensanchando la Empresa sus horizontes dentro y fuera del mercado nacional, pues ademÆs de los importantes suministros que hace a los ferrocarriles espaæoles, piensa acudir a los concursos internacionales de material mvil ferroviario, como ha hecho recientemente en un concurso para 1.100 vagones, celebrado en la Repœblica Argentina (Oriol, 1909, 109.)

Artikulistak **nabardura zehatzak** utzi zituen, batzuk hemen lehen esanak, esaterako, lehen harria, 1902ko uztailaren 23an, MG enpresa ezabatutako leku berean ipini zuten; handik zazpi urtera trenbiderako 1.200 1.500 bagoi urtean egiten zituen. *El vagn que haca el nœmero 1.000 fuØ expedido el 18 de Agos-*



Altamira baserriko sendia, 1930

to de 1907 y el vagn næmero 2.000 el 28 de Agosto de 1908.Beasain-Ordizia-Lazkaoko eremuetan lantokiak 12 hektareako orubea estaltzen zuen, baina, erositako beste eremu zabalagoetan ganadua larrean zebilen. Langileria, berriz, urtetik urtera ugaltzen ari zen enpresan: 1906an 690, 1907an 720 eta 1908an 845 langilek ziharduen lanean bertan. Bagoiak ez-ezik trenen gurpilak eta elementu mugikor solteak ere egin eta saltzen zituen BBFk. Bertan langileek edateko ura eta suteetan erabiltzeko egitura egokia eraikirik zegoen, su-hiltzaile talde aditu bat eta guzti. Edateko uraren kalitatea bermatzeko, aldiz, esterilizagailu batekin egunean 3.000 litro ur garbitu eta langileei banatzen zitzaizkien 30 litroko garrafoietan.

Langileen lan-arauak

Lan orduak arautuak zeuden (7-12 eta 1330-1630), lantokiko sarrerak kontrolatuak, langile batek bost minutuko malgutasuna zeukan, hura gaindituz gero, hurrengo sarrera ordua 10 eta 15 orduetan izango zuen. Forja eta tailer mekanikoetan gau eta egun lan egiten zuten 10nakako errelebоetan, besteetan goiz eta arratsaldez 930 ordutan. Oialek bazuten beren erremintak eta arropa gordetzeko armairu bana.

Langile maila oso hierarkizatua zegoen, denak maisu baten mende zeuden eta hark, lantokian zeukan garitaren altueragatik, bere menpeko langile guztiak erraz begiztatzen zituen. Tailer bereko maisuen gainetik bertako buru ingeniari bat zen eta bere ardurak bertako lana antolatzea, piezen kostuak ateratzea, maisuak kontrolatzea eta azken batean ardura osoa berea zen. Langileek destajuan lan egiten zuten eta lana saritua zegoen. Bestalde, bazuten gaixotasunerako asegurantza bat, bajak, sendagilearen artak eta botikak ordaintzeko, sendiarena barne.

Bulegoak (A), Zentrala (B), Biltegia (C) eta zortzi tailer-mota: (Dm) Tailerra, (D) Sutegia, (E) Tailer Mekanikoa, (F) Muntaketa, (F) Pintaketa, (G) Aroztegia, (L) Galdategai, (Lm) Modelutegia eta (K) Gurpildegia.

Bulegoak aparte zegoen eraikuntza batean zeuden, 155 bider 66 m²ko area zuten, bertan egiten ziren lan tekniko eta administraritzakoak, adibidez delineaziokoak, planoak eta abar. Bertatik gidatzen zuen Zuzendaritzak BBF osoa. Bai bulego, zentral, gordailu eta tailer guztien eraikuntzak zehatz-mehatz deskribatu zituen idazleak artikulu luzean. Eginkizun hura neurri batean liburu honetan nolabait betetzeko argazkien bidez egin da.

Lantokiko indar elektrikoa sortzeko hiru bide erabiltzen zituzten: Zaldibiako Zentrala, Oriako ur-saltoa eta erreserbako turbinak. BBFko lantoki eta Beasain-Ordizia-Lazkao hiru herrietako argi hornikuntza BBFk bideratzen zuen.

Beasaingo Fabrika Handiaren oinarriak ez-ezik diseinua eta etorkizuna egitura aldetik bederen bermatua zegoen XX. mendearen hasieran, 1909an hain zuzen. Hurrengo urteetan haserako erro haiek garatu ziren.

BBFko langileak urtez urte

Laukia hau osatzeko Zurbano eta Legorbururen liburuetako datuetan oinarritu gara. Bi autoreek, berriz, BUAko korrespondentzia eta Castells en *Modernizacin y dinÆmica*..izeneko liburutik atera zituztela diote. Beste alde batetik, GFAaren estadistika intaunketetako datuak ere erabili dira. Kopuruek garbi adierazten dute etenik gabeko hazkundea egon zela.

Urtea	Kopurua	Urtea	Kopurua	Urtea	Kopurua	Urtea	Kopurua	Urtea	Kopurua
1904	396	1905	469	1906	690	1907	720	1908	845
1915	960	1923	1.300	1924	1.386				

CAFeko artxibotik E. Legorburuk, 39. orrialdetik ateratako datuak eman dira jarraian, hain zuzen, 1905eko langileria eta arduradunak. Guztira 469 langilek lan egiten zuten.

Tailerraren izena	Langileria	Arduraduna(k)	Tailerraren izena	Langileria	Arduraduna(k)
B Zentrala	10	Agustin Ferrandiz	C Biltegia	3	
Dm Tailerra	20	Oscar Leguine	D Sutegia	81	Mr. Damm
E Tailer Mekanikoa	107	Jose I. Agirre, Fritz Stneishoff Robert Rejasick	F Muntaketa	53	Nikomedes Larraæaga
F Pintaketa	15		G Aroztegia	42	Juan Semavilla
L Galdategia	24	Florentino Zerrajeria	Lm Modelutegia	7	Jose M. Katarain
K Gurpildegia	63	Emilio Burghardt Emil Felkmann Karl Rusk Corneli Dickmann August Schwartz	Iturgintza eta hargintza	14	
Maniobrak	17	Felipe Gonzalez	Lurrak berdintze-lanak	13	

BBF lantegiko enplegatu eta langileen nominari buruzko datu solteak lortu dira, esaterako, 1902-1916 urteetako matrikula industrialetan zuzendaritza eta goi-karguen nomina batzuk ezagunak dira, 1912an, berriz, BBFko berrogei bat enplegatuk zerga aitorpena egin zuten. Bada garaiko korrespondentzian adibide kurioso bat. Karmelo Etxegaraik Moises izeneko semea delineatzailea zuen. Frantzisko Goitiaren laguna izanik, ahaleginak egin zituen BBFn lan-postu bat izateko, 1904an. Onartua izan zen delineatzaile bezala, baina, hilabetean 75 pezeta irabaziko zuela jakin zuenean, semeak gutxietsi egin zuen lan postua (Tellechea, 1987, 73-74). Jarraian, 1912an, Beasaingo lantegian, zuzendaritzan, bulegoetan eta tailerretako arduradun, maisu eta laguntzaileek urte batean jasotako nominen zerrenda eman da beste bi orrialdetan.



Alkala Zamora Espainiako II. Errepublikako Lehendakaria CAF lantegian, 1931

PROVINCIA DE GUIPÚZCOA

Año de 1912.

CONTRIBUCIÓN INDUSTRIAL SOBRE UTILIDADES

Declaración que la Sociedad Española de Construcciones Metálicas presenta en cumplimiento de precepto reglamentario, de los sueldos ó haberes que perciben sus empleados ó dependientes.

NOMBRES DE LOS INTERESADOS	Su sueldo ó haber Pesetas	Cts.	OBSERVACIONES	Jornales
Gaston Cottez	5.700	—	Ingeniero Jefe de Talleres	Villafranca
Antonio Brú	6.000	—	Maestro Electricista	Zaldua
Federico Uffmann	5.400	—	" Forja	Villafranca
Fausto Urdapilleta	2.400	—	" Oficina	id
Juan Goicoechea	3.600	—	" Mecánico	Zaldua
Dn Ignacio Aguirre	3.300	—	" " 2º	Beasain
Miguel Aguirre	2.700	—	" Especialista	id
Fabián Arrieta	2.700	—	" Mecánico (noche)	Zaldua
Nicomedes Larrañaga	2.600	—	" Montaje	id
Joaquín Larrañaga	2.000	—	" " 3º	Beasain
Salvador Carrejo	3.000	—	" Pintores	Villafranca
Juan Amarillo	4.000	—	" Carpintería	id
Arturo Weidman	SECM delineantea				250
Bizente Hernandez	SECM enpleatua				150
Jose Martin Arana	Tinta fabrika			Kale Nagusia	140
Monteabeer-eko kondea	Zentrala, 71 zaldi			Igartza	369
	Zentrala, 10 zaldi			Aratz	50
Agirre Nazabal	Zentrala, 296 zaldi			Mariagas	1.480
BBF	Makinak				49.183
	Zentrala, 130 zaldi				162
	Zentrala, 18 zaldi				303
Jose A. Lasa	Zentrala, zaldi bat				16
Atanasio Sagarminaga	Botika			Kale Nagusia	24
Jose Jauregi					24
Kintin Altolagirre	Sendagilea			Kale Nagusia	200
Jose Gabarain					200
Pedro Goena	Albaiteroa				150
Beste guztiak					5.650
Batura					61.908

Beasainen, 1912-1916 urteetan, berriro aldaketa nabariak gertatu zirela adieraziko dute matrikula industrialeko datuek, 1912ko 61.121 kopurutik 1916an 98.120 pzta errekaudatzera igaro baitzen Udala. Urtez urteko aldaketa batzuk aipatu dira jarraian.

1912an ez zen gauza berezirik gertatu eta 61.121 pzta ordaindu ziren. (AD IT, 3167, 1)

1913an, BBF hazten ari zela dirudi eta zerga emaileak erruz ugaritu egin ziren, aurreko urteko enplegatu bakarra hamarreko kopurua bilakatu zen eta 64.777 pzta ordaindu ziren. (Ibidem, 2780, 3)

1914an, bi ikastetxe berrik zergak ordaindu zituzten Hermanos de Escuelas Cristianas eta Notre Dame serorek, zerga kopurua igo egin zen 68.487 pezetatara. (Ibidem, 2958.)

1915ean, ez dago inongo aldaketa nabarmenik eta 68.262 pzta ordaindu ziren. (Ibidem, 2962, 2.)

1916an, bat batean beste urrats nabarmena gertatu zen, zerga kopurua 102.620 pezetara igo baitzen. Orduan ere ez noski tarifak igo zirelako, baizik eta beste enpresa berri baten susmoak ageri dira. Izenik ageri ez bada ere, CAF lantegiaz ari gara hitz egiten. Lehen BBF enpresak urtero 49.183 pzta ordaintzetik, 1916an, 81.910 pzta ordaintzera igaro zen. Gainera, lehen aldiz, Beasainen San Sebastian banketxea ageri da, Telesforo Kintana, Leonardo Zunzunegi eta Bitoriano Oæatibia zuzendari eta administrari zituelarik. (Ibidem, 2959a.)

1917-1924 urteetan, ordea, BBF edo CAF enpresak ez zuen zergarik ordaindu Beasaingo matrikula industrialean. GFA auzitan ibili zen CAF lantegiarekin, 1919-1928 urteetan. Beasaingo zerga-kopuruak 11.000-26.000 pezetetan ibili ziren. (Ibidem, 2960 / 2961 / 2963, 2 / 2964, 2 / 2965, 2 / 2966, 2 / 2967, 2 eta 2968, 2) Beasaingo matrikula industriala zazp



Beasain Igartza aldetik, fondoan Txindoki, 1940ko hamarkadan

urtetan, CAF lantegiko zergarik gabe, 15.000 pezetetan igo zen, hots, erraz gainditu zuen bere bikoizketa. Enpresarioen tarifan, fabrika, zentral, errota, tailer eta kontratistak ageri dira 1924ko zerrendan: Agustin Mendizabal tela fab., Emilio Hunolt tinta fab., Berasategi eta Olaberrieta boltsa fab., Agapito Albarez boltsa fab., Alberto Zunzunegi moldiztegia, Irizar errota, Agirre eta Nazabal, Udaletxea, Zunzunegi, Odriozala eta Arana bost elektro zentral, Aranburu Tiffe tailer mekanikoa, Bernedo giltza fab., Jose Guridi eta Iguain bi kontratista.

2.3.3. Beasaingo auzo eta kale izenak, 1900-1940

Beasainen XX. mendeko hirigintzaren azterketa sakon eta osorik ez dago, ikertze lan hauetan bederen ez da aurkitu. Badira kapitulu eta artikulu solteak, gaurko kale izen eta toponimikoak. Horietako aztarnetan oinarritzen dira apunte hauek. Garai hartan, 1900-1940, auzo eta kale berriak sortu ziren, Geltoki eta Ezkiaga edo La Porteria, Kale Berria, Bideluze, Arana eta abar. XIX. mendean erabiltzen ziren kale izen batzuk, besteak beste, Santa Maria, Nagusia, Geltokia, 1902ko matrikula industrialean ere ageri dira, Igartza aldea F. Zunzunegiren zentrala eta M. Irizarren errota kokatzeko, Mendebaldea diote aipatu matrikulan, ordea; 1911ko matrikulan, berriz, Tren Geltokitik mendebalderago bizi zirenei Igartza koka-lekua ipini zieten.

Serapio Muxikak, 1902-1914 urteetako Beasaingo hirigintzako datu interesgarriak eman zituen, 1922ko BF aldizkariaren lehen orrialdean. Beasaingo Udalak, 1902an, 22.000 pezeta bakarrik sarreretan jaso arren, 1902-1914 ondorengo hamabi urtetan obra hauek egin eta 414.617 pezeta hirigintzan inbertitu zituen. Datu haien arabera, hamabi urtetan, bataz beste, 34.551 pezeta inbertitu zituen, noski, beste zerbitzu publiko eta gastu arruntez gainera. Beasainen hazkundearen beste sintoma bat da.




RENFE tren-makina 7669



Tailer mekanikoa

Kontzeptua	Pezetak	Kontzeptua	Pezetak	Kontzeptua	Pezetak
Eskoletako obrak	28.387	Hiltegia	13.209	Espaloiak	28.142
Arana kalea	7.386	Hilerria	33.608	Frontoiaren konponketa	5.270
Alondiga asfaltatu	3.385	Estolderiak	8.831	Ur-hornikuntza	188.175
Merkatu eta kiskoa	31.066	S. Maria kaleko adokinak	13.815	Kaleko argiak	3.436
Etxeberriak	17.000	Osakidetzan	20.578	Bernedoko errepidea	6.674
K. Nagusia zabaldu	5.644			Batura	414.617



BAJO ARAGON tranbia

E. Legorbururen arabera, *Etxegintzaren sukarrak bortizki astindu zuen Beasain. Kale Nagusia Fabrikarekin lotzen zuen errepideko zenbait leku hiritartu eta bide zati horri Kale Nagusi hedatua izena ipini zitzaion. Geroago, ordea, Calle Nueva (Kale Berri) izena hartuko du: II. Errepublika garaian, berriz, Pablo Iglesias kalea esango zaio lantegi aurreko kalezatiari eta gaur egun Jose Migel Iturrioz kalea, lantegiaren helbidean agertzen den bezala.*

J. Zu aurrek, berriz, Bideluze kalea 1916an eraiki zela dio. Kale Nagusiaren inguruan, berriz, 1908. urte aldera J.M. Aranak zerrategi mekanikoa zeukala.

2.3.4. Lehen langile mugimendu, alderdi eta erakunde politikoak Beasainen

MG enpresan, 1901ean, greba ajustajeko langileek hasi eta beste tailerretara hedatuz, sasoi bertsuan Gipuzkoako langileriaren diru-laguntza jaso zuten, batez ere kopururik handienak Eibarren antolaturik zegoen Agrupacin Socialista elkartearen kutxatik heldu zitzaizkien. Gipuzkoan zehar langile mugimenduaren antolaketa eta borroka ere handik zabaldu zen. Sei urte geroago, 1907an, BBFko aroztegian 63 langilek bi eguneko lan-uztea egin zuten, langile batzorde bat nabarmendu omen zen, lantokiko zuzendaritzak denak kale gorrian utzi eta gatazka isilarazia izan zen (Zurbano, 1996, 118). Nahiz eta Gipuzkoa osoan, 1911n, langile kopururik handiena zuen herria, 1.200 langile alegia, Beasain izan, bertako langile mugimenduak ez zuen Eibar herriko indarrik lortu eta aipatu mugimenduak beranduago iritsi ziren Goierri (Fusi, 1975, 176-180).

Horrek baditu bere arrazoi sakonak. Eibar herri industriala Bizkaiarekin mugan zegoen, Bilboko langile mugimendu kementsuaren eragina zuzenagoa izan zuen eta gainera, 1910ean, Eibarren 1.000 bazkideko federakuntza batek funtzionatzen zuen (Castells, 1993, 152). Halare, Beasainen sozialistek izan zituzten beren elkarte, sindikatu eta egoitza goiztiarrak. Antzeko baieztapenak egin zituen beste autore honek.

> Beasainen ere, mende honen hasieran, izan behar zuen Elkarte Sozialista bat, 1909 aldera desagertu eta 1915ean berragertu zena. Elkarte horren kideek, Hainbat Lanbideen Elkarteko langile partaidea lehenik eta UGTeko Metalurgi arloko Sindikatukoak gero, zuzendu zuten CAFeko mugimendu sindikala, 1917ko abuztuko Grebaldian, eta lehiatsuki parte hartu zuten, gorago ikusi berriak ditugun Diktadura eta Errepublika garaietako demokrazia, askatasun eta lorpen sozialen aldeko ekintza politiko nahiz sindikaletan (Zurbano, 1994, 132)

Beasainen langile mugimendua berandu iristeaz gainera, langileriak bere errebindikapenetan mantso jokatu zuen, benetako klase kontzientzia hartzea asko kosta egin zitzaion. Langileriaren erdia baino gehiago bertakoa izan, lantoki eta baserriko lanak, biak txandaka eginez, bizimodua ateratzen zuen-eta.

> Jadanik 1917an UGTren Beasaingo *Hainbat Lanbideren Elkartea* eratu zen, eta Maiatzaren Lehena ospatu ere bai, San Juan egunerako langile propagandarako mitin bat antolatuz, Pilotalekuan burutu zena. Urte hori oso gatazkatsua izan zen, huelga bat baino gehiago egin baitziren. Ekainaren 19 eta 23 artean lehenengo greba egin zen Bagoi Fabrikan, eta amaieran sei langile kaleratu zituzten. Abuztuko greba egunerako lehen esperientzia bezala balio izan zuen.
>
> Abuztuaren 12an *Hainbat Lanbideren Elkartearen* batzar batek grebarako deia egin zuen hurrengo egunerako, egun horretarako UGT eta PSOEk Estatu guztirako deitu zuten greba iraultzaileari erantzunez, eta CAFeko ia langile guztiek egun zuten greba. Hurrengo egunetan lanik egin gabe jarraitu zuten. Errepresioa egun berean hasi zen, abuztuaren 13an, Gipuzkoa guztian Gerra-Egoera ezarri ondoren, egun horretan eman baitzuten *Hainbat Lanbideren Elkartearen* Zuzendaritza Batzordea atxilotzeko agindua, gobernadore militarraren iritziz, hura baitzen grebaren aldeko gune nagusiena. Geltokiko langileek ere grebara jo zuten, eta armadak parte hartu behar izan zuen kargatze-deskargatze lanak egiteko antolatu ziren lagun-taldeak eta hilaren 16az geroztik Fabrikara joaten hasten diren 700 langileak (lantegiko langile guztien % 53a, gutxi gorabehera) babesteko. Herriko jendeak harriak eta botilak botatzen zizkien eskirolei eta armadakoei. Hilaren 25ean oraindik gatazkak jarraitzen zuen, Gipuzkoan Beasain eta Eibar izanik herririk saiatuenak (Zurbano, 1996, 119-120)

Greba hura ELA-SOV euskal sindikatuak ere bultzatu zuen, Beasaingo ELA 1915eko maiatzean jadanik antolaturik zegoen eta bere estrategiaren haria zertxobait baztertuz, zenbait huelgetan parte hartu zuen. *Badakigu ekainerako 150 bazkide zituela. Urte hartako urriaren 2an inauguratu zen zialki berelokala. Euskadi mailan gertatu zenaren antzera, hasiera batean bere aktibitateak asistentzialak eta mutualistak izan ziren batez ere, EAJk aldarrikatzen zuen orden soziala eta klase sozialen arteko armoniari jarraituz.* (Barandiaran, 1995, 44)

Beste herrietan bezala, Beasainen ere, EAJ eta ELAren arteko erlazioa oso estua izan zen, nahiz eta o zialki biak independienteak izan teoria. *Hori baiezta tzeko, 1915ean antolatutako sindikatuaren lehenengo zuzendaritza batzordeari begirada bat botatzea besterik eztago, bere lehendakaria, idazkaria eta diruzaina, Jacinto Arrieta, Jacinto Sarrionandia eta Agapito Zumeta hain zuzen ere, urte haietan batzokiko zuzendaritza batzordean egon baitziren* (Ibidem).

2.3.5. Beasainen, XX. mendearen hasieran alderdi politikoen sorrera eta hauteskundeak

Hemeretzigarren mendean karlista eta liberalak bazirela onarturik, Gipuzkoan gertatzen zen bezala, Beasainen ere, beste herri koskorretan antzeko, *tradizionalistak ziren nagusi herrian, karlistak batik bat, 1907tik aurrera beren Crculo Tradicionalista elkartearen bidez antolaturik* (Barandiaran, 1995, 20). XX. mendean, Beasainen noiz antolatu, nola azaldu eta non kokatu ziren alderdi batzuk adieraziko da hemen.

Beasaingo Jaietan, 2000. alean ageri den *Beasaingo Elkarte Sozialistak ehun urte bete zituen, 1900eko ekainaren 20an La MG enpresako langileek Juan Blanco eta Agustin Mas sozilistak aukeratu baitzituzten Junta Local de Reformas Sociales delako herriko batzordea sortu berrian beraien ordezkari izan zitezen.*

> Beasaingo EAJri buruz daukagun lehenengo albiste o ziala Zumarragan 1908ko ekainaren 20an lehenengo Gipuzko Buru Batzarra aukeratu zeneko Batzar Nagusiari buruzkoa da, nahiko berandukoa bera. *Euzkadi* edo *Deia* egunkariek urte batzu geroago esango zutenez, ordurako baziren herrian *bizkaitar* (abertzale) batzu (Ibidem, 21)

Bestalde, Beasaingo 1911ko matrikula industrialean, Batzokiak eta Circulo Tradicionalistak, bi elkarteek 94na pezeta zergatan ordaindu zuten: lehenengoak egoitza Kale Nagusiko 3. zenbakian eta bigarrenak Santa Maria 2.ean zeukaten. Ordizian tradizio handiagoa zuten karlistek. Dena dela, Bea-

saingo karlisten inguruan bada argitalpen interesgarri bat, *Albœm Tradicionalista, Centenario de la gloriosa comunin, 1833-1933*. Liburu haren zuzendaria beasaindarra izan zen eta, gainera, Simon Ezquiagak hiru artikulu idatzi zituen bertan: DEDICATORIA, MI ORACIN AL CENTENARIO, Canto a D" Margarita de Borbon eta AL CERRAR... Autorearen ideologiak ez du duda izpirik uzten. Bere hitzetan Tradizionalismoa eta Karlismoaren muina espainol izakeran zegoen. Barandiaranek, ordea, *1908ko azaroaren 22an inauguratu zen o zialki batzokia eta Kale Nagusiko 16. zenbakian zegoela dio (Albœm, 1933, 23)*.

Udal hauteskundeak Beasainen

Aipatu Barandiarenek idatzitakoari jarraituz, 1911n, hasi ziren alderdiak hauteskundeetan parte hartzen. Azken *derdiaren antolaketaren ondorengo lehenengo urteetan etzen borroka elektoralik egon 29. artikuluaren arabera aukeratu baitziren udalak: 1911n karlista bat eta lau independiente aukeratu ziren, eta 1913an hiru liberal, karlista bat eta independiente bat. Alkatea JosØ Miguel Iturrioz Arin liberala izan zen urte guzti hauetan (1906tik 1919ra egon zen alkatetzan) (Albœm, 40)*. Ondorengo, 1920 eta 1922 bi urteetan ere, liberalak garaile izan ziren. Gero Primo de Riveraren diktadurarekin ez zen hauteskunderik izan, bai alderdi politikoek bai sindikatuek geldialdi bat jasan izan zuten.

II. Errepublika Beasainen

Atzerapen handiarekin, baina, 1931ko apirilaren 12an, Beasainen hiru alderdi aurkeztutzekotan ibili ziren hauteskunde munizipaletara: Katolikoen Batasuna, eskubia; Errepublikar-Sozialistak eta EAJ. Azken haiek eskubikoekin batera 11 eta Sozialistek 2 zinegotzi lortu zituzten. Espainia mailan, apirilaren 14an II. Errepublika aldarrikatu zen. Berriro hauteskude munizipalak egin ziren eta Beasainen, maiatzaren 31ko hauteskundeetan, ordea, ezkerrak 11 eta eskubiak 2 zinegotzi lortu zituzten. Gipuzkoan eta Beasainen, urte berean beste hauteskunde batzuk, Lizarrako Estatutua zela bide, egin ziren. Gipuzkoan aldekoek irabazi arren, Beasainen 509 boto alde eta sozialista-errepublikar-komunistek 611 boto izan zituzten, beraz aldekoak ez ziren garaile atera.



Beasaingo tren-geltokia, 1959



INDAR lantegia eta berak eraikitako etxe-bizitzak

Tira-bira askoren ondoren, 1933ko abuztuaren 6an, Nafarroari bidea irekita uzten zion Estatutu erreformatu bat, ordea, onartu zen Beasainen, aldeko botoak %8597 izateraino iritsi ziren. Espainiako Gorteetako hauteskundeetan, 1933ko azaroaren 19an, alderdi anitzek bakoitzak bere alderdiari botoa eman zion. Benetan, Beasainen orduan agertu zen alderdien indar korrelazioa: EAJ 726, Eskuineko Batasuna 523, PSOE 482, Errepublikarrek 231, Komunistek 7 eta ANVk 1. Espainiako Gorteetako hauteskunde berriak berriro, 1936ko otsailean egin ziren eta honako emaitzak suertatu ziren Beasainen: Fronte Popularrak 729, EAJk 657, Iraultzaren aurkakoek 569 eta beste batzuk.

2.3.6. Beasainen, 1900-1940 urteetan, sortu ziren zenbait kultura eta kirol erakunde

Urtez urte sortu ziren erakunde batzuen zerrenda emanaz hasi eta amaitu da atal hau, herriak industrializazioaz at, aurreko mendean izan zuen bilakaera zabalagoa adierazteko, bere gabeziak barne.

1903an, kale Nagusian Bixente Telleria musikariak klaseak ematen hasi eta 100 pezetako zerga ordaindu zuen.

1904an, Casino de Beasain elkartea sortu eta abenduaren 8an inauguratu zen, egunkarietan ageri denez. Gainera, bere egoitza Kale Berriko bat zenbakian ezarri eta 81 bazkide zituen (Aranguiæano, 2001, 113).

1906an, gaur Santa Maria parrokian dagoen organoa Parisen erosi zuten.

1909an, Hnos. De la Dcta. Crta edo salletar anaiak beren eskola fundatu zuten, Santa Maria kaleko 11 zenbakian, Teresa Sangroniz anderearen etxean eta, 1928an, zati berria erantsi zioten(Lasa, 2001.)

1909-1918 urteetan, Beasain, Aratz-Matximenta, Astigarreta eta Garinen telefono zerbitzua jarri zuten.

1913an, Club Deportivo Beasain kirol elkartea sortu zen.

1914an, Beasainen lehen txirrindulari-froga antolatu eta Zumarragako Joakin Larraæagak irabazi zuen.

1915ean, Beasaingo Batzokian euskal eskola zabaldu zen eta Santa Ageda egunean, lehen euskal antzerkia eman zen.

1920an, Sociedad Recreativa Ferroviaria tren-geltokitik gertu zabaldu zen

1922an, Beasain Festivo aldizkariaren lehen alea argitaratu zen erdara hutsean.

1924an, aurrekontua 83 mila pezetakoa zuelarik, gaur ezagutzen den udaletxea inauguratu zen, eraikuntzari erantsirik eskolak zituen. Eskola haietaz atal honen azkenean zenbait datu eman dira. Argazkia 2000ko BJ alean ikus daiteke.


1925ean, Casino de Beasain eta Club Deportivo Beasain bi kirol elkarteak batu ziren. Bategiteak onura itzela eman zion bagoigileen futbol taldeari. CAFen eremuetan zuen taldeak joko-zelaia. *SENPEREKO FUTBOL-ZELAI ZAHARRA. Senperekoa izan zen Beasainek eduki zuen lehen arauzko futbol-zelaia: Kirol zaletu guztientzako topaleku pribilegiatua izan zen lau hamarkadatan zehar. Senpereko futbol-zelaian 2.500-3.000 pertsona inguru sar zitezkeen. Baranda bat izan zuen buelta guztian, hasieran egurrezkoa eta gerora hormigoizkoa izan zen baranda: horrekin batera, banku luzea zegoen, partiduak eserita ikusi ahal izateko. Denborarekin, iparraldean, egurrezko eraikin bat izatera iritsi zen, non aldagelak baitzeuden jokalarientzako komunak, dutxak, urez betetako harraska handia, taberna atxikia...; egurrezko tribuna ere egon zen bertan. Hegoaldean, berriz, ikusleak euritatik babesteko estalkia zegoen* (Barandiaran, 2005, 16)

Serapio Muxikari esker, sarritan idatzi zuen aipatu aldizkarian eta informazio asko utzi zigun bere liburuetan: *Tienen asiento en la villa tres instituciones religiosas: la de los HH. de la Doctrina Cristiana, que se dedican Æ la enseæanza; la de las Hijas de la Caridad y la de las religiosas de Notre Dame dAnglet, ambas dedicadas a enseæanza y beneficencia. Las estas patronales se celebran el domingo, lunes y martes siguientes al da de la Ascensin del Seæor, y el lunes se hace una gran procesin hasta la baslica de San Martn de la Ascensin y Loinaz, hijo y patrono de la villa* (Mœgica, 1918)

2.3.7. II. Errepublika garaiko irakaskuntzari buruzko apunte batzuk Beasain, Donostia eta Gipuzkoan

Beasainen ozta-ozta 1936ko gerra zibila aurretik neska-mutikoentzat eskola publiko eta eraikuntza bakarrekoa lau ikasgelez osatua egin zuen Juan Iguain Telleria kontratistak. Eraikuntzaren aurrekontua 90.702 pezetara iristen zen, Udalak %25 eta Irakaskuntzako Ministerioak 71.236 pzta ordaindu zituen, arkitektoari, berriz, aurrekontuaren %275 eman zitzaion (AAO). Frankoren ditaduraren neurria eta beste behin Beasainen gabezia adierazteko ondorengo primizia gehitzen da ondoren.

- Gipuzkoako lehen ikastolaren debekua eta ezabaketa. Bazen II. Errepublika garaian, Donostiako Campanario kalean, 11 zenbakian Nuestra Seæora del Coro izeneko ikastola bat. Goiko aginduz, Josena Olirea ikuskatzaileak txosten bat idatzi eta puntu hauek bertatik jaso dira:
  a. Academia de Ntra. Sra. Del Coro izenekoa Donostian, Campanario kalean 2.ean zegoen
  b. Migel Muæoa separatista zen fundatzailea eta egoitza horretan bizi zena.
  c. Ikuskatzea egin zen garaian, ordea, Eugenio Goia zen zuzendaria, hura ere abertzalea eta bere familiarekin batera, 1936ko irailaren 12an, alde egin zuen. Eugenioren ordez, orduan, Kaiako Santiago Bereziartua parrokoak zuzentzen zuen akademia.
  d. Bere aliaziorik ezagutu ez arren, bera eta irakasle guztiak abertzaleak ziren susmoa egiaztatu zuen ikuskatzaileak.
  e. Hori bai, *El prestigio moral de estos Seæores, es bueno. = San SebastiÆn 25 de octubre de 1.938 = III Aæo Triunfal.*
- Hurrengo egunean, ikuskatzaile buruak eta gobernadoreak ikastola hura ixteko agindu zuten. Era berean, Beasain, Eibar, Elgoibar, Hondarribia, Hernani, Irun, Lezo, Orio, Pasaia, Erren-



INDAR lantegiaren bilakaera 25 urtean

teria, Donostia, Zarautz, Zumarraga eta Zumaiako eskoletan zuzendariak aldatu zituzten, mugimenduaren aldekoak ipintzeagatik (AAO).

2.4. Azken gerra zibila Beasainen eta fusilamenduak

Beasaingo 1936ko gerra zibileko triskantza adierazteko hiru iturritan oinarritu da liburu honetako argudioa: Pedro Barrusoren liburuan, bertako guardia zibil baten semearen lekukotzan eta Angel Irigorasen ikerketan.

> La ocupacin de Beasain se puede considerar como uno de los episodios mÆs negros de la Guerra Civil en Gipuzkoa. Segœn fuentes de la Øpoca son fusilados unos sesenta personas, entre ellas algunas de ideas derechista a la vez que los requetØs se dedicaron al saqueo, al permitir los o ciales a los soldados que se llevasen objetos y ropa que encuentren en las casas abandonadas (Barruso, 1996, 224).

Zesareo Ugarte Beasaingo sendagile abertzaleak, bere aita Gillermo Beasainen bertan fusilatu ziotenak eskaturik eta Juan Jose Garca Urcelayeta, guardia zibil baten semeak idatzirik, Iparraldeko IKUSKA aldizkariaren 3. alean argitaratu zen bere lekukotza: Beasain, UNA NOCHE SANGRIENTA. Guardia zibilaren aipatu semeak bere soinean bizi eta gau beldurgarrian inguruan ikusi, nozitutako tragedia bat da. Beasainen, 1936ko uztailaren 27-28ko gauean, gertatu ziren fusilamenduak dira. Burua galdutako odolzale militar batzuek, beste herri askotan gertatuko zen antzera, jende andana hil zuten, besteak beste, karlistak eta Gillermo Ugarte, aipatu sendagilearen aita.

> Guillermo Ugarte caa bajo las balas de estos militares, y su œnico delito fue el decir la verdad. En primer lugar expondremos que fue apresado, segœn sus propias palabras, por ponerles en conocimiento de que el camin o coche, que estaba ardiendo en la carretera muy cerca de la fÆbrica de Tintas Hunolt constitua un peligro, ya que en la misma se concentraban productos inamables y que era necesario sofocar o retirar de aquel lugar el vehculo en llamas...
>
> Precisamente este hijo llamado CesÆreo, haba estado, segœn narracin personal de Øste, desde muy de maæana de aquel da de julio atendiendo a heridos de ambos bandos, que en la contienda caan y eran llevados a centros escogidos para tales efectos... Sin embargo la extraæa y fatal paradoja del destino haca jugar su baza, pues mientras el hijo MØdico velaba por las vidas humanas, el padre caa sin vida por el fuego de la adversidad humana (Irigoras, 2006, 191).

A. Irigorasek, gau hartan Beasainen fusilatu zituzten 32 pertsonen izen-abizen, jaioterri, urte eta lanbideak emateaz gainera, Goierri osoan eta Beasainen gerran hil zirenen zerrenda luzea ematen du bere liburuan (Ibidem, 194-200). Gainera, gerra amaitu zenean, epaitegi militarrek eskaturik zerrenda luzeak egin, BUAn gorde eta argitaratu zirenInformes políticos y de conducta como consecuencia de la guerra civil espaæolaTxosten haiek zer ondorio eman zien zerrendan zeudenei aztertu gabe dago gaurdaino. (Ainguiæano, 2004, BJ, 41-44)



Zesareo Ugarte sendagilea

3. Ondorioak

Euskal Herriko eta batez ere Bizkaia-Gipuzkoa bi herrialdeetako industrializazioaren testu-ingurua kontuan harturik, liburu honetako azterketa eta analisia Beasain herrira mugatu da. Herri honen historian, bere nortasuna lortzeko paradan 1840-1940 urteak guztiz erabakigarriak izan ziren. Bere horretan agertu dira, hau da, ehun urteko herri baten bilakaera hiru zutaberen gainean eraikia: Beasain herriaren kokapen estrategikoa eta garraio-bideak; herria moldatu, zizelatu zuten artista aitzindariak eta hirugarren lekuan bertako industria modernoa. Hiru zutabe edo faktore horiei lehentasuna eman zaie azterketa honetan, beste faktoreen guztien artean eragin bortitza haiek izan zutelako.

Beasain herriaren kokapen estrategikoa

Beasain Goierriren erdigunean kokaturik zegoen, errepide eta trenbidez egoki komunikatzeko aukera osoak bereganatu zituen historian zehar, bai udal-eremu barruan, bai Goierri bailararen baitan, bai Gipuzkoa eta beste herrialdeekiko garraio-bideetan. Lehen, XIX. mende aurretik, Igartzako zubia horren lekuko argia izan zen, XIX. mendean berriz, Etxegarateko I Nazionala eta Norteko Trenbidea eskuratu zituen Beasainek. Norteko Trenbidearen plano egileak azkar jabetu ziren bere kokapen paregabeaz, Gipuzkoako plano guztien mugarria Igartzan ipini zuten, hots, zero zutoina izan zen bai Otzaurte, bai Irun aldera trazatu zituzten planoetan.

Ikertu den garaian, zera argi eta garbi agertu da: ahalegin arreta berezia ipini zuela Beasainek, noski beste auzo eta herriekin batera, elkarrekin ondo komunikaturik egoteko: Senpere, Salbatore-Errastiola, Astigarreta, Garin, Arriaran eta Erauskin auzoetara eraikitako errepideak, eta Goierri osoko auto-autobus zerbitzuak antolatu ziren eta.

Fundamenduzko berri interesgarri bat. Beasaindik Otzaurtera bitarteko trenbideak goren mailako desnibela zeukan, trenak ibilbide laburrean aldapa bortitza gainditu behar baitzuen. Lokomotore batek beste puntakorik gabe ezin zituen bagoiak garraiatu. Trenbidea 1929 aldera elektrikatu zen arte, Beasainen tren guztiak gelditzen omen ziren, bigarren lokomotora eransteko, bi traktore haien bidez Brinkolaraino igotzen ziren bidaiariak eta merkantziak. Ohitura hark luzaroan jarraitu zuen. Beasaingo tren-geltokiarekin errepideetako zerbitzu egokiak antolatzea lehen premia izan zen.

Beasain herriaren irudi aldaketaren egileak

Beasainen irudia adierazteko momentuan, modurik errazena hauxe da: 1860an 1.448 biztanle izatetik, 1940an 4.986 eta 1991n 12.080 biztanle izatera iritsi zen. Hazkunde demografiko haren arrazoi eta adierazpenak ezin dira aurkitu soilik Beasainen kokapen egokian, hau da, ez da nahikoa aparteko komunikabideak eta tren-geltoki garrantzitsua zituela esatea. Beste baldintza batzuk eta arrazoi-bide historiko gehiago egon behar zuten. Elkarrekin lotutako beste hainbat faktore eman ziren: giza baliabideak edo faktore humanoak eta industria mota ezberdinak aurkitu dira azterketa honetan. Bere konplexutasuna laburtuz, bi elementu horietan oinarritu da lan hau, oraindik aztertzeke geratuko direla beste hamaika elementuz jabeturik. Dena den, XIX. mendeko Beasainen industriak eragin zuen hazkunde demografikoa eta batez ere hasiera batean bi enpresa-gizonen ekimenak bultzatu zuen hazkunde hura, Jose Frantzisko Arana eta Frantzisko Goitiarenak alegia, lehena beasaindarra, bigarrena ez ordea, gero XX. mendean, kanpotik herrira etorritako joera areagotu zen.

Trenbidearekin batera Jose Frantzisko Arana herriko seme argi eta dohain ugari zituenak Burugorrienea bere eremuetan garraio-bide berri bat eraikiko zutela aurreikusi zuen. Burdinolak gainbehera zihoazen. Arana beasaindarra Martin Usabiaga eta Domingo Goitia bi ordiziarrekin elkartu zen eta industria moderno bat antolatzen hasi ziren hiru goierritarrak Aranaren lurretan, trenbide ondoan. Usabiagak, 1856an, Igartzako burdinola utzi eta hura neurri batean Aranaren koinatuaren eskuetara iragan zen. Iurre eta Igartza bi burdinoletako egur-ikatza bereganatu zuten, hiru bazkideek kapitala ipini eta, 1862an, bederen lantegi berria martxan jarri zuten,

labe garaietan teknika berriekin burdina urtzeko. Gipuzkoako metalurgia industria modernoari hasiera eman zioten. Liburu honetako ondorioetan, Goitia y Cia enpresako hiru fundatzaileen artean zergatik eman zaio lehentasuna Aranari?

Domingo Goitia bere familiarekin, 1860an, bere osaba hil berriaren Jerez de la Fronterako likore fabrika kudeatzera joan zen, handik bete zuen bere eginkizuna, eta 1864an, berriz, Martin Usabiaga hil egin zen, J.F. Arana bakarrik geratu zen lantegi berriaren zuzendaritza eta kudeaketan. Domingo Goitiaren kon antza osoa eta kapitala bereganatu zuen, eta era berean, Josefa Mikaela Lasa Elosta, Usabiagaren alargunak ere bere eskuetan laga zituen botereak. Horrela funtzionatu zuen lantegiak Hirugarren Karlistadan itxi eta Aranak alde egin zuen arte, lehenik Zaragoza eta gero Errioxa aldera. Bai Domingo Goitia eta J.F. Arana 1880ko hamarkadan hil ziren, aurrez, ordea, 1876an, Jose Martin Arana eta Frantzisko Goitia bi semeen ardurapean lantokia lagata.

Aipatu hamarkadan, hiru bazkide fundatzaileak desagertu zirenean, aranatarrak beren kapitala eskuratu eta Usabiaga familiari bere partea ordaindu ondoren, Frantzisko Goitia lege-gizona geratu zen lantegiaren jaun eta jabe. Olaberrian jaioa, baina, kanpoan bizi eta ikasketak ere kanpoan egin zituen. Enpresa-gizona izateaz gainera idazle eta pentsalari bezala nabarmendu zen: liberala eta autonomien aldekoa. Ardura politikoak izan zituen eta hauteskundeetan hautesletzat parte hartu ere bai. Beasaingo lantegia, Hirugarren Karlistada ondoren, Jose Martin Arana eta Frantzisko Goitiak elkarrekin zuzendu zuten, berrikuntza eta teknika berriak sartu zituzten. Baina, Frantzisko Goitiak bere lantegiaren krisi aldiari aurre egiteko makinaria Sestaora eraman zuen eta han MG enpresa berria sortu zuen, besteak beste, Urkixoko eta Valmedianoko markesekin elkartuz.

Bi mendeen mugan, Frantzisko Goitiak oparo idatzi zuen Irlanda eta Euskal Herriaz (1891), Trengintzako gure industriaz (1892), Merkatuen tratatuez (1902), Munduko autonomiaz (1910) eta, gainera, beste anitz liburu eta artikulu ere baditu. Nortasun politiko-ideologiako nabarmena adierazi eta maila handiko ardura politiko eta publikoetan gailendu zuen bere burua. Foruzale sutsua eta La Liga Autonomista mugimenduko buruetako bat izan zen, kontzertu ekonomikoaren aldekoa izateaz batera, benetako autonomia administratzaile zabala lortu nahi zuen Espainiako lurraldeentzat, liberal zentralisten arerioa, errepublika eta autonomiazalea izan zen. La Voz de Guipuzcoa egunkariko akzionista nagusia ere bai. Karlismoa, apaiz eta jesuitekiko itsukeriak ez zituen gogoko eta ondorioz gogor borrokatu zituen bere politikagintzan. Sabino Arana Goiri, 1903an, hil zenean, zera idatzi zuen: *separatismoa Bizkaian berez desagertuko da eta Gipuzkoan, berriz, ez dauka etorkizunik*. Igarle kaskarra izan zen, 1904-1918 urteetan, Gipuzkoan ere jeltzaleak astiro-astiro herriz herri azaltzen joan baitziren, Luis Castells historialariak dioenez.

Bi giza-baliabide edo pertsonaia aipatu dira, Jose Frantzisko Arana eta Frantzisko Goitia. Bi enpresagizon haien maila, eginkizuna eta neurri handi batean uzta izan zen Beasaingo industria modernoa, ez noski biena bakarrik. XIX. mendean aitzindariak biak ziratekeen. Hurrengo mendean, Beasaingo industriaren aitapontekoak beasaindarrak bakarrik ote? Frantzisko Goitiak, XX. mendearen hasieran, 1901ean, SECM eta elkarte haren barruan BBF fundatu zuen garai hartako nantza munduko gizonekin, eta 1917an CAF S.A.k irentsiko zuen BBF. Bai, Jose Frantzisko Arana, Jose Martin Arana eta beste batzuk bertakoak izan ziren, baina, gehientsuenak kanpotik bertaratu ziratekeen: Domingo Goitia, Martin Usabiaga, Frantzisko Goitia, Urkixo, Valmediano eta Aldamako markesak, Matxinbarrena anaiak, Eduardo Aznar, BBF eta CAF bi lantegietako zuzendariak, Hunolt, Bernedo, Eskisabel, Olaran, Larraæaga, Ormazabal eta abar luze bat. CAF S.A. bilakatu zenean kapitala izango zen aitapontekoko bakarra.

Beasainen bilakaeran, enpresa-gizonei lehentasuna emanik, aldi berean beste giza faktore batzuk ezin aipatu gabe utzi daitezke, haiek ere eginkizun garrantzitsua bete zutela ageri baita, esaterako, herriko agintariak, alderdi politikoak, sindikatuak, erakunde kulturalak, irakaskuntzak, BF aldizkariak, baina herriaren bilakaeran eta hazkunde demografikoaren eraginean lehen faktoretzat enpresa eta haietako aitzindariak ikusi dira azterketa honetan. Hazkunde hark alderdi negatiboak ere izan zituen eta segituan bilakaera kritikatzeko unea iritsi da.

Bilakaera kritikoa

1840-1940 urteetako gerrak eta haien ondorioak aintzakotzat izanik, Gipuzkoan, beraz Beasainen ere, eragin zuzena eta erasan latzaren berri jaso da azterketa honetan. Gipuzkoa herrialde forala Espainiako probintzia huts-hutsa bilakatu zen: 1840-1876 urteetan, Ebroko aduanak itsasora eta Irungo mugara aldatu ziren, Foruak desegin eta ondorengo Kontzertu Ekonomikoa ere Frankismoak kendu zuen. Horrela, 1900-1938 urteetako matrikula industriala ere desagerrarazi eta euskal lege edo pribilegio ororen aztarna guztiak ezabatu nahi izan zituzten. 1940ko BF aldizkaria bera Falangeren izenean antolatu zen, ohituraz egiten zen bezala, ez dago bertako alkatearen agurrik, hitzik eta babesik.

Beasaingo historian gertatutako bi efemeride beltz eta azken premonizioa

Hirugarren Karlistadan Santa Krutz gerrillari eta bere taldeak Beasainen egindako triskantza sonatua izan zen, herriko notarioak bere aktetan jasoa, sarritan han eta hemen argitaratua. Txikitze materiala, ordea. Hogeigarren mendean, Gipuzkoan eta bereziki Beasaingo historian eman ziren urratsak, atzerakadak eta batez ere GAU ODOLTSUA edo Una Noche Sangrienta deitua Beasaingo historian ikur bat da. Hemen batez ere Beasain herriarekin erabat loturikoak laburtu eta ondorioztatu dira.

Mendearen lehen bi hamarkadetan, PSOE, UGT, PNV, ELA alderdi eta sindikatuen zentro eta egoitzak ezarri ziren herrian. 1917-1920 urteetako krisialdia, Lehen Gerra Mundiala, CAF lantegiaren sorrera eman ziren. 1920-1936 urteetan, berriz, Beasaingo hauteskunde munizipal demokratikoak, lehiatsuak izan ziren, ezker-eskuin, errepublika eta abertzaleen artean, gorabehera handikoak. Franko eta bere aldekoek gerra irabazi zuten, ondorio latzak eraginez: sindikatu eta alderdiak debekatu, askatasun eta eskubide demokratiko guztiak ezabatu zituzten. Eskarmentu bat emateko fusilamendu masiboa egin zuten. Hura sinbolizatzeko Beasaingo bi gertakizun hautatu eta adierazi dira segidan: Una Noche Sangrienta eta CAF lantegian Carlos Pinillak eman zuen mitina.

Zesareo Ugarte Beasaingo sendagile gaztea, 1936ko uztailaren 27ko gauean, bi aldeetako gaixo eta zaurituak artatzen ari zen bitartean, Gillermo Ugarte bere aita fusilatua izan zen. Aitaren hitzak eta bere delituaren bertsioa dira hauek: *Les digo a unos soldados que tengan cuidado con un coche ardiendo que estaba cerca de la FÆbrica de Tintas Hunolt, y por ello me detienen*.Bere delitua huraxe izan zen. CAF lantegian, 1947ko ekainaren 19an, 2.000 langileren aurrean, Carlos Pinilla falangistak esandako hitzak daude La Voz de Espaæa egunkarian, sindikatu bertikala goraipatuz: lehen sindikatuek lan-uzteak bultzarazten zizkien langileei eta soldatak galarazi. Haien dirua sindikatuen arduradunek beren poltsikoetan sartu eta atzerrira joaten ziren. Sindikatu bertikalaren gezur, juskizio arrunt eta propaganda merkea.

Euskalerrian, Donostian eta Beasainen garaileek Errepublikako agintari legalak kendu, sindikatu eta alderdi demokratikoak ilegalizatu, euskal susmo zuen erakunde oro ezabatu eta fusilamendu masiboa eragin zuten. Santa Kruzek Beasainen txikitze materiala burutu zuen, frankistek, ordea, giza eskubide eta euskal sustrai guztiak errotik ezabatu nahi izan zituzten, errurik gabeko odola isuriz.

Beasainek gerra zibilean jasan zuen eskarmentuzko gau beltza neurtzeko bi lekuko edo tresna izendatu ditugu: 1940-2008 urteetako benetako historia eta, gaur bere hutsune eta gabezi guztiekin, Beasain udalerriak bizi duen egoera dira epailerik objetiboenak: sindikatu eta alderdiak itzuli dira, eskumen pertsonalak berreskuratu dira, ikastola, euskara eta euskal kultura normalizatzeko bidean doaz. Zigorrak, biolentziak, heriotzak eta gerrak luzarora berez ez dute onurarik ekartzen. Ohorezko lekukotza, berriz, Ugarte aitasemeei eskaintzen diegu.

Informazio iturriak

1. Agirre Mauleon, Joantxo eta beste batzuk, 2001, *Igartza, historia eta kultur ondarea*, Beasaingo paperak, 8. alea.
2. Aguado, I., 1922, *CAUSAS Y EFECTOS*, BF.
3. *Albœm Tradicionalista, Centenario de la Gloriosa Comunin, 1833-1933*, 1933, zuzendaria Simon Ezquiaga.
4. Aranburu Ugartemendia, Pello Joxe, eta beste batzuk, 1993, *Klaudio Otaegi (1836-1890)*, Gerriko Ikerlan-sariketa.
5. Idem, 2003, *Ataungo ogibide historikoen edo*, Ataungo Udala.
6. Idem, 2003b, *Lazkaoko bi jauregietako 21 belaunaldiren apunte historikoak, 1335-1919*.
7. Idem, 2006, *Francisco Goitia, Olaberriko seme, pentsalari, idazle eta enpresa-gizon*, Beasain jaietan.
8. Aranburu Ugartemendia, Pello Jose eta Intza Igartua, Luis Mari, 2006b, *Norteko Trenbidearen eraikuntza, ebaluaketa eta ondorioak Gipuzkoan, I, II Liburukiak*.
9. Arguiæano, Victor, 2001, *Breves apuntes de la S.D. Beasain, 1904-1936*, BJ.
10. Idem, 2004, *Informes polticos y de conducta como consecuencia de la guerra civil espaœola*, BJ, 41-44.
11. Arruabarrena Goikoetxea, Arkaitz, 1993, *Goierriko Biztanleria (1860-1986)*, Gerriko Ikerlan-Sariketa.
12. Barandiaran Contreras, Miren, 1995, *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen, 100 urteko historia*, 1995.
13. Idem, 2005, *Sociedad Deportiva Beasain Kirol Elkartea, atzokoak eta gaurkoak*, Beasaingo Paperak.
14. Barruso, Pedro, 1996, *La Guerra Civil en Gipuzkoa*, *Haranburu Editor*.
15. Castells, Luis, 1992, *Los trabajadores en el Pais Vasco (1876-1923)*, Madrid.
16. Diaz Hernandez, Onœsimo, 1988, *Los primeros aœos del Banco Urquijo (1918-1931)*.
17. Espasa Calpe, *Compaœa de los Caminos de Hierro del Norte*, AHF, 1940, Madrid.
18. Etxegaray, Bonifazio eta Muxikak, Serapio, *MONOGRAF˝A HISTRICA DE VILLAFRANCA*.
19. Ezquiaga, Simon, 1933, *Albœm Tradicionalista, 1833-1933, Centenario de la Gloriosa Comunin*, Zunzunegui.
20. Fernandez Albadaladejo, Pablo, 1982, *Estudios de Historia Contemporanea del Pais Vasco*.
21. Fusi, Juan Pablo, 1975, *POLITICA OBRERA EN EL PAIS VASCO, 1880-1923*, Edicion Turner.
22. Garca, Martn, 2003, *El molino Angio*, BJ, 14-16.
23. Idem, 2004, *ARQUEOLOGIA INDUSTRIAL DEL SIGLO XIX (Piezas fabricadas en Beasain por Goitia y Ca.)*, BJ, 12-15.
24. *Idem, 2004, AVENTURAS Y DESVENTURAS EN POCA DE GUERRA, La œltima confrontacin carlista en Beasain (periodo 1873-1876)*, BJ.
25. Idem, 2004, *El primitivo casero de Muxika*, BJ, 31-34.
26. Garmendia de Otaola, Dr. A. S.J., 1948, *BEASAIN PINCELADAS DE SU GEOGRAF˝A*, BF.
27. Gomerz Mendoza, Antonio, 1982, *Ferrocarriles y cambio econmico en Espaœa, 1855-1913*, Alianza Universidad.
28. Gorosabel, Pablo, 1967, *Noticia de las Cosas Memorables de Guipœzcoa*, CEV.
29. Herreras Moratinos, Beatriz eta kidea, 1991, *Altzaritza Goierrin (1850-1950): Aztarna*, Eusko Jaurlaritza.
30. Ibaæez, Maite eta beste batzuk, *BERTAN-BURDINAREN INDUSTRIA, GFA*.
31. Idiakez, Antton eta beste batzuk, 1998, *Jose Felix Amundarain Muxika (Zegama, 1755-Mutiloa, 1825), Goierriko Euskal idazle ezezaguna*, VII. GERRIKO IKERLAN SARIKETA.
32. Irigoras, Angel, 2006, *herri zapalkuntzaren lekuko batzuk*, Erroteta.
33. Larrinaga Rodriguez, Carlos, 2002, *El ferrocarril del Norte y el oaso de los Pirineos a mediadosd del siglo XIX, entre Irœn y los Aldudes*, Casino de Irœn.
34. Idem, 2003, *El ferrocarril del Norte y su enlace transpirenaico a meduiados del siglo XIX, III Congreso de Historia Ferroviaria*, Gijon.
35. Idem, 2004, *Inversiones extranjeras en Guipœzcoa en el siglo XIX (1842-1875)*.
36. Idem, 2007, *EL INGENIERO DE CAMINOS, MANUEL PEIRONCELY (1818-1884)*, Euskadiko Portu eta Bideetako Ingeniarien Kolejioa.

37. Lasa, 2001, *Loinazko San Martin Ikastetxearen Historiarako*, BJ, 14-16.

38. Legorburu Faus, Elena, 1998, *FABRIKA HAUNDIE: BEASAINGO CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES en HISTORIA*, Beasaingo paperak.

39. Lopez, Migel A. eta beste batzuk, 1976.

40. Mintegi, M.A., 2004, BJ, 16-17.

41. Mugica, Serapio de, 1918, *Geografa de Guipœzcoa*.

42. Idem, *Ferrocarriles del Norte*, GAO, JD, SM, 22.

43. Idem, Hijos de Beasain, *Beasain Festivo*, 1922, 3.

44. Idem, Frantzisko Goitia eta Serapio Muxikaren arteko korrespondentzia.

45. Oriol, Rafael, 1909, *LA FABRICA DE VAGONES DE BEASAIN*, Revista Minera, Metalœrgica y de Ingeniera, 109-115.

46. PØrez-Iscar, Isaias, 1901, *LAS GRANDES INDUSTRIAS, estudio del desarrollo de la industria espaœola en todas sus manifestaciones, Guipœzcoa*, San Sebastian.

47. Picavea, Rafael, 1914-1915, *El problem grÆfico descriptivo del Pais Vascongado*.

48. Pirala, Antonio, 1877, *Historia Contemporanea, Anales desde, 1843 Hasta la Conclusin de la œltima Guerra Civil*, 4. lib. Madril.

49. Rodrguez Arismendi, Luis, *Insurreccin Carlista de 1872*, II lib.

50. Rodrguez Ranz, Jose Antonio eta beste batzuk, 2003, *Gipuzkoako Komunikabideen Historia, 3/1833-1937*, GFA.

51. Stanley Jevan, William, 2000, *El problema del carbn*, PirÆmide.

52. Tellechea Idigoras, Jose I., 1987, *Carmelo de Echegaray Cartas a D. Serapio Mœgica (1899-1925)*, Doctor Camino.

53. Valverde, Lola, 1984, *Historia de Guipœzcoa, desde los Orgenes a nuestros dias*, Txertoa.

54. Zu aurre Goya, JosØ, 1998, *BEASAINGO KALE-IZENEN HISTORIA*, Beasaingo paperak, 4. zka.

55. Idem, 1999, *Beasain esku-eskuan, BEASAINGO BASERRIAK*, Beasaingo Udala.

56. Idem, 2000, *ARGAZKIAK, 1873-1960*

57. Idem, 2001, *XX. MENDEKO BEASAINGO ALKATEAK*, BJ, 17-21.

58. Zurbano Melero, Jose Gabriel, 1994, *Industrializazio Prozesua eta Gizarte Modernizazioa Beasainen (1860-1936)*, Beasaingo Paperak 3. alea.

59. Idem, 1998, *Evocacin de los primeros 30 aœos del Ferrocarril en Beasain, 1858-1898*, BF, 49-50.